

EGĀN



4-6

1969

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SUMARIO

Págs.

BERTSOLARITZA PERNANDO A MEZKETARRAREN GA- RAIAN: Lino Akesolo	3
XENPELAR'EN URTEA: Ma- nuel Lekuona	25
IRRADAKOA, PATXI ARSUA- GA "TXANGO"REN INGU- RUAN: Antonio M. ^a Labayen	33
TXORI GALDUAK: R. Tagore. Trad. Aurre-Apr aiz	39
KONTU-KONTARI: Soloeta-As- tarbe, Bitafío	62
JAKINTSUA: R. Sola. Trad. Bo- zas-Urrutia	65
MARTXELA: Julene de Azpeitia	70
JAN-EDANAK: A. A.	90
ADÁBAKIAK: Juan San Martín, N.A.G.	99
GIZONAK ETA EZ: M. de Pe- drolo. Trad. S. Garmendia	105
LIBURUAK: Juan San Martín, L. Akesolo	150
BIBLIOGRAFIA: Juan San Mar- tín	157

DIRECCION Y REDACCION:

A. Arrue, A. Irigaray y L. Michelena

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL ACADEMIA VASCONGADA DE LENGUA Y LETRAS

Dirección y Redacción: A. Anas, A. Ingaray y L. Mierdons

Edición: VENTISIMOS Y CINCO DE FILOLOGIA VASCA
PUBLICADA EN LA DIRECCION DE ACADEMIA - SAN SEBASTIAN

II Época

VN. LVIX

Julio-Diciembre 1976

Bertsolaritza: Fernando

Am... EGAN ... garaiari

Agur, agur!... bertsoari jakanak... Agur bihurtzen gero...
guzi ta prilla guztien hasieran. Ezin dait e in polita atzeagatik...
ofizialitate...
Beroa, berriak jakarzeko zale... amonatu...
non-tan baten eranda... omen... ezinezko...
momentuak... hitzerik ez-in, berriak... baten...
kidan, ez berrak jakatu ta... jakak...
berriak... jakatu ta... jakak...
berriak... jakatu ta... jakak...
berriak... jakatu ta... jakak...
berriak... jakatu ta... jakak...
berriak... jakatu ta... jakak...

CONSEJO DE REDACCION: ARAU, ANAS, INGARAY Y L. MERDONS
DIRECCION DE ACADEMIA: SAN SEBASTIAN

DEPOSITO LEGAL: B. 268 - 1976

publicada en Oviedo, España, A. L. R. O. L. 2. - Diciembre 1976

SUMARIO

CONTENIDO

ARTÍCULO: FERNANDO	1
ARTÍCULO: ANTONIO	2
ARTÍCULO: JULIO	3
ARTÍCULO: ANTONIO	4
ARTÍCULO: ANTONIO	5
ARTÍCULO: ANTONIO	6
ARTÍCULO: ANTONIO	7
ARTÍCULO: ANTONIO	8
ARTÍCULO: ANTONIO	9
ARTÍCULO: ANTONIO	10
ARTÍCULO: ANTONIO	11
ARTÍCULO: ANTONIO	12
ARTÍCULO: ANTONIO	13
ARTÍCULO: ANTONIO	14
ARTÍCULO: ANTONIO	15
ARTÍCULO: ANTONIO	16
ARTÍCULO: ANTONIO	17
ARTÍCULO: ANTONIO	18
ARTÍCULO: ANTONIO	19
ARTÍCULO: ANTONIO	20
ARTÍCULO: ANTONIO	21
ARTÍCULO: ANTONIO	22
ARTÍCULO: ANTONIO	23
ARTÍCULO: ANTONIO	24
ARTÍCULO: ANTONIO	25
ARTÍCULO: ANTONIO	26
ARTÍCULO: ANTONIO	27
ARTÍCULO: ANTONIO	28
ARTÍCULO: ANTONIO	29
ARTÍCULO: ANTONIO	30
ARTÍCULO: ANTONIO	31
ARTÍCULO: ANTONIO	32
ARTÍCULO: ANTONIO	33
ARTÍCULO: ANTONIO	34
ARTÍCULO: ANTONIO	35
ARTÍCULO: ANTONIO	36
ARTÍCULO: ANTONIO	37
ARTÍCULO: ANTONIO	38
ARTÍCULO: ANTONIO	39
ARTÍCULO: ANTONIO	40
ARTÍCULO: ANTONIO	41
ARTÍCULO: ANTONIO	42
ARTÍCULO: ANTONIO	43
ARTÍCULO: ANTONIO	44
ARTÍCULO: ANTONIO	45
ARTÍCULO: ANTONIO	46
ARTÍCULO: ANTONIO	47
ARTÍCULO: ANTONIO	48
ARTÍCULO: ANTONIO	49
ARTÍCULO: ANTONIO	50
ARTÍCULO: ANTONIO	51
ARTÍCULO: ANTONIO	52
ARTÍCULO: ANTONIO	53
ARTÍCULO: ANTONIO	54
ARTÍCULO: ANTONIO	55
ARTÍCULO: ANTONIO	56
ARTÍCULO: ANTONIO	57
ARTÍCULO: ANTONIO	58
ARTÍCULO: ANTONIO	59
ARTÍCULO: ANTONIO	60
ARTÍCULO: ANTONIO	61
ARTÍCULO: ANTONIO	62
ARTÍCULO: ANTONIO	63
ARTÍCULO: ANTONIO	64
ARTÍCULO: ANTONIO	65
ARTÍCULO: ANTONIO	66
ARTÍCULO: ANTONIO	67
ARTÍCULO: ANTONIO	68
ARTÍCULO: ANTONIO	69
ARTÍCULO: ANTONIO	70
ARTÍCULO: ANTONIO	71
ARTÍCULO: ANTONIO	72
ARTÍCULO: ANTONIO	73
ARTÍCULO: ANTONIO	74
ARTÍCULO: ANTONIO	75
ARTÍCULO: ANTONIO	76
ARTÍCULO: ANTONIO	77
ARTÍCULO: ANTONIO	78
ARTÍCULO: ANTONIO	79
ARTÍCULO: ANTONIO	80
ARTÍCULO: ANTONIO	81
ARTÍCULO: ANTONIO	82
ARTÍCULO: ANTONIO	83
ARTÍCULO: ANTONIO	84
ARTÍCULO: ANTONIO	85
ARTÍCULO: ANTONIO	86
ARTÍCULO: ANTONIO	87
ARTÍCULO: ANTONIO	88
ARTÍCULO: ANTONIO	89
ARTÍCULO: ANTONIO	90
ARTÍCULO: ANTONIO	91
ARTÍCULO: ANTONIO	92
ARTÍCULO: ANTONIO	93
ARTÍCULO: ANTONIO	94
ARTÍCULO: ANTONIO	95
ARTÍCULO: ANTONIO	96
ARTÍCULO: ANTONIO	97
ARTÍCULO: ANTONIO	98
ARTÍCULO: ANTONIO	99
ARTÍCULO: ANTONIO	100

EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" de la Excm. Diputación de Guipúzcoa.

DIRECTOR: Luis Michelena.
CONSEJO DE REDACCIÓN: Angel Irigaray, Antonio Arrúe y Luis Michelena.

DEPOSITO LEGAL: S. S. 289 - 1958
Impreso en Gráficas Colón, S. L. P.º Colón, 4, S. S. - Diciembre, 1969.

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Arrúe, A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipuzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXIX

Julio-Diciembre, 1969

Bertsolaritza Pernando Amezketarraren garaian

Agur, agur t'erdi, bertsolari jaunak. Agur biotzez emengo aita nagusi ta praille guztien izenean. Ezin det esan nolako atsegiñez ikusten zaituztegun emen.

Beñola, zezenak jokatzeko zaletasun amorratuagoa zan erri batean, moja-etxe batera eraman omen zituzten zezenak. Mojak berak beren komentutik irtetzerik ez-ta, barruko patioen batera sartu omen zizkieten, an barruan jokatu ta mojek ikusi zitzaten. Moja batzuek olako erreztasunik izan baldin bazuten zezen-jokoak ikusteko, Euskalerriko prailleok zergatik ez genduen izan bear eskubiderik, bertsolariak gura ekarri ta beron gaitasunak geron etxe-barruan ikusiz atsegiñ-alditxo bat izateko?

Zuek gaurkoan aukera atsegingarri au eman diguzute. Agur eta eskerrik asko guztioi.

Pernando Amezketarraren urteurrenean gaude. Aurten berreun urte bera jayo zala. Omen aundiko bertsolaria bera. Nire itzalditxo au aren omenezkoa izango da. Bertsolaritza Pernando Amezketarraren egune-

tan, Amezketan asi ta Markiña-alde ontaraño: orra nik zuei nolabait azaldu nai dizuedan gaia.

Egun gogoangarriak bertsolaritzarentzat Pernando Amezketarrarenak. Orduantxe azaldu ziran bertsolariak lenbiziko aldiz liburuetara, istoriaren argitara. «Euskara, ialgi adi kanpora, ialgi adi plazara, habil mundu guzira», esan zion antziña Etxepare argiak euskerari. Berdintsu esan zuen Pernandoren egunetan Euskalerriko beste seme ta bertsosidazle argi batek: «Bertsolaritza, agertu adi mundura, erakutsi ire burua mundu guztiaren aurrera, batere lotsatu gabe.» Iztueta izan genduen oyu ori bota zuena. Artean, garai bereko Zamakola kendu ezkerro, gutxi iritziz edo, iñork etzuan Euskalerriko oitura jator au aintzat artu ez apiatu ere.

Iztuetak liburu eder bi egin zituen: «Gipuzkoako kondaira», bata; «Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira», beste. Bi liburu oietan aipatzen eta goresten du bertsolaritza, gogorik beroenaz alere, eta bertan ematen du Pernando Amezketarraren berri. Goazen, bada, liburu oietara eta ikusi dezagun zer dioten bertsolaritzaz, lenbizi, eta Pernandoz, urrena; gero, Euskalerrri guztian zear, ibillaldi bat egingo degu, Pernando'ren egunetan bertsolaritzak zer-nolako aztarrenak utzi zituen ikusteko.

Sartu gaiten, besterik gabe, sail onetan eta aztertu dezagun nolako aurpegia erakusten digun bertsolaritzak Iztuetaren liburuetan. Argi argi erakutsiko dizkigute aren itzak bi gauza: alegia, bertsolaritza gauza zaarra dala gure artean, eta Iztuetaren garaian bizi bizirik zirauala. Berari entzutea besterik ez daukagu:

«Gipuzkoatarrak denbora guztietan eta beti izan dute itz neurtuak supituan eta ongi kantatzeko eresia eta jakinduri aundia. Non ezagutu dirade, bada, eskolatu gabeko mutillen artean, plaza agirikoetara irtenik, ain apustu baliosoak jokatzen, nola gure errietan?» Onela dio Gipuzkoako dantzei buruzko liburuan. Eta Gipuzkoako kondaira-liburuan berdintsu dio: «Beste (jostaketa oiturazko) bat badute jatorriz gipuzkoatarrak guztiz miraritsu eta txit atsegingarria...: itz neurtuak kantuz zortzikoan edo beste edozein neurritan supituan aotik aora alkarri ematea, antziña antziñako denbora doatsu aetan Arkadiar ospatsuak egin oi zuten bezelaxen. Oitura gogoangarri onek irauten du Gipuzkoan gaurko egunean ere, bere sasoirik oberenean bezin irme eta sendoki.»

Iztuetak ba daki bertsotarako erreztasuna ta gaitasun au antziñako erri batzuek ere izan zutela, batez ere greziatarrek. Ona nola dion: «Birjiliok esaten du bere artzai-jolas edo eglogaetako batean nola bein batez ari ziraden Menalkas eta Dametas, apustu egiñik, itz neurtuetan jokatzen, Palemon erabakitzaile zutela.» Batak eta bes-

teak ezin obekiago egin zuten beren lana ta Palemonek ezin izan zuan erabaki zein zan geiago. Biak berdiñean utzi zituen.

Greziatarrek-eta galdu zuten oitura ori gure artean bizirik degu. Eta ez degu aintzat artu. Onek min ematen dio Iztuetari. Birjiliok greziatarren oitura ori bere bertsoekin munduan zear zabaldu ta eza-guerazi zuen bezela, nola ez ote degu orain artean Euskalerrian izan gure bertsolarien oitura ta trebetasuna goratzeko kantaririk? Olakorik ez da gertatu atzerri askotan. «Euskalerriaz kanpora (ona Iztuetaren itzak), beste tokietan ezagutzen ez dan oitura gogoangarri au baldin balitz Frantziakoa, Inglaterrakoa, Turkiakoa edo Akelarrekoa, or ibilliko lirake paperetan edergarri askorekin apaindurik munduz mundu gauza aundizat txit.»

Ezin du onez ikusi euskaldunek onetan duten zabarkeria. Gure bertsolaritza erdaldunek aintzat ez artzea ez da arritzekoa. Baña euskaldunek zer egin dute emen? «Greziatarrak denbora batean zuten bezelako gogo Gipuzkoatarrak balute beren oitura jatorrizkoak jasotzeko, ikusiko lirake gorengo mallara igoak, mundu guziak begirune alaiarekin begiratzen diezatela.»

Zaldibitar ospetsu onentzat, gure bertsolarien esaera egoki ta ateraldi zorrotzak baldin zabaldu ta ezagutu balira, Quevedo ta beste antzeko askoren aurrean ez zuten lotsarik izango. Baña, euskaldunen artean ere askok, aintzat artu bearrean, bertsolaritza azaletik bederen ezagutzen ez dutelako, iguin dute, ostikoperatu nai lukete. Olakoak, gure idazlearentzat, txoriburu puztuak dira. Beren buruak jakintsu ta aundi egin nai dituzte; baña, orixe, txoriburu puztuak besterik ez dira.

Izan ere, nortzuk dira berok gure bertsolarien lepotik farra egiteko, gero? Entzun berriz Iztuetaren itzak: «Gipuzkoako itz-neurtularien artean badira mutillak, eskolatu gabekoak izan arren, bularrarekin batean edoski edo mamatu zuten beren izkuntza gogoan eta beren bizimoduari dagokion edozer izkaien gañean, arin asko ixilduko lituzketenak jakinduriaren gordeleku guziak gañez egiteraño beteak dauzkatela uste duten orietakoak.» «Zenbat eta zenbat aldiz egondu ez naiz, goragaleak emanik farra egille oien siñuak ikustean?»

Bertsolarien kontrako gaizki esale guztientzat dauka Iztuetak bere erantzun egokia. Gaitzik gabekotzat, euskaldunen atsegingarriztat dauka berak bertsolaritza, eta bai ikasbiderik ederrenak emateko eskola egokienetakotzat ere. Entzun ditzagun bere itzak: «Denbora doatsu aetako gurasoak beren seme-alaba ta ondorengoai lege zuzen bidezkoak erakutsi eta gogoan eukierazteko izkriburik etzutelako asmatua da... Nork ez daki, bada, bertsoetan ederki apaindurik jarten

dan edozein izpide lasterrago ikasi eta luzaroago bizi izaten dala? Egiazko ispillu au begien aurrean dakusgu euskaldunak.»

Ezin gentzake ukatu: bertsolariak zor aunditan daude Iztuetaren alde; zor aunditan gaude euskaldun guztiok, ain azkarki ta kementsu bertsolariaren alde burua atera zuelako. Berari zor dio euskaldun bertsolariak munduaren aurrean arpegia gorarik agertzea. Bera izan du goratzailerik zintzo ta beroena. Eta aipatu ditugun itzetatik atera dezakegunez eta gai au biribiltzeko, esan dezagun gaiñera Iztueta'rentzat bertsolaritza bi modutako dala: alegia, plazan edo agerian buruz buru naiz bi bitara egiten zana, eta bestea, bertso berri-paperetan agertzen dana, gai bat edo gertaeraren bat bertso-gaitzat arturik.

Goazen orain, berau erakusle degula, Pernando Amezketararen bizitzara ta aztertu dezagun bere aldiko bertsolarietaz zer berri zeatzagorik ematen digun. Asi dezagun orrekin Amezketan asi ta Mar-kiñaraño egin bear begun ibillaldia.

Amezketan zan, Iztuetak dionez, aldi artan bertsolarietaz giro-rik eder eta beroena. Beste erri batzuetan ba zan alkate kaxkabelik (olaxe deitzen die berak), bertso-saioak debekatuta kantuz aritzea, eta beragatik irteten dirade andik ainbeste itz-neurtulari, eta ain egokiak.»

Iru aldiz aipatzen ditu Iztuetak bertsolarien saio ta apustuak, eta iruretan Pernando Amezketarra tarteko dala. Lenengo aldiz, Billabonan. Ona nola: «Datorren otsailean izango dira ogeita bi urte, Billabonako plazan jokatu zituztela itz-neurtu edo bersotan bosna onza urre, lendanaz apustua egiñik, Zabala Amezketakoak eta Txabalategi Ernanikoak.» Zeingeiagoka orretarako Iztueta eraman nai izan zuten juez edo erabakitzaille; baña gexorik arkitzen zalako, aren ordez Pernando eraman zuen Zabalak epai-mairako. Juezek etzuten irabazlerik eman; biak berdiñean utzi zituzten, beren erabakia bertsoan ematen zutela. Oso ezagunak dira erabaki orretako bertsoak. Pernandorenak onela zuten azkena:

*Utzi bear ditugu
biak berdin berdin,
Gipuzkoa guziak
ar dezan atsegin.*

Milla ta zortzireungarren urtean Tolosan degu Pernando, Zabala lagun duala, Txabalategi eta Altamira Tolosarrekin bertsoan jokatzeke. Arratsalde osoan jardun omen zuten ixiltzeke kantari, aditzaileak ez-titan zituztela. Etzan irabazlerik izan emen ere. Bertsolariak onak, baña erabakitzaillek etzuten nonbait beren iritzia ariñegi

eman nai. Oraingo juezek itxuraz ariñago jokatzten dute; beingoan eman nai dute epaia; berbertan erabaki nai dute auzia, nor dan nagusi ta nori eman txapela. Garai artan zorrotzago edo estuago zebiltzen.

Beste bein Azpeitin zan bertso-jokoa. «Orain ogeita lau urte, San Sebastian egunarekin eraman zuten Pernando Amezketarra Azpeitiko errira, erri bereko batekin itz neurtuetan jokatzera; baña etzitzaion agertu kontra aritzallerik.»

Ordukoak ditugu Pernandoren bertso auk:

*«Lagunak arturikan,
guzizko tirrian,
nere billa enbillen
bart gau erdian;
erronkak botatuaz
prestuezkerian,
ez dik ongi ematen
nork bere errian;
egunazko argian
euskera garbian
jokatu nai nian,
baña ez nauk ifiñi
iñon premian.»*

Iztuetak emen dionez, ongi errotua zegoan onelako bertsoak, alegia, zortzi edo bederatzi puntukoak botatzeko oitura. Bertso-borroka oiek oso zabaldurik omen zeuden bai Gipuzkoan, eta bai Euskalerrri osoan. Pernandoren bizitzan bertsolari-izen asko ageri dira, bederatzi puntuko bere bertso auk erakusten duten bezela:

*«Ametza omen dabil
aide onarekin
nora nai joango dala
bere Migelekin,
Otobezino jauna
arturik berekin,
Laugarrena daukate
Tolosan arakin.
Ni Zabalarekin,
Martin Amorexkin,
Prantzisko Irabazin
arturik gerekin;
orain gogo duanak
lanari ekin.»*

Amezketan erretore jauna ere bertsolaria zuten. Jakiñak dira bein, Pernando pazko-txartela atera naiez etorri zitzaionean, apaiz urari bota zizkion bertsoak:

*«Esan bear didazu
istante batean,
liburutik txartela
nik atera artean,
nola siñisten dezun
zuk zere artean
daudela iru persona
Jaungoiko batean.»*

Eta Pernandoren erantzuna:

*«Nola siñisten dedan
arrazoiarekin
orain esango diot
sagartxo batekin:
usai ta saborea
kolorearekin,
orra iru jenero
gauza bat batekin.»*

Eta ni nago Amezketako erretora ez ote dan bertso-paperak, bertso berri-izenez, iñoizko lenengoz atera zituena. Iñork ba ote daki noiztik onakoak diran olako paperak? Nik, beintzat, ezagutzen ditut batzuk, Zumalakarregiren azken egunetakoak, Amezketako erretorak jarriak eta titulu au daramate:

*Bertso berriak,
egia garbiak,
idikitzeko begiak,
Amezketako erretore jaunak jarriak.*

Orduko gerrateko gaia darabilte, eta, orraitio, bertso bete ta apaiñetan.

Pernandoren gertaera ta ateraldiak guztiok dakizkizute nik bezin ongi, ain dira ezagunak. Orregaitik ez det gai onetan luzaroago ekingo.

Baña, Pernandoren ingurutik kanpo, beste Euskalerrietan ez ote bertsolaritzaren lorratzik, aztarrenik? Baietz erantzun bear galdera oni. Ez digute paperek ematen beste bertso-guduen edo apostuen be-

rririk, baña bada bertsolaritasunaren aztarna naiko argirik. Ezer go-goangarririk iñon gertatzen bazan, an izango zan bertsolarien bat, gertaera ori jaso ta bertsotan jantzirik noranai zabaltzeko.

Amezqueta-aldea utzi ta goazen, beraz, Euskalerra osoan barna ola-ko bertso edo bertso-aztarnen billa. Eta asi gaiten mugaz andiko euskaldunetatik. Ango bertso-mordo aundia ezaguerazi zigun, esaterako, Julio Urkijo jaunak; guziak dira Pernando jayo ta urrengo urtetik gorakoak. Guztiek dute bertso berrien kutsua. Bertso-mordo oietan zaarrena, Donibaneko euskara jorratzekoa. Donibandarrak ez ziran ixilik gelditu eta bertsoz eman zuten berak ere erantzuna. Bertso-sail aietako batek «Donostiar batzuek emigrazioan» du izena, ta milla zazpireun eta larogeta amabosgarrenekoa da.

Frantziako matxinada edo erreboluzioa sortu zanean, orduko ikus-kizun negargarriek askori eman zieten ango euskaldunen artean bertso-tarako gaia. Mugaz andiko euskaldunek sarritan eman zituzten, bertsotan gudulekuetara joatera bearturik, an ikusi zituzten neke ta naigabeak. Olako bertso jakingarri batzuk eman zizkigun *Mogel*-ek bere *Peru Abarka*-n:

*Gerlara ethorri ginean
gure bizien perilean;
gure agintariak frantses:
Alons, chasseurs, avancez.
Guk euskara erantzutea:
Diabriak eraman bazinzez.
Egunberri eguna,
eguna bai triste;
ez genduan guk beintzat
halakorik uste;
mezaren entzuteko
libertate gabe,
fusilak arturikan
zentinelan gaude.*

Azkuek ere jaso zuen orduko kanta bat, Baigorritarrena, Napoleonen egunetakoa. Gauza jakiña da Frantziako erreboluzio orrek aste ta illak izendatzeko itz berriak asmatu zituena, eta Baigorritarren bertso oietan ongi ageri da orixe.

*Fruitidorren ogeita laugarrenian,
Erroimendiko bortian,
chaussurrek eta grenadierrek*

*proyeta artu günian,
etsaiaren atakatzeko
biharamon goizian.*

Atake orretan frantsesen indarrek euskaldun bat zeukaten agintari, gero Harizpe marexala izango zana.

Haristoi apaiz jakinsuak ere bertso-pilla aundia argitaratu zigun. Frantziako matxinada orren aldikoak dira, matxinadaren kontrakoak, jakina. Batek «Nazioneko besta» darama izentzat. Egun aietan apaizek estualdi gorriak ikusi bear izan zituzten. Gobernuak lege berrien mende jartzeko agindu ta geienek ezezkoan egon. Mende jarri zira-nei «juramentatuak» deitzen zioten. Apaiz eukaldunik gutxi izan zan olakorik. Bat, Diharasarri abizenez. Gure bertsolari batek gogor artu zuen ta eztenkada galantak bota zizkion «artzai ardiñale» zalako urari. Laster damutan sartu ta besteen bide onera itzuli omen zan.

Entzun nolako bertsoak atera zizkion:

*Artzai ardiñalea dantzari,
euskaldunen arrigarri,
Jainkoaren kontra da jarri,
kontra dio jazarri.
Haren kontra du bihurtu
harek eman dohaina,
ardi jatera ohartu
artaldeko artzaina.*

*Utzazu, sinhes nezazu,
hartu duzun lana,
ez baduzu goan nahi
galtxagorrigana,
tiratzera buztana...*

*Iharasarri non da?
Hura ere on da
egiteko arronda
zuekin batean
karrika gainean.
Jauri, Kattalin,
jauri, Bertilin,
dantza orok berdin
galtxagorrirekin.*

Galtxagorrirekin dantzan, ari buztanetik tiraka inpernuan, etzan azken atsegiña, ez, bertsolariak apaiz bide galduko urari opa ziona. Baña ez dezagun uste benetan ari zanik, irriz zebillen. Eta ikusi degenez, Iharasarri orrek azken ona izan zuen.

Orra mugaz aruzko bertsolaritzaren agerbarri puska gutxi batzuk. Igaro gaiten orain mugaz onuzko aldera. Iztuetaren bidez dakigunaz gainera, bai Gipuzkoan ta bai Nafarroan arkitu genezazke orduko bertso-puzkak bederen. Or ditugu Aita Donostiren kantutegian eta Azkuerenean zenbait ale.

Batek azken-juizioa aipatzen du ta ikusi zein urtetakoa dan:

*Milla zortzireun eta
gainera bost urte,
Kristo gizon in zala
libruak diote.
Abertitzera nua
zenbait inorante
azken juiziua
ez dala aparte.*

Makiña bat istillu gorri izan zan egun aietan emen, frantsesak zirala ta ez zirala; eta gure bertsolariak egon ikusten zituzten gertaera negargarri asko beren bertsoan jaso ta gogoratu gabe.

*Españian Herodes eta
Frantzian Bonaparte,
gerla orrek iraun dezake
oriek biak hil arte.
Duenari edek eta
eztuenari galde,
naski izanen gaituk
kornadorik gabe.*

Amorrua biotzean eta arpegia lotsaz gorri, ola daude euskaldunak leku askotan frantsesen mendean. Nolako amorru-lotsaria darion, esaterako, onako kantu oni:

*Nik ez dut iñorentzat
gauza gaitzik esanen.
Pransesaren mendean
umil gaude emen.
Ark Jesus dionean,
guk erantzun amen.*

*Baiñan ez dakit gero
zer etorriko den.*

*Españian sartu da
milloi bat gizona,
billatzen ez da errez
alako persona.*

*Geiena erejea, guzia ladrona;
berrogei milla ezia
bizirik egona.*

Olaxe zerbait, irrigarri naiz negargarri, gertatu ala, gure bertsolarien aotan laster egiten da bertso ta kantagai. Napoleonen sasi-ekontza ere ez zan gelditu bere bertsorik gabe.

*Bonapartek utzi du
bere emaztia,
zarra enpleatuta
artu du gaztia.*

*Gogoak eman dio
mundu nastia:
Katolikuen gauzak
orrela eztia.*

Orrela ziarduten bertsolariak Gipuzko-Naparroa aldean. Artu dezagun orain Bizkai-alderako bidea. Bilbo, Durango ta Markiña agertuko zaizkigu emen bertsolurrik aberatsenak. Entzute aundia izan zuten Durango-aldean ango zidargilleak, «los plateros de Durango», De la Fuente abizenez. J. A. Zamakola, Dimako semeak, eman zuen lenengo aldiz aien berri, eta Iztuetak baiño lenago, bertsolarien berri ere. Arriturik gelditu zan bein bertsolari batzuei entzuten; aien esaera sakon eta bapateko ateraldi zorrotzak txunditurik utzi zuten. Durangoko zidargilleak Zamakola jaiotako auzoan bertan, Indusin, izan ziran 1794'garren urtean. An ezagutu ta entzun omen zituen? Ezta-kigu. Nolanai ere, Euskalerra guztian jairik jai zebiltzala esaten digu, beren soñu, kanta ta bertsoekin. Eta or gelditu dira, errian sarturik, aien bertso ta kanta bat baiño geiago. Esaterako, «Ator, ator, mutil etxera». Azkuen kantutegiak baditu beste biren bat anai aienak.

Bilbon. Urtero agertzen ziran emen gabon-kanta berriak, eta askok bertso berrien usai ta tankera daramate.

Milla zazpireun eta larogeta amalaugarrenean zan. Mugatik aurre-ra zetozten frantsesak, su ta ke, dana aurrean zekartela. Gabon artan onelako gabon-kantak eman zituzten Bilbon:

Baña ez da aztutzeko
frantsesen gerria,
galduba izan eztedin
daukagun fedia.
Beintzat gomutan dauko
Bilboko uriak,
lagunduten deustela
bizkaitar guztiak.
Bakotxak egiten dau
emen al dabena,
jakiñik dala gerra
Jaunak nai dabena.
Fraille ta abadiak
bestekaz batera
jagi dira pozarren
armak artutera.

Ogeitabost urte geroago, Bilboko gabon-kanta berberak ots be-
rriak zabaltzen dituzte; berria da artzen duten bidea, euskaldunen
antziñateko gogo sendoa piztu ta indartu bearrez.

Ahapaldi batzuek esango digute nola:

Nun dogu bizkaitarrak
orduko fedia,
nun geure garbitasun
eta siñistia?
Orain argaldu dira
alako biotzak
gizonak emeturik
dirudie motzak.

Lotsatu biar geunke
gomutaz bakarrik
ez daguala orain
alako gizonik.
Biztu geure fedia,
biotza sendotu,
ta gauza guztietan
Jainkua billatu.

Baña ondo bestera
da orain jazoten,
gau santu andi onek

*dira igaroten
taberna-zokuetan
jokuan sarturik,
eta duaz etxera
ondo mozkorturik.*

*Etxian eldu eta
an bere ez bakerik,
emazte ta umiak
igesi etxerik.
Oraingo gabonetan
au da ikusten dana,
onetara eldu da
gure itxumena...*

*Karidadia dago
guztiz otziturik,
ondamuba ugari,
iñun ez bakerik.
Jesusen eskolia
ondo jaku aztu,
biderik nasaiena
nai dogu jarraitu.
Gure asaba zarrak
biztu al baleitez,
semetzat ezagutu
naiko ez gendukez...*

Bizkaiko andra baten izenpean agertuak dira bertso auk, milla zor-tzireun eta emeretzigarren urtean. Beroien egillea oker aundirik esateko bildurrik gabe izendatu genezake: Bizenta Mogel. Mogeltarren euskera-usaia ba dute, izan ere.

Eta Mogeltarren izenak jarten gaitu gure ibiltaldi onen azkenean: gaur gauden eta biotza zabalik artu gaituen Markiña-aldean, aspaldietako euskal-kabi bero onetan. Emen aurkituko degu Fernando Amezketarraren egunetan Bizkaiko bertso-iturririk garbiena, Mogeltarrak zirala, noski, indar-emaile.

Len ikusi degenez, Mogeltarrak aundienak, *Peru Abarka* eman zigunak, liburu balio aundiko orretan, mugaz andiko bertso berri batzuk sartu ta utzi zizkigun. Baña ezta ori dana; orrez gaiñera, liburu bikain orretan bertsolari bat bizi bizirik erakusten digu, bertso-kantuan diarduala. Peru ta Maisu Juanek elkarrekin beti

bezela ziarduten baten, orra non entzuten duten agure zaar bat kantari. Maisu Juanek ixiltzeko esaten dio Peru'ri bertso aiek obeto entzutearren, laster damutuko bazan ere. Esan ere, ona zer zion agure kantari urak, Maisu Juanen lotsagarri:

*Egun batean gaba eginda
niñoian neure etxera;
larrapastada tzar bat eginda
jo neban beeko bidera.*

*Jaso nenduben danau mankauta
bizkar-azurra ausirik,
miñaren miñaz katu guztia
beinguan niri igarorik.*

*Ekarri eusten egunsentian
Maisu Juan barberuba;
gurago neban neure albuán
euki gaizkin diabruba.*

*Borreru arek birau nenduban
albo bateti bestera.
Egon biar dau onek, ziñuan,
begira gaur bazterrera.*

*Asi zan gero erremientak
bere zizkuti etaten,
otso-biotzaz barre eginda
an egozanai esaten:*

*«Gangrenatzar bat jaioko jako
ondo ezpada sajetan,
ez diralako olango miñak
bedartxuakaz osetan.»*

*Jaurtigi neutsan ostikadiaz
ezarri neban lurrera,
sartu ez zedin Maisu Juane
nire etxian osterá.*

*Maisu borreru juan zanian,
ekarri eusten bertati*

*andratxu on ta errukiorra
auzoko erri bateti.
Azur ta zauri guzti guztiak
ziruban kontuz ikusi;
arpegi sona baketsubagaz
esan eustan onan neuri:
«Txomin gaixua, ordu onian
bota dozu barberuba,
ikusi gura ezpazenduban
lurrian bertan inpernuba.*

*Pasmo-bedarrak biarko dira
eragozteko pasmua;
orma-bedarrak, gozatuteko
banatu jatzun albua.
Egun gitxitan zara ikusiko
indar galantak arturik,
eta zeure azur banatubetan
inkaren apur bagarik.*

*Esan ta egin, aste barruban
urten neban neuk etxeti,
gerri zerdenaz, makilla бага,
jan gosiagaz besteti.*

Eztago esan bearrik ez zutela sortu itz oiek giro on onik Barberuaren barruan, baña egia aitortu zuen: «Nago ikaratuta zelan gizon ordi batek atera leikezan alango bertsuak.» Ederki esana. Baña guk, ez Maisu Juan'i, *Peru Abarka* asmatu zuenari berari ezarri bear diogu esaera ori, eta au dala-ta, beste gabe, Mogel'ek bere lekua merezi du, Zamakola ta Iztueta'rekin batean, gure bertsolaritza aintzat artu ta ezaguerazi dutenen artean. Ala nik uste.

Markiña pelotari-erri da, eta ala zan guk aztertu nai ditugun aldietan ere. Eta gai au erabilli duten bertsorik ere bada, garai aietakorik. Puzkatxo bat besterik ez dizuet aitatu. Astarloarena dala dirudi:

*Aupadatu zenduan,
au zorakeria,
zertara-ta pelotan
Markiña guztia
Aupada ero orrek,*

*Motriko, esazu,
eztitu bada beti
Markiñak auzpaztu?*

Baña zertako nekatu or nonbaiteko zokoren baten galduta dauden bertso-puzkarik biltzen? Markiñan, or etxe onen aurrean ditugu, arrian idatzirik, orduko bertso batzuk, bai, or aurreko plazako iturrian arrizko letraz jarrita. Mogeltarren batenak omen dira. Ona emen:

*Karlos irugarrena
Bizkaiko Jaun dala,
Markiñako uriak
egin nau onela
Ugarteko axpeetan
daukat jatorria,
ubide sakonetan
ekarri ugaria.
Ur au ederra dala
esanik aituak,
alan arindu dira
neke ta kastuak.*

Ez ote da, bada, orduko bertsolari-giroa naiko argi azaldurik gelditu Markiñako iturri orretako bertsoetan? Bertsoetan idatzitako oroitarririk ez da edonon arkitzen.

Goazen aurrera; Cadiz'ko konstituzioa sortu zanez geroko urteetan sartu gaiten. Milla zortzireun eta ogeigarrenean arma-otsak entzun ziran gure mendietan. Andaluzia-aldetik zetorren ekaitza. Agintari-nai herriak Cadiz'ko konstituzio ori jarri nai zuten lege alde guztietan, Euskalerrian ere bai. Gure artean geienek arriskuan ikusi zituzten bai foruak eta bai erlijioa ere. Eta mendi-mutillez bete ziran gure erriak. Izen ori ematen zieten. Iru urte geroago etorri ziran gauzak lenera.

Gure bertsolariak ba zuten zeri eldu ta urte aietako gertakariak jaso gabe ez ziran geldituko. Beren bertsoetan, orratzakin josita bezela, gelditu dira gerrate artako gizon gallenen izen eta ezizen asko: Artzaia, Txapalangarra, Mina, Ansotegi, Longa ta abar. Azkue aundiaren kantutegian irakurri litezke bat baiño geiago.

Beste asko alde bat utzita Markiñan asmatu ziran bertso-sail bi besterik ez dizuet aitatu nai emen, nere asmoa dan bezela, Markiñaldeko mugetatik ez irtetzearren.

Ain zuzen, Fernando Amezketarra il zan urtean, alegia, 1823' gnean, aipatu degun gerratea amaitu zanean, bertso-paper batzuk zabaldu ziran Markiñan ateratako bertso batzuekin, orduko gertaeren berri ematen zutela.

Emen dituzute ahapaldi batzuk:

*Kinta ta miliziak
lantzian ta sarri,
ez deusku euskaldunoi
lan gitxi ezarri.
Agur gure foruak,
agur noblezia,
koldarturik balego
euskaldun jentia.*

*Baña damatxu arro
ta bere laironak,
Napoleontar malmutz
ondo ezagunak:
lenago ler egingo
dozube guztiok
guri ezarri baiño
zuben buztarriok.*

*Euskaldun garbi, sendo,
prestu ta nobliak
gorde gura ditubez
asaben legiak.
Mutillak orretako
armetara dira;
zarrak bere nai leuke,
gaziak balira.*

*Katalan da naparrak,
bai ta arabarrak
ditugu zorionez
beti geuretarrak;
beste probintzietan
gure bando asko
egunik egunera
dozuz ikusiko*

Ai, liberak tristiak,
egin dau zubenak,
laster dozuz ikusi
betiko azkenak!
Laironak lutuz dagoz,
damia gaixorik;
ez dago osatzeko
iñun medikurik.
Prestau egizu laster
bere enterrua,
egin bere daiala
gaur testamentua...
Agur, bada, betiko,
liberak arrua,
agur lairon ta dama
agoniakua.
Cadiztik urten eta
biurtu bertara,
zuen azur ustelak
an obitutera.

Gerratea bein amaitu zanean eta bakea etorri, jai aundiak antolatatu ziran Markiñan. Eta jai orretan, *damatxu* ori, Cadiz'ko konstituzioaren irudia, txorimalo jantzirik, erriko plazaren erdian erre zuten. Ona, jai ori ta jai ortako gorabeera batzuk beste bertso-paper batek nola jaso ta gogoratzen dizkigun:

Nozbait biar genduzan
biotzak askatu,
lengo illuntasunak
pozagaz argitu.
Katigario gogor
iru urtekua,
ez da señale baga
alan istekua.

Neure adiskide on
alkarri eutsiak,
igaro baditugu
garratz ta gaziak,
alkarregaz igaro
daiguzan gozuak;

asi bada iminten
mai eta basuak.

Ez izanik Markiñan
boluntariorik,
Xemein ta Etxebarrin
lege barrikorik,
orregaitik guztiok
gaur umore onik
gagoz ez dogulako
txanbelan usaiñik.

Emen ikusten dogu,
ara, irurok bat;
alan alkartuterik
nun eta zenbat?
Irurogetaz lagun
merindadekuak,
abade eta fraile,
justiziakuak.

Lelengo Te Deuna,
ostean mezia,
soñu egokiakaz
izan da guztia.
San Martingo ermita
ondo entzunian,
maiatzaren ogei ta
zazpigarrenian.

Egun alegria zan
San Martin buruan
milla sortzireun eta
ogei ta iruan.
Kukubak berak bere
aurtengo soñuban
zerbait biarko zana
esan gura euban.

Txupin ta eskopeta
ondo garbituak,
guztiak dira emen
ondo orniduak.

Euren trumoe latzak
gaituz gaur poztuten,
bizkaitarren garaitzak
deuskuz gogoratzen.

Bolandera argi ta
goraberakuak,
izarren irudira
polbora-asmuak
Markiñan egin dira,
ez da au txantxia,
guztioak dakigula
fabrika-etxia...

Jana ta edana
guztia ugari,
baña zenbat al eban
bakotxak igarri;
ez da albo-alboka
iñortxo ikusi;
zelan olgau biar dan
ara nun ikasi...

Damaren irudian
Konstituziñua
ekarri izan dogu
zorigaiztokua.
Orregaitik Payasok
gure damiari
bota eutsan bersua
txito arrigarri:
A, zital galdukua,
euk dona agiri
zelangua al azan
erdi sorgiñ ori...

Txapalangarra bere
mutiltxu samurra,
astuak mutiltzeko
ez txito makurra.
Bein eldu bazan bere,

dogu ezaguna:
traskiladoria zan
bere aita jauna.

Iriarte, Soroa,
biak ze mutillak!
esanik dirianok
giñala serbillak.
Odonell irugarren
gizontxu biguna:
ondo txupau euskuben
mamin eta guna.

Kastañon komandante
Neronen lagunak
erakutsi euskuzan
larriak egunak.
Preso eruan euskun
geure markes jauna,
baita Bikariua
dotore entzuna...

Nun ete dira orain
komandante jaunak,
guztioi egiteko
pozik eskumunak.
Damuz ezin ginaindez
euren billa asi,
beti dabiltzelako
serbillen igesi.

Sabelak estututa,
ezpanak sikurik
dabiltz laironak orain
buru beraturik;
poltsak urritu eta
ez adiskiderik,
iñok artu nai ez-ta
ezetan lotsarik.

Txapalangarrak dauka
orain portunia,

astakuak mutiltzen
ondo jakitia...

(Damatxuari)

Zuk bere biar dozu
atseginaria,
izan zarialako
eurak imiñia.
Zer emongo al jatzun
bazkari ostian
erabagiten dogu
guztien artian.
Ao batezkua da,
au arrigarria:
tatarras erabilli,
azkenian erre,
guztiak egiteko
algara ta barre.


Bertsolariak ezker dakizkigu egun artako gora beera eta beste asko geiago. Olaxe amaitu zan jai ura ta ementxe eman nai diot nik ere azkena nere itzalditxo oni. Barkatu, bertsolari jaunak, geiegitxo luzatu baldin bada eragin dizuedan ibilladia. Ez al zaitzue izan gogai-karri. Barkatu, batez ere, Markiña-aldean geitxoago luzatu izana. Markiñan bertan gauden ezker, ortik barkagarriago naizelakoan nago ni. Ez det, nolana ere, zuen aurrera eztabaidako gauzarik eka-ri, zerbait mardulagorik baizik. Pernando Amezketarraren garaiko bertsolaritzaren aztarna batzuk bildu eta orduko bertso-giroaren be-ri emateko zuen aurrera ekarri nai izan ditut; ez da besterik izan nere asmoa. Izan bedi Pernandoren oroigarri eta noznaiko gure be-rtsolarien omenez.

Orain dala berrogei urte inguru, Pernando il zaneke eungarren urte zala-ta, berau jaiio zan etxean onako bertso auk jarri zituzten:

Pernando,
Amezketako bertsolari,
adimenez argi,
ezpañetan irri,
urkoari zirri,
jendearen jostagarri,
ibilli zan erriz erri.

Orra zuen bidea, zuen egitekoa: ibilli zaitetze, zoazte erriz erri, bein ziri bein irri, eta beti erriaren maisu egifnik, euskalduntasunari eusten, euskalduntasuna erein ta zabaltzen. Zuok zaituztegu gure erri-literaturaren eredu bikain, gure izaeraren ispillurik garbienetako. Zaitu ezazute, landu zuen alor emankor au. Eman da zabaldu, bai, munduan frutua. Zuen aurrekoen bideetatik ekin eta jarrai.

L. AKESOLO.



XENPELAR'EN URTEA

ERRENTERIA'N

1868 - 1968 - XII - 8

Manuel Lekuona

Jaun, andreak:

Urte aundi, aurtengo urtea Erreteriarentzat: Xenpelar bertsolaria aintzatu bear duan urtea, aren eriotzaren eun urte-betetzea dala. Xenpelar aintzatuaz, Erreteria aintzatuko bait-dezute erreteriarrok. Erreteria'ren izena, zuen erriaren izena.

Xenpelar'ek etzuan berin ere ukatu bere erreteriar izatea; bañan ezta geiegi aitortu ere; eta orregatik jendeak, jende askok ez daki Xenpelar aundia erreteriarra zanik. Aurtengo urtean ezaguerazi, jakinerazi bear diezute guztioi, bertsolari sonatu arren jatorri erreteriar ori. Xenpelar'en beraren ohorerako, eta Erreteriaren ohorerako.

* * *

Xenpelar zer zan adierazteko, bertsolaritza zer dan adierazi bear litzake lehenago. Gure artean Xenpelar esatea bertsolaritza esatea bait-da. Guztion ahotan dagon errepiña bait-da arako esaunda hura:

BERTSO BERRIAK,

XENPELAR'EK JARRIAK,

bertso berri guztiak Xenpelar'enak balira bezela. Eta, izan ere, gutxi edo geiago ala bait-da. Xenpelar etzan izango bertsolaritza sortu zuana; bañan, nolana dala, bai, Xenpelar bertsolaritzaren *sinboloa* dala, bertsolaritzaren *epigonoa*, gaur esango litzaken bezela: bertsolaritzaren mendi-mendiaren erpiñean dagola, alegia. Eta orrek asko ta asko esan nai bait-du gaur Euskalerrriaren biotz-biotzean eta errai-erraietan.

Euskaldun bakoitzak biotz-biotzean eta muin-muñetan, bere izaeraren barrunbean, bertsolari bat daramaki.

Ori esan izan du norbaitek. Nik geiago esango nuke. Euskaldun

bakoitzak geren barru-barruan iru euskaldun daramazkigula: pelotaria, dantzaria eta bertsolaria...

* * *

Barru-barruan guztiok zenbait gauza daramazkigu, «amaren sabeletik» olerkariak donostiarrentzako esan zuan bezela:

*Festarik bear bada,
bego Donostiya:
amaren sabeletik
dago ikasiya.*

Nik bertsolariarentzat geiago esango nuke; ez amaren sabeletik, goragotik oraindik, *atavismo* bat bezela, gurasoengandik, antziñako asabaengandik: odolarekin nahasirik, arbasoengandik dakarkigula bertsolaritza: beren bizitza guztian, gizaldiz gizaldi bertsolarien etorri ederra xurga-xurgatuaz bizi izan ziran gure arbasoengandik.

Atavismoa aipatu dizuet arestian. Izan ere, ba'da, atavismoz gure barrunbean gure, *sub-conscientean* ezkuturik daramakigun zenbait gauza. Zeñek erakutsita daki, bestela, illabete gutxiko ume euskaldun batek, amaren edo inudearen besoan, bere besotxoak zabalduta, bere gorputz txikiarekin dantza-imintzioak egiten astea, danbolin-soñua entzun-bezin laister? Gutako zeñek ez dauka gogoan, txikitxikitandik, nolako zarradako gozoa egiten zigun gure belarrietan, pillotaren klaketeko garbiak, erriko pillota-plazako aurre-paretean, pillotariak beren saioak egiten ari izaten ziranean?

Deporte oietan zenbat atavismo dagon, ez bait-da errez esaten. Ikusi al-dezute iñoiz euskaldun ume bat, pelotan egiten duanean, besabez jokatzeko, erdaldunak berenez egin oi-duten bezela? Atavismoa da guzti ori: asabaengandiko herentzi bat. Gauza bera esan bait-liteke, pelotariarentzat bezela, baita dantzaentzat ere... eta bertsolariarentzat.

Pelotaritza, deporte da; dantza, artea; bertsolaritza, irugarrena, artea au ere, arterik ederrenetakoa, espirituzko artea; eta oso euskaldunentzat gogokoa.

Gure aita zanak ziona daukat nik orain gogoan: «Neretzako erriko festarik ederrenak, Meza Nagusia, Pelota-partidua —berak pillota esan oi-zuan— eta Bertsolariak.» Egia benetan: euskaldun orok gure barrunbean iru gauza oiek: pelotaren klaketakoa, danbolin-soñua eta bertsolarien doñu goitiarra dramazkigula, gure belarrietan zear gure animaren ondo-ondoraño sarturik, «amaren sabeletik»? Goragotik oraindik.

Bear bada, Errenteria'ko erriak Xenpelar bati urte beteko jaiak egiteak, arritu egingo ditu batzuren-batzuek. Erri industri-zale aurreratu batek, bertsolari bati olako omen-aldia egitea! Ots-aundiko olerkari bati balitz, oraindik: Lope de Vega, edo Zorrilla, edo Machado, edo Garcia de Lorca'ren mallako bati... Bañan, idazten oxta-oxta zekian bertsolari bati...

Ipiñi ditzagun gauzak bere lekuan.

Errenteria'ko erriak, gaur industri-erri dalarik, ba'daki —ez dauka ahazturik, ezta ahaztutzeko ere— nun daukan bere jatorria: baserrian, bordaetan, artzantzako saletxeetan daukala, alegia. Jatorri ori ez bait-da mendratzeko, ez ahazteko ere; gutxiago lotsatzeko. Baserrietatik behera jatsitako mutillak izan dira, gure errietako «enpresarik» sendoenak gero sortu ta indartu izan dituztenak. Baserritar jaio izanak ez dio eragotzi gizon gipuzkoarrari, industriarik bikañenak sortzea; lagundu baizik.

Xenpelar bera ere baserritarra zan, borda-itxurako baserri txiki batean jaioa, eta gero langille Fabrika Aundian sartua, eta ango sala bateko «enkargatu» izatera iritxia; ez baitzion arri bere jaiotzeko baserritartasunak kalterik egin, enkargatu izatera iristeko bidean.

Errenteriarrek orregatik maite dute baserria: baserria bere kulturarekin; eta kultura oietan bat, orixe da: bertsolaritzaz... Errenterriak maite ditu bertsolariak, bere seaska duan baserria maite duan bezelaxe.

* * *

Eta zer erantzun bear diegu orain, «Zorrillari-edo bai, bañan bertsolari bati olako omenaldiak...» diotenai?

Erantzun bat bakarrik: Bertsolariak ez dirala iñoiz ere olerkari-kin nahastu bear, konparatu bear. Konparazio orrek ez duala zentzurik, gaur esan oi-dan bezela.

Bi arte-estadio oso berdinezak bait-dira, bertsolaria ta olerkaria bizi diran estadioak; ez, goragoko edo behegoko mallak bakarrik, bestelako estadioak baizik. Olerkaria artista «letradua» da; bertsolaria letra-gabea, ahozkoa, aho utsezkoa. Bi mallatan baño areago esan bear litzake, bi neurritan, bi girotan bizi dirala. Ondotxo explikatuko zaizkitzue gai oiek, urtearen buruan emango zaizkitzuen itzaldietan. Ez diteke bata bestearekin konpara, diot, zein gorago ta zein behegoko dan erabakitzeko. Bertsolari bat konpara liteke beste bertsolari batekin; bañan ez olerkari batekin. Bi girotan bizi dira. Ori, eskuzko pelotarietaz izketan ari gerala, Abrego aipatzea bezela litzake. Eskuzko jokua eta xextozko jokua, bi joku-modalidade bait-dira... Bertsolaria ta olerkaria bezela.

Orregatik, bertsolariak buruz ari gerala, ez liteke aipatu, ez Zorrilla'rik, ez Machado'rik. Bertsolariak eta olerkariak, bakoitzak bere mundua du. Bakoitzaren mundu ortan, bai, esan diteke, zein dan gorenena, zein dan onena, zein dan aundiarena... eta guretzat, bertsolariaren munduan ta giroan, Xenpelar da aundiarena, eta orregatik opa diogu, eskubide ta zuzen-bide guztiaz, urte ontan egiten diogun omenaldi eder au.

Zer geiago nai dezute esan dezagun?

Fabrika Aundian langille, eule, izan zala esan dizuet. Guztiok dakizute zer Fabrika Aundi dan au. Beko Kalearen eta Zumardiaren artean, kamio-baztarrean dagon eun-fabrika, alegia. Ori guztiok dakizute.

Bañan, bear bada, ez dezute jakingo, eundegi orren asiera Oyartzun'en izan zala. Oyartzun'en, Ugaldetxe deritzan barriuan, ibai-bazterrean, gaur Matione deritzan etxean. Antxe sortu zan, orain Errenteria'n dezuten Fabrika Aundia.

—Oyartzun'dik Errenteria'ra Fabrika ekartzea zergatik izan zan?

—Norteko burni-bidea, Oyartzun'dik ez baño, Errenterian barrena zetorrelako. Ba dirudi, Nortereantzat lehenago asmatu zan bidea, Oyartzun'en barrena asmatu zala; bañan orduko Oyartzun'go Nagusi-jendeak, trena andik igarotzeko lurrak garestitxo eskeiñi zituztelakoedo, Norteko Konpañiak Gaintxurizketa'n barrena egitea erabaki zuan. Ala da esana.

Dana dala, burni-bidea Gaintxurizketa'tik egin zan, eta ez Ugaldetxetik. Eta orregatik Fabrika Aundia ere etzan Oyartzun'en gelditu; Errenteria'ra etorri zan.

—Noiz ziran gauza auek? Nolanai ere, ez gure Xenpelar'en egunetatik urruti. Ba'liteke Xenpelar'ek Ugaldetxe'ko Euntegia ezagutu izana, berak an lanik egin ez bazuan ere. Aditzea izango zuan, eta ezagutu ere bai, gaztetxo zala, bear bada, Egurrola baserrian morroi-zegola.

* * *

Eta Oyartzun aipatu degun ezkeron, esan dezagun zerbait geiago, Xenpelar'ek Oyartzun'i zion iritzi-on, lege-on eta sinpatiaz.

Errenteria'ren eta Oyartzun'en artean, esan diteke —beti-beti ez bada ere, luzaroetan beñik-bein bai— bere aserretxuak izan dirala.

Erdo-Aroan, Pasaya'ko Portua zala-ta, Donostia'rekin izan oi-ziran demandaetan, errenteriarak eta oyartzuarrak ederki alkar-artzen zuten: bi-bion etsaiaren aurka, oso bat-etortzen ziran.

Bañan, XIV gizaldian, Gaztela'ko Errege batek, Errenteria «erri

bil du» egin, eta Oyartzun Errenteriaren mende jarri nai izan zuan artan, Oyartzun Errenteriarentzat oso aserre azaldu zan.

Bañan XVI gizaldian, Errege Katolikuen esku diplomatikoak itzali-edo zuan aserre ura.

Gero ta gero ere, ordea, aserre zerbait —ika-mika zerbait— izan bide zan, XIX gizaldian batez ere... Orain betiko adiskide geran ezkeru, esan dezagun dana: errenteriarrok Oyartzun'entzat burloso xamarrak izanak zerate: erri atzeratua izaki, noski, Oyartzun, XIX gizaldiko Errenteria'ren alde...

Bañan ori gora-beera, bai omen-zan-beti alako puntutxo bat, Errenteriak Oyartzun'i aitormen bat egin ziona —aitorme praktiko bat— nola esango degu?... andregai-kontua, alegia. Errenteriar askok eta askok, andrea artu bear zutenean, Oyartzun'a jotzen emazte-billa... Aitorme ori egiten bait du gure Xenpelar'ek ere bere kanta batean: «Oyartzun'go neskatxai» ain apainki ta galante opa zien kanta ezagun-ezagun artan:

*Neskatxa eder, balientiak
gustatzen bazahizkitzu
etorri zaitez Oyartzun'era,
emen ikusiko-tuzu.
Kale eta baserri,
kolore zuri-gorri,
ederra pranko badezu,
San Esteban'ez erromerian,
ala desio-badezu.*

Olakoxe aitormen jatorra egin zion Xenpelar aundiak Oyartzun'i, Oyartzun'go alabaen izenean.

* * *

Eta ontan bukatu bear genduke nere itzaldi nekagarri au. Alde batetik luze dijoalako; eta, bestetik, aurtengo urte guztian itzaldiak egin bear dizkitzutenai gaia lardaskatzea ondo ez dagolako; geroko ere zerbait utzi bear dalako. Nolanai-dala, ez ditut emen ukitu nai zenbait gai gozo asko: «Xenpelar ta humorismoa» adibidez; eta Xenpelar'en gizatasuna», «Xenpelar'en euskalduntasuna», «Xenpelar'en social-irritziak», «Xenpelar eta gerra»...

Nik, orratik, gai bat bederenik ukitu nai nuke emen, orain arteko ariari jarraituaz: Xenpelar bertsolari-eskola baten sortzalle izan zala, alegia. Bertsolaritza etzuan berak sortu; bañan bertsolaritzaren berak —ustekabe, bear bada— eskola bat sortu zuan: Gipuzkoa'ko

bertsolari-eskola. Eskola onek bai bait ditu bere ezagunak, bere legeak, bertsolaritzaren *teknikari* buruz. Argi dezagun pixka bat gai au. Eta orrekin bukatuko det nik nere saioa.

* * *

Ez det azaleko gauzatxo bat besterik esango.

—Zer ezagun du Xenpelar'en eskola?

—Puntuaren txukuntasuna, *rimaren* argia, xeetasuna, detallea: punturik zallenetan ere —bederatzi puntukoetan ere— Xenpelar beti garbi, txukun, beti puntu eder.

Xenpelar'ek ez du alkartuko bein ere *-ean* puntu bat, *-an* uts batekin; *-ean* beti *-ean*'ekin. Xenpelar'entzat puntua ez da osatzen azkeneko silabarekin, azken-aurrekotik etorri bear du, batik-bat puntu errexetan; eta orrek ematen dio puntuari, *rimari* alako aberastasun bat; geiago oraindik, azkeneko silabaren kontsonantea erantsiko dio puntuari, puntua errezetakoa danean. Adibidez, «Betroyarenekoan» bezela.

*Gure betroyak ez du auko loalia,
egunero nai-ezik ogi-alia.*

*Alare ezin jaso lepoko joalia,
burua makurtuta zerbaiten galdia...*

*Orren zaldalia
ez da debaldia:
gauz onen zalia,
bizkotxo jalia:*

Malezi asko duen arrantzalia.

Ikusten dezuten bezela, Xenpelar'en puntua, bertso ontan ez da *-ia -ia* soillik, *-lia, -lia* baizik. Puntu erreza danean ori. Ikustagun orain, malla ortako beste batean nola aberasten duan olako puntu errez bat. Ikus «Iparragirrena» deritzan ezagun-ezagun ura:

*Iparragire abilla dela
askori diyot aditzen;
eskola ona eta musika...
ori orrekin serbitzen.*

*Ni ez nauzu ibiltzen
kantuz dirua biltzen
komeriante-moduan;
debalde pesta preparatzen det
gogua dedan orduan.*

Ikusten dezuten bezela, emen puntua ez da *-tzen, -tzen* bakarrik; *-itzen -itzen* baizik: *aditzen, serbitzen, biltzen, ibiltzen; moduan, orduan.*

Bañan ikustagun orain, nola baliatzen dan puntu zalletan. Betro-yaren beste ezagun bat ikusiko degu: *aren puntua, -otzak, -otzak.*

Begi bat itsua du, adar biyak motzak:

krisellua dirudi aren kokotzak.

Burlaka ari zaizka Elizatik ontzak;

sano dauzka ortzak,

agiñak zorrotzak,

trixtura biyotzak,

dantzan dabil otzak...

Ez diyo onik egin leku arrotzak.

Orixe da, Xenpelar'en eskolaren ezaugarri berezia bertsozaritzan: Xenpelar'en edo Gipuzkoa'ko eskolaren ezaugarria.

Bidasoaz beste aldekoak, Etxaun batek, adibidez, ez du olako xeetasunik bere bertsoetan. Elizanburu'k bai; Elizanburu gai ontan gure Xenpelar'en ari berekoa da. Ikus aren «Nere etxea» adibidez:

Ikusten duzu goizean,

eguna hasten denean,

menditto baten gainean

etxe ttipitto aintzin-xuri bat

bi aitz andiren artean,

iturriño bat aldean,

txakur xuri bat atean?

An bizi nuzu pakean.

Bañan Etxaun bat ez da ain txukuna gai ontan. Begira bere «Bortian Ahuzkiren» lenengo bertsoa:

Bortian Ahuzki,

ur hunak osoki;

neskatilla ederrak

han dira ageri;

irur ba dirade

oi! bena xarmantik!

Baxenabar orotan

ez beita parerik.

Ahuzki, osoki, ageri; xarmantik, parerik... Ez diot nik, gaizki

daudenik; betetzen dute beren lege. Bañan Xenpelar'ek etzuala ola egingo.

Eta bukatzeko, ikustagun orain gai ontan, puntu txukun ta aberatsa duan beste bertso bat. Beroiarenekoa au ere. Puntua, *-arrak, -arrak.*

*Burruka ari dala, juan zaizka adarrak,
ezin sujetaturik bere indarrak.
Talentu onak dauzka gure betroi xarrak:
lurrera botatzen du euli baten kargak.*

*Jendiaren parrak
ez dirade txarrak:
ganadu elbarrak
juntura igarrak...*

Burruntziya diruri aren bizkarrak.

Ainbeste kanta eder kantatu zituana, 34 urterekin il zan. Gazte-gazterik. Zenbat geiago ta ederragorik ez ote-zuan kantatuko, beste ainbeste urte bizi izan balitz!

Bañan askotan gertatzen da ori. Igerleak, profetak, gazterik il-tzea, alegia. Urtez gazterik, bañan zentzuz zaharrik. Eta benetako profeta danean, an uzten bait-du ark bere oin-atza, betiko oin-arri bezela. Eta orixe gertatu da Xenpelar'ekin. Xenpelar bertsolaritzaren mendian, erpin-erpiñean dago, *sinbolo* ta *epigono* bezela. Bere aintzarako; bañan baita Erreneria'ren aintzarako ere.

Asierako itzak berak darabilzkit bukatzean: Xenpelar'en ohorerako eta Erreneria'ren ohorerako asten degula 1968'gn. urteko Abendua'ren 8'tik, 1969'gneko Abendua'ren 8'ra arteko urte berezi-berezi aur.



IRRADAKOA, PATXI ARSUAGA

“TXANGO”REN INGURUAN

Gazte-gaztetandikan entzunik negon Bilbo'n, iñoiz, tolosar «danbolintero» famatu bat bizi izan zala. Zein?, noiz?, nola?... aspaldiko gauza zala-ta ez zuan nere gogo kilikatu; ta ez da ere nere oroime-nean leku aundirik artu. Geroztik, ordea, berri geiago jakiten joan nintzaizun. Irakurri ere bai, ez dakit nun, «danbolintero» hura, Arsuaga familiakoa zala. Ain zuzen, Tolosa'ko «arsuagatarrak» ezagun ez ezik, txikintandik eskola-lagun, jolas-leku ta ikastaroan bet adizkide izan nituan. Areago oraindik, musikazale bezela, batez ere, beti elkarrekin ibilliak gaituzu. Arsuaga familia musikari sendia bait da.

Gaur egun ere, «arsuagatarrak ditugu Tolosa'n Santa Mari'ko Elizaren «orkestari» eusten diotenak. Juan Arsuaga, biolin jotzaille maisua, «arrabitari» bikaña, Erriko Musika Akademiaren irakasle da.

Eta bere seme, anai, illoba ta ikaslei eskerrak Tolosa'n badugu jai aundietarako «Kuerda-orkesta» polit bat. Ez da gutxi! Onengatik bakarrik Juan Arsuaga ta senidei omen egin behar litzaieke. Benetan merezi dute.

* * *

Begiko dudan Juanito Arsuaga adiskideari galdeturik jakin izan ditut bere «birosaba» Franzisko Maria Arsuaga Letemendia izan zaren zenbait berri, etxeoengandik datozenak.

Egia aitortzeko, ez nuan nik gai hau zulatzeko asmorik. Eta gutxiago illunpetik berri billa ibiltzeko betarik.

Ala beharrak bestela aginduta emen natorkizute nola gertatu dan esatera.

Udara ontan Bilbo'n bizi dan tolosar adiskide batek, pozaren pozez ango 1969'jaien Programa eskuratu zidan. Ikusgarria ziñez. Azalean. Losada pintorearen iruditxo margoduna dakar. Bertan, besteak beste, txistulari bi nabarmentzen dira apain jantzirik: kasaka gorri, prakak urdin, bi-adardun ginbailla buruan. Txistulari nagusiak matrail-bizar zuriduna bera, eskutan makil eta txistu daramazki eta besotik zintzilika danboliña. Au Patxi Arsuaga «Txango» dugu, aldamenean «Sorgin» danborra dualarik. Korpus egun batez Begoñako Elizaren emparantzan ote dauden nago.

Nere adiskide horrek onela zion: irakur zazu Programa barruan Manuel Bazas Bilbo'ko artxibo arduradunak idazten duana.

Bai gizona! gogoz gañera, erantzun nion. Tolosar zaharrek Patxi Arsuaga nor izan zan ba-dakite baiñan zer-nola ta xehetasunak bildurik artikulo bat idatziko dut oraingo jendeek «Txango» nolako txistulari-danbolintero trebea ta ospetsua izan zan, lehengoaz gain jakin dezaten.

Asmo honek, nere gogoaz jabeturik lana osatzeko kemena eman zidan. Goazen bada arira.

* * *

Franzisko Arsuaga Letemendia zanari bilbotarrok izengoitiz «Txango» deitu zioten. *Arzuaga* zetakin idatzia ikusi dut baiñan Tolosa'ko agirietan beti esekin, Arsuaga da. «Txango» ala txangu erren eta mainguei esan oi zaie. Karlisten lehenengo gerratean anka batean sartutako balak, dirudienez, erren-egite arin bat utzi ziolako.

Franzisko mutilla, guk «Patxi» deituko duguna 1800 urteko Dagonillaren (Abustuaren) 15'n jaio ta bataiatu zuten. Gurasoak Jose Arsuaga ta Rafaela Letemendia ziran; eta pontean jaso zutenak berriaz Joaquin Arribillaga eta Francisca Lerin. Amabirgiña egunean jaio zalako, noski, Franzisko izenari Maria erantsi zioten.

Aita, ofizioz sastre zan eta semeak ere gerora joskintzan ikasi zuan. Gure denbora arte Arsuagatarrak ogibide ortan jardun izan dira ta ez da arritzekoa Patxi ere mutiko zala artan leiatzea.

Baiñan lagintza ortaz gañera, Arsuagatarrak musikazale yayoak izan ditugu: lehen eta orain. Ni neuk ezagutu izan ditudan, Angel, Zezilio, D. Bizente apaiza, Zarautz'eko bikario izana, eta gaur bizi diran semeen-seme ta billobak, guziok Musikarako doai bereziaz jantzirik daude.

Beraz, ez da iñor aho-zabalik geldituko Patxi Arsuaga «Txanko»k Bilbo'n nolako otsaundi ta sona atera zuan entzutean.

Bilbo'n baño lehen, jakiña, Tolosa'ko plaza ta kaleetan bere txistu ta damboliñaz ibilliko zan festa ta jai guzietan jaioterria alaituaz. Urte goibelak, orduan eta gaur maiz izan oi dira, ordea.

Ala gertatu zan 1823 garren urte artan frantzesok Fernando VII Errege alkian berriz altxatzera eldu ziralarik. Tolosa'n agintariak etsai ziran, alegia, liberal ala «beltzen» alderdikoak. Batik bat D. Manuel Jose Zabala «Villafuertes»'ko konde jauna, Tolosa'n eta Gipuzkoa osoan ere agintari Buruzagi zegoana. Onek prantzesak etorritakoan erritik igesi joan behar izan zuan. Eta arekin batera bere menpeko ta erriko txistulari zan Patxi Arasuga gazteak. Konstituzioaren aldeko boluntario bezela sarturik Galizia'runtz abitu ziran. Nagusiek beren bidean jarraitu zuten, baiña gure Patxi aldi batean Santander'en geldituaz, Tolosa'ra itzuli zan bein Fernando VII garrena España guziaz jabetu zanean.

Utzi itzagun orduko politika gora beherak musika giroa nola zegoan agertzeko. Jakingarri diran zertxo batzuek azaldu nai nituzke-ta.

Manuel Jose Zabala, Villafuertes'eko Konkeak, «Aranburu» jauregian bizi zanak bi seme zituan: Ignazio ta Ladislao; biok Patxi Arsuagaren adiñekoak. Aitak bezela, Inaxio'k piano jotzen zuan eta Ladis'ek bioliña. Txistua jende arruntarentzat gelditzen zan. Baiñan, naiz Zabalatarrak aundikiak izan eta Patxi erritar xehetakoa, lagun eta kideko izan ziran musikak eman oi duan elkartasunaz.

Fernando VII berrito errege jarritakoan «*San Luis'en eun milla semeen*» indarrez, zabalatar aita-semeak Paris'era joan ziran igesi, eta Sorbona'ko Unibersidadearen ikasle egin ziran. Konde jauna Hunboldt jakintsuaren adiskide zan eta Jeolojia ta antzeko Zienzia berrien zalea.

Orratiokan, ez zuten Musika baztertu ta asko entzunez gañera, musika paperak aukeran erosi zituzten eta bi biolin eta biolontxelo bat ere bai, gero etxera ekarri zituztenak. Paperok, geienak galduak izango dira, baiñan «Aranburu» jauregiko ganbaran daude oraindik biolin bat eta biolontxelo. Beste bioliña nere eskutan dago, goimallako instrumentua, gañera, J. B. Vuillaume, Paris'eko «luthier» ospetsuak 1825 urtean egiña. 27 garren zenbakiaz izenpetua dago. Marka onen balioa adierazteko, aski da esatea, Sarasate'k orrelako batean jotzen zuala, gero Stradivarius bi erosi zituan arte. Oso gogoko zuala Vuillaumen bioliña ba-dakigu. Gaur Iruñe'ko Konserbatorio'ko Museoa'n gorderik daukate ikusi nai dutentzat.

* * *

Nungoa ote zuan Patxi Arsuaga'k bere txistu arrunta eta danboliña?

Tolosa zaharreko zurginien batek egiña, nunbait. Auek eskuan arturik gure gaztea Bilbo'runtz abitu zan 1825 garren urtean...

Ez zan egun baterako joan, ez! Bizkai'ko erri nagusi dan Bilbo'ra.

Emen 56 urtetan bizitu ondoren, bertan il bait zan 1881 garrenean. Ain aldi luzean nola jardun zan arakatzek emango dizkit lanak.

Iñon baiña geiago Bilbo'n egin zala gizon da egia. Eta «Txango» izengoitiz bete zuala ango Historia txikiaren txokorik maitagarriena: txistu-danboliñaren doñuaz bete... Batzuek Rogaziano illobari «*Sor-gin*» izengoitia eman oi diote. Uriarte'k dio berriz ezizen hori Pablo Gorriaran atabalerona izan zala.

Patxi Arsuaga bere 25 urtetan mutil ederra zala esan beharra dago. Morrosko bikaiña gorputz eta arpegiz. Onela agertzen da ezagutzen diran idurietatik. Arpegiz zuri-eder tolosar bati dagokionez; illez orixka, matrail-bizar eta guzti. Egoki ta lirain, naiz zertxobait «txangu».

Onek bere ajola ba-du erri-gizon batek kalez-kale, jai aundi ta prozesiotan bere burua agertu behar duanean.

Pintore ta irudigilleak askotan atera zuten Patxi'ren itxura. Orduan Bilbo'n pintore bat ba zan, berez tolosarra: Antonio Mari Lekuona, ta ez duda mudarik onek Patxi danbolinteroa modelotzat askotan artu izango zuala. Anselmo Ginea'k ere Txango'ren kuadro ezagun bat utzi digu. Azkenik, gorago aitaturiko Losada pintoreak Arsuaga osaba-illobak kuadro eder batean apain jantzirik, ez azutzeko eran azaldu dizkigu. Urte gutxi barru Bilbo'ko jendeak ondtxo ezagutu zuten «Txango» danbolinteroa. Bai goikoak eta bai behekoak; jaun-andre aundi ta jende xehak. Aditzera dudanez, emakumezkoen artean, ots! neskatil eta damatxoei oso begiko omen zitzaien Patxi Esamesak diotenez, batzuen batzuek atzetik zebilkien. Baiñan gure mutillak par egiñez onela omen zien: «Ez daukat guzietan ezkontzerik, eta batekin bakarrik ezkontzekotan obe dut gel-ditu mutilzahar.»

Eta bere ortan jarraitu zuala esan diteke, naiz norbaitek esan ba du ezkondu ta alargundu zala. Tolosa'ko aideak uste dutenez Patxi ez zan ezkondu, ta ez erren zalako. Bai zera! Alare gure «Txango»'k andregai aukera izango zukean.

Unamuno'k bere «*Recuerdos de Niñez y Mocedad*» liburuan aitatzen du bere begiz ikusia, prozesioan aurrean zijoala: «Por delante iba «Chistu» de casaca roja, tocando su pito y su tamboril, y detrás la procesión.» «*Txango*» esan nai izango zuan bestela «chistu ta pito» bat bait dira. Damurik ez dio beste ezer eta arritzekoa da.

Unamuno bizi zan etxe berean; tellatupeko ganbaran, Lekuonak pintore lan-toki ta eskola bait zuan eta bein baño geiagotan Unamuno. Migeltxo mutillak «Txango» ordurako, txistulari zaharra (1875-81) ikusiko zuala, nai ta ez.

Garai artako gizonik jakintsu ta ikasienak beren paper, idazlan eta liburuetan «Txango» goratu dute.

Emiliano Arriaga'k berri ugarietak zabaldu zituan eta iturri or-tatik edan dute geroztik etorri diran idazlariek. Ark aitatzen dizkigu «Txango»'k «Korpus Zortziurrenean» ematen zituan joaldi biurriak: zortziko, minuetto, sonatina ta gañerako guziak (1). Labairu Jaime historiagillearen iritziz: «el más famoso de los chistularis conocidos» izan zan.

Uriarte apaizak hori bera aitortzen du kaleetatik zijoala bai dantzarako eta bai konzierto bezela eman oi zituan joaldiaz. Bilbotar gazteak atzetik ziojoazkien biribilketa ta kalejiretan.

«Txango» ez zan ari izan Bilbo'n bakarrik. Bizkai'ko erri asko-tatik egin oi zien. Tolosa'ko San Juan Festetara joatez gutxitan utsegin zuan ulertu erraz danez. Araba'ko Aramayo'n 1841 urtean izan zala ere ba-dakigu. Ta 1848 garren urtean Madrid'en Isabel II erre-giñaren aurrean, iñoren lotsik gabe txistu ta danboliña jotzea zala adierazten ba dizugute, aski da asmatzeko zefien gora igo zan «Txango»'ren entzutea.

Garai artan nolako itxura zuan gure gizonak Anselmo Ginea'k egin zion irudiak azaltzen digu. Neretzat, ez ba dut oker ikusten, oraingo Arsuaga tolosarrak, aren antza aundia dute aurpegi ta begi-tartean. Eta arrigarria da tankera berdintsu batek nola diraun fami-lia batean, urteen buruan, belaunez belaun.

«Txango»'k bere illoba Rogaziano zeukan laguntzailletzat. Bilbo'ko Udaletxeari ala eskatu zion eta onen baimena izan ta gero Tolosa'tik etorri arazi zuan. Osaba baño gutxiago ez izateagatik illobari ere izengoitia jarri zioten: «Sorgin» Auskalo zergatik! Dakiguna da, Rogaziano Arsuaga, osaba ildakoan lehenengo maillara igo zala ta urte askotan Bilbo'ko txistulari nagusi izan zala. Familia eder eta ugaria azi ta ezi zuala ere garbi dago. Aren seme-alabak eta ondorengoan gaur ere oso sartu ta ezagunak dira Bilbo'ko gizartean. Aztarren sendoa utzi dute. Arsuaga jatorri ta deiturako beste tolo-sar bat Aita Luis Arsuaga eskolapioa, bertako ikastetxeko irakasle dago aspaldidanik eta beti oso gora altxatzen familiaren izena.

Antziñako «juglar» erderazko izena Menendez-Pidal'ek adieraz-ten duanez, jendea musika, bertso ta kantu bidez jolas arazten zua-

(1) Batik bat «Su-dantza» berak asmatua.

nari esaten zitzaion. Errege ta aundiekiek onelako oleskariak mantentzen zituzten. Nafarroa'ko ta beste korteetan euskaldun izen asko arkitzen dira tartean: Antxo-Etxaleku, Oyon, Gillen Ursua, abar eta abar, Aita Donostia'ren lanetan ere irakur ditezkenak.

Lehengo «juglar» danbolinteroak, gaur «Txistulari» ditugu. Izen bi baiñan izaera bat. Erri txikietako «danbolin» apaletatik oraingo Txistulari maisuetar alde aundia dago. Gure «txistulariok» indar aundia artu dute Euskal-Erria guzian eta baita ere mundu zabalean.

Txistu-jotzaille ikasi ta trebeak sortu zaizkigu Europa ta Ameriketako uri nagusi guzietan txalo ta diru ugari irabazten dutenak.

Euskal-Erri'ko txistulariaiek elkartasun bat egiña dute ta bertan eunka txistulari zahar eta gazte bilduta daudelarik. «Txistulari» deitutako errebista ateratzen dute; eta aldizkari eder onek txistu-musika berria argitaratu ta zabaltzen du.

Gure Patxi Arsuaga «Txango» gorapaitu ta gero beste izen asko ipiñi beharko nituke emen. Alare, ospetsuenak aitatu naiagatik, agian onenak isilpean geldiko lirake. Barka bezaidate!

Orixe'ren «Euskaldunak» poeman azaltzen da Zubieta'ko «*Pontxo*»'tik asita, Ansorena goi mallako maisuareño... zenbat eta zenbat txistu-danbolin prestu ez dira entzun gure errixka ta uri aundietan?...

Nik, bidezko danez, Tolosa inguruan ezagutu izan ditudanak aitatu ditut. Ara nola: Bedayo'ko Arrupe ta Sarasola; Alegi'ko Insausti, Elgoibar'ko Ansolatarrak; ete nere erriko: Nikolas Erauskin, Juan Jose Zestona, Blas Alberdi, Leandro Zabala, Migel Lezea...

Eta txapeldun izan ziran: Lizasotarrak, Polentzi Gezala.

Ahaztu gabe Aita Hilario Estella prailea, txistularien kapellaua bere benkazioz danboliñetik deabrua uxatu duana.

Guziok Patxi Arsuaga «Txango» izan zanaren jarraitzalle. Ez al dira beñere jotzez geldituko. Txistua mututu dedinean, kaxo motel! gureak egin du! Gizona illargira eldu dan 1969 garren urte ontan beintzat, bizi gara ondiño! eta aurrera beti! Egin zagun irradako «Txango»'ren inguruan. Asi gaitezen azari dantzan. Eta ekarri itzagan dantza-sokara: Villafuertes'ko Kondea ta bi semeak; Lekuona, Losada ta Ginea pintoreak; Arriaga, Labayru, Unamuno ta Bazas; Aita Donostia, Hilario Ta Uriarte elizgizonak. Guziok Patxi Arsuaga'ren inguruan agintari aureskua dantzatuko dugu euskal txistu ta txistularien omenez.

Ez dedilla iñoiz gerta Campion'en: «ERRAONDO'ko AZKEN DANBOLINTEROARENA!»

Antonio M.^a LABAYEN.

Tolosa, 1969.

TXORI GALDUAK

ZOAZE...

Zoaze euskal-egoz apainduta geure eguratsez, Indi ezkututsuan sortutako txori galduok, eta zeuen eresi bigunekaz laztandu egizuez, kadenkiro, asmu oneko euskaldunan gogo minberatuak, egunsentiko argi barriak mendi-ertzak agurtu dagikezanean eta eguzkiak bere urrea mendi-ostera ustu, ta sartaldeko ortzia gorri-ubel margosturik arrats-berako bakea ixiltasun sakonenean murgildu dagikenean.

Zeuen egaztada garden eta txorrotxio samurren ikutuaz durundirik gozatsuenak erausi daroatsazuez itsasoaren sakon itzelari, basoen bake garbiari, ibar-zelaien pozkida ezeari, bide-ertzetako pitxi ameslarien edertasunari, mendien ixillaren bakartada gogokoiari, bideen ezkutu luzeari ta edoi amesgarrien illun eta dizdizereari: Ba-da, Izadi gutzia eresi ezkutuenakaz ots-alkartasun osoan jarririk munduz bestaldeko zelai gardenetara jaso daroazuez giza-gogoak, gaiaren astunpetik aterata, pentzamentu ta amesik gozoenetan egiazko bakea arnasa artuten.

Egin egaz ba, nekatzeke, geure artean bere, gogo olerkoiien billa, txori kutunok, laiñorik-igetargi, zugatzik-larre, basorik-mendi, itsasorik-legor, lurrerik-ortzi, zeuen kanta kaden eta egaztada arrotzez geure biotzak maitekiro zirkinduez, urrunetatik agertuarren etzeko zaiuegu Euskalerrri'on bere ba-ta.

EUSKERAZLEAK.

Etorri neure leiora, abestu, ta alde egiten dabe egaz, udako txori galduak.

Eta abesten ezta kien udazkeneko orri oriak, egaztadak egin eta jausi egin oi dira antzika.

Lurbirako ibiltarituok, izaki txikitxuen talde ori, neure itzetan itxi egizuez zeuen oiñatzak!

Munduak kendu egin oi dau amaiez kortasunaren zomorroa bera maitetuten dakian arentzat. Abestia baizen txiki egiten da, betikotasunaren muna lako.

Lurraren malkoak azalean euki oi dabe beti euren irribarrea.

Loratu bateganako maitetasunarren erretan dago mairtu itzela; ta ezetz dirautso buruaz loratuak, eta barre egin, eta alde dagi egaz.

Zeure abestiaren eta zeure igesketearen eske daukazu ondarra bidean, ur dantzari orrek. Eztozuz lepaldu gura ala?

Gabean euriak lez jazarten dauz zure arpegi guterratsuak nire amesak.

Ezta kit zelako atz ikustezkorrak ateraten daben zambuladen musikea, aizetxu nagia lez, nire biotzerik.

Entzun, neure biotz orrek, munduaren zizpuruak, zeu maitetu guraz dagiz ba-ta!

Gabeko gerizetea baizen aundia da bizitzearen ezkutua. Jakituriaren begitasuna egunsentiko laiñoa lakoa.

Pendizean jarri naz egun goizean munduari begira. Eta mundua, bidazti, apurtxu batean geratu, neuri agur egin, eta joan doa.

Nireak gogoetak! Orrien zurrumurru itzelaz zotin dagizue zeuen poza nire irudimenean!

Zuk eztakutsu zeu zer zarean, aren gerizetea baiño.

Nire gurari oneik direan ergelak, Jauna; zeure abestiak lorrinduten diardue ba, euren zaratakaz!

Aditutan baiño eztagidala jakin, nik, indazu Zeuk!

Onena autatuten dodana enaz ni neu, berak autatu oi nau neu ba-ta.

Ba-naz. Bizitzearen otozko betikortasuna!

—Guk, orri zurrumurrutsuok, ekaitzari erantzuten dakiguna ezta-kutsu ala? Esaizkuzu, nor zaitugu orren ixilla?

—Loratzua baiño enozue ni neu.

Nekeari atsedena, begieri betazalak lez.

Ume jaioten da gizona. Garakizunean dago aren aal-izatea.

Eguzkiagaitik ez lurragaitik eztau Jainkoak erantzukizunik itxaroten, bidaltzen dauzkuzan lorakaitik baiño.

Neure leioraiño eltzen dira zugatzak, lur mintzularen garramurazko abotsa lez.

Jainkoaren goiz bakoitza arrigarritasun barria da Ber-berarentzat.

Munduko izenetan dago bizitzearen aberastasuna; maitetasunarenean domua.

Ugerka agortuari iñok bere eztautso eskerrik egiten joandakoa-gaitik!

Edoi izan gura leuke txoriak. Edoiak txori.

Zimeldu egiten da ixillean nire biotza ta eztakit zegaitik. Iñoz eskatu, ez ulertu, ez gomutetan dauzan gauza txikitxuak dira.

Itsaso-barrura, azkenera doan eguzkiak osertzean isten daben azken-agurra!

Beatz-erpiñetan jarten dira zugatzak ortziari beituteko, lurraren guterrak irudi.

Mintzula da uretan arraiña; zaratatsua aberea lurrean; abeslaria eguratsean txoria. Gizonak beregan daukaz, baiña, aizearen eresia, lurreko zaparradea ta itsasoaren ixiltasuna.

Izkietatik eskegitako geure biotzaren arietatik amilkeran, goibel-tasunaren eresia dagi negar munduak.

Jainkotzat daukaz bere iskilluak. Garaitu dagienean, bera oi da garaitua.

Irazaten aurkituten dau Jainkoak Ber-bera.

Astiro doa gerizetea, estalkia ipiñita, argiaren atzetik, apaltasun ixillez, maitetasunezko ibillera ixiltsuz.

Argi-arratxoak irudituarren, izarrerri ardura bere ez.

Anditasun bako ulermen zorrotzak guztia zirikatuten dau, baiña ezer bere ez zirkindu.

Auts egin da zure irudiña, Jainkoaren autsa zure irudiña baiño andiagoa dala jakin dagikezun.

Gizona eztau bere edestiak agertzen, edestia-zear burruka urten baiño.

Leiarrezko kurtzuluak agirika dagitso buztinazkoari, *lengusiñea* diñotsolako. Ta jagi egiten da igetargia, ta leiarrezko kurtzuluak, *ene arreba ori!* dirautso irribarre bigunaz.

Itsastxori ta ugiñak lez alkar aurkitu ta batu oi gara. Itxastxoriak egaz aldetan dabe, ugiñak birin-bolaka; ta gu bere ba-goaz.

Amaitu da nire eguna. Ondartzatik ateratako izontzia lez nago, itsasaldiaren dantzea neure illuntzean entzuten.

Bizitzea emon egiten yaku, ta emon-ala ibazi daroagu.

Indioillarraren erruki da kurloia, arek isatsa ain zamauta euki bearraz.

«Liparraren bildur etzaitze izan eguno be», diño betiraunaren mintzureak.

Ene edontzitik edan egizu neure ardaa, adiskide, beste batenera egotzi ezkeru galdu daroaz, ba-da, bere onurea(*) ta bitsa.

Osoezari dautsan maitetasunarren bete oi da edertasunez osotasuna.

(*) *lorea* dauko, baiña edarieri alperrik galdu daitezanean sortu oi yakeen loi zuriari esaten dautsagu guk geuk *lorea*: *Onek txakolin onen lorea dauko*. Alperrik galduta dagoala esan gura dau.

Min dagitsut, osatuten zaudazalako; zeatu zagidaz, maite zaudazalako. Dirautso Jainkoak gizonari.

Eskerrak egiozuz garrari bere argiarren, baiña ez aantzi, gerizetan beti zutunik dagoan kurtzulu egotarritsuaz.

Txikitxuak dira zure oinkadak, bedartxu, baiña oinpean jopu daukazu lurra.

«Neure biotzeko lurbira ori, iñoz bere etzaitzez zimeldu!» oi u egin oi dau lora umeak kuskua zabaldua.

Bakalderriez nekatu egin oi da Urtzi, baiña ez loratxuez.

Auziabantzeri eutsi leikioe onegiñak; txarregiñak ez.

Onen lilluragarrizko lertze amaiezkorraz loraok jaurtiten dauzan iturria nun sortuten ete?

Nire biotz bakartiak bai sentiduten dau laiño ta eurizko arrats alargun onen zizpurua!

Maitetasunaren ugaritasunetik dator garbitasunaren altxorra.

Ikutu biotzean eta uste eztirean edertasunak erauzten dautsez mendieri laiñoak, maitetasuna bai-litzan.

Itsasotik eta oianetik urtetan dau aize olerkariak ber-beraren minzura-billa.

Bere lagunteria billatuten dau lurean bedarrak. Bere bakartadea ortzian zugatzak

Zure abotsa alderrai yabilt biotzean, lagun, adituten diarduen lerron(*) artean, itsasoaren ots motela bai-litzan.

Zer da au, bere txiñarrak izar dituzan illuntasunezko gar ikustezkor au?

Udako pitxia(*) haizen ederra bedi bizitzea, udazkeneko orria baizen ederra eriotzea!

Ongilleak dei egin daroa atean; baiña maite dabenak zabal-zabal aurkituten dau.

Bizitzeak asko egiten dauz bategaz; eriotzeak bat askogaz. Jaurspidea bakarria daiteke Urtzi'ren izenak il daitezanean.

Zeuretzako da au, nire garramura au, illunean sentiduten zaudazan ori; ez zuretzat, eguzkitan zakustazan orrentzat.

«Lotondoaren orripean zeu zara tangad_{αιικ} andiena; txikiena ganean, ni», esan eutsan antzireari iruntz-tangadeak.

Ezpata-erpiña zaintzen daben-artean zoriontsu izan oi da aldezen bageko ezpata-zorroa.

Yasik-bakoa dirudi illuntasunean Bakarrak, yaseko argitan.

Bedartxuaren laguntasunaz arrerakoi izan oi da lur zabala.

Orri urteierea ta jauskere_a zirimol itzelaren(*) ziruriketa(*) biz-

(*) *lerron* = piñu onein.

(*) *pitxi* = lora. Geure erriko zaarri ikasita dakit au, berba dotore au.

(*) *itzel* = neurri bakoa emen.

(*) *ziruriketa* = itzulketa.

kor-txikia obo andienak astiro-astiro izar-artean birin-bolaka ditue-
zala baiño eztira ba.

Zarata dagianagaitik eguzkia estaltzen dautsan lurraren guraria
lakoa da laiñoa.

Ixilik, neure biotz ori, tantaiak otoitzak dira-ta.

Uneko zarata onek bai laidotuten dau betikotasunezko eresia!

Bizitza, maitetasun eta erio-ibaiaren azalean ibillita gero aantzi
egin zirean beste aldi batzuez bere pentzau daroat... Eta eriotzeakau-
tan geratuten nazan yarei!

Eriotzearen ezaugarriak balioa damotso bizitza-diruari, ta erosga-
rri egin oi dau bene-benetan domutsua daitena.

Lorak emon daroaz autsak iraiñen ordeez.

Lorak batuten ez geratu jabotearren, joan eta joan zoaz, lorak
zainduko dabe euren burua, loratu ta loratu, zeure ibiltaldi guztian-da.

Lurpeko adarrak dira sustraiak; adarrak eguratsean sustraiak.

Udazkenean bai egaztadak joandako udearen musikeak, bere leen-
go abiearen billa!

Odoldiak zugatz zaarrari lez neure biotzari eskegita geratuten
zarie, izen bageko egunok!

Jainkoarena lotsaria gora egin dabeenak euren berarizko onureaz
arropuztu daitezanean!

Neuk neure gerizetea ba-dagit bidean, ixetu bako kurtzuluen bat neugan dagoalako da.

Agortuez amaitu daitena eriotzea izan bear; amaiera osoa amaitu ezkorrean dago ba-ta.

Bikaintasunez apaintzen dira edoiak. Tolezbako argi-txabuxa(*) baiño eztauko eguzkiak.

Izarrak gura dabeezala-ta besoak jasoten dituezan ume-zaratak dira mendiak.

Zaratatsu gura izaten da bidea, maite eztalako.

Barreak-barré egin daroetsez jausten direan orri beillegiak eta joan doazan edoiak aginpidegoaren gaiztakeri arroeri!

Bedar-erbatza bera asten dan lurbira zabalaren gei da.

Molokot egin eben mundu guztiak daroadaz, nik neuk, neure mundu loratuan.

Ondartza onetako ugiñak adituten dodazanean, lagun, zeure gogamen sakonaren ixiltasuna sentiduten dot amaibako illuntze oneitan.

Ume jaio oi da andia; ta bere umetasun andia damoketso munduari il daitenean.

Mailluak ez ditu egiten ugarriak(*) egin-egiñeko, bere irrada(*) ta kantaz urak baiño.

(*) *txabuxa* = tunikea.

(*) *ugarri* = errekarri.

(*) *irrada* = dantza.

Eztia edoski loreari ta burrundadazko eskerrak emonez aldetan dau erleak. Sorgindera(*) dotoreak ba-daki loreak eskerrak zor dau-sazana berari.

Alperkeriaren egilletasuna bearra(*) da, ta itsaso barea ugin-ikaraz.

Maitetu dagianean lora egin oi da orria. Jauretsi dagianean frutu lorea.

Adarrak igaliz betetako, eztau sustrai ezkuak eskatuten baimenik.

Zure aize gerakeak adarrerri eragiñaz izaki guztien anditasuna kautan goznartu eragin daroast! illuntze euritsu ori.

«Alperrekoa izatea dan lotsagarria!», itzak esan eutsan egiñari. Ta egiñak itzari: Zakustazanean dazagut neure txirotasuna!

Aldakuntzearen altxorra da aldia, baia orduariaren antzekotasunak aldakuntzea aberastasun barik baiño eztaoa egin.

Egiñenen jantziak larregi estutu daroa egia. Alegiz jantzita bai nasai!

Joan-etorrian nenbillanean ni, joan bagerik, niri emoten eustan nekea bideak! Baiña orain, leku guztietara narozazun ezkerro, maite-mindu bi lakoak gara alkarrentzako.

Urtien ondamenen abiea daukan mintzura goibel batek, «maite zendudazan», abesten daust gabetan.

(*) *sorgindera* = ingumeari, Aiengiz-aldean.

(*) *bearra* = lana; *bearrizanas* ez naasi.

Bere garraz gaztigitan(*) nauan su biziaren bildur enaz; aldendu nagizu zeuk baiña, auspean ezkutauta dagoan il ez biziko txindarra-gandik.

Indartu diatela ba ildako itzen autsa zeurekautan; garbitu egizu zeure arimea ixillean, baiña.

Urratutako bizitzearen arrakaletatik bai sartu eriotzearen eresi goibela!

Munduak zabaldu dau goizaz bere argi-biotza. Ene biotz ori, zoaz zeure maitetasunaz bere billa.

Ekaitzean eztago Jainkoaren amaibako aala, egutaizean baiño.

Guztia azkatuta dagoan eta guztiak estututen daben amesetea baiño ezta au. Itzarri ta azke naitenean ni neu, zeurekautan alkartuta aurkituko dot guztia!

«Aldizkatu nagikeanik ez ete dago?», itaundu eban sartuten yoian eguzkiak.

«Aal daitena egingo da, Irakasle», esan eban lurrezko kurtzuluak.

Loreari orriak erausiarren eztozu aren edertasunik jadetsiko.

Ixiltasunak berekautan daroa bere abotsa, abieak loak artutako txorien eresia lez.

Bere opageien ikarak eskerbakotasunarenak direala uste dau agin-pidegoak.

(*) *gastigau* = albitzea emon.

Betetasunaren pozean pozkidaz aldendu gaitkez geure igalie-
kandik.

Iruntz-tangadak atzematzen dauzala dirudi aramu-sareak, eta euliak
atzematzen ditu.

Eztakit zelako goizaldeko txoria biurtzen dan nire ixiltasun-abia-
ra illuntzero.

Pozik izan oi da ubidea, ibaiak berari ura ekarteko baiño ezti-
reala oldozten.

Pentzamentuak jan egin oi dauz ber-beraren itzak, eta asi egi-
ten da.

Eztakit zelako izen bako lorea be senidetzat(*) ebalako, gorritu-
ta egoan eguzki-bedarra. Eta barre egin etsuan eguzkiak urtenda,
zirautsala: «Zelan, neure biotz ori?»

—Nor zaudaz zeu, alabearra lez kiñetan nozun ori?

—Zeure burua, zeure bizkar-ganean.

Urrunetako mendi-oztean ezkutetan dira edoiak eta urez betetan
ditue latseko txiliñak.

Joanean-joanean ixuri egiten yat lusuilletik ura. Etixerako bai
gitxi geratuten yat!

Txinpartak dagiz urak kublean, eta illuna dago itsasoan. Egi
txikitxuak itzezko argiak daukaz; ixi-ixilla da andia.

Zeure zelaiko lorea zan zure irribarrea; zeure mendi-lerdiko zu-

(*) *senide* == aaide.

rrumurrua zure berbea; baiña zure biotza, emakume, eguneroko zeu zan.

Gauza txikiak isten dautsiedaz neure gogokoeri; gauza andiak guztientzat dira ba-ta.

Itsasoak lurra dagikeanez inguratuten dozu zuk, amakume, munduaren biotza, zeure malkoen sakonaz.

Irribarrez agurtzen nau eguzkiaren argiak. Biotzean itz egin oi daust aren aizta goibel euriak.

Goizerik-gabera orriuldu zan aastuta nire pitxia; gomutearen urrezko igali eldu oi dau illuntzeak.

Bere gomutakizunen oin-otsak ixillean adituten dauzan gau-bidea lakoa natxatzu ni.

Leioa lakoa da illuntzeko ortzia nire biotzarentzat; ta kurtzulu bat ixetuta leioan, eta itxarotea leic-ostean.

On egiten larregi diarduanak, ona izateko astirik ez.

Udazkeneko edoia naz, euri barik. Begitu nire betetasunar intagari(*) arlo elduan.

Eskuetako atzak izateari itxi egin dautsee beatzak.

Gerizetea argirantz doa; itsutasuna eriotzara.

(*) *intagari* = erderazko *arroz*; Azkue'k sorturiko itza.

Geldi, ene biotz ori, ez autsik atera; munduak aurkitu begi zure bidea!

«Neurea da zure azkatasuna», esan daroatso arranbelak geziari jaurtikeran.

Zustrai uts dan adimena, jabearen eskua sakitu daroan sorbatz bakarreko aiztoa lakoa da.

«Zeure munaren urrezko marrontzia(*) da nire biotza», esan eutsan arrats-berako edoiak eguzkiari.

Txirritxirrien kantea, euri-otsa; gaztetako neure amesen zurrumurrua lez, gerizetea zear zatoze neugana!

«Galdu egin dot neure iruntz-tangadatxua!», dirautso loreak izar guztiak galdu dauzan egusentiko ortziari.

Kurubioak uste dau bere auzo erlearen erlauta txikiegia dala. Berea aixe baiño be txikiagoa egin dagiala eskatzen dautso erleak.

«Ezin jabin daikedaz zure zambuladak», diñotso ibaiari ugaldeak. Ibaiak darantzutso, ba-da: «Zeure oiñatzak neure biotzean jabeten itxiko daustazu zeuk?»

Mundu guztiein ixiltasuna itoten dau egunak, geure lurtxu onen zarateaz.

Eguratsean asmetan (*) dau azkenbakotasuna musikeak; lurreean koloreak. Lurreean eta eguratsean olerkiak, ibilli dabillan konortea(*) ta egaz dagian otsetziarena(*) daukaz olerkiaren itzak ba-ta.

(*) *marrontzi* = marra-ontzi; pitxi-ontzi.

(*) *asmau* = sentidu.

(*) *konortea* = sentidua; aurrez erabilten dira omein itz biok gure arrian.

(*) *otsetzi* = melodi.

Egunaren eguterea bai ixiltsu azkenetan dagoan eguzkiaren aurrez-
aurre!

Ez egizu txarto jokatu zeure munduaz, ez egizu zeugazko kili-kolo
jarri.

Nire asti-aldiaren bake sakona ez egizu lorrindu, neure asti-al-
dian! Itsasoa ixildu daitenean gaututako ondartzea lez itxi nagizu!

Zeure tolezbakotasunak dager neskato, zure egia sakona, antzi-
rearen urdiña lez.

Onea eztaroa etorri bakarrik, guztiak laguntzen dautso-ta.

Jainkoaren eskoe-eskua bai gozatsua, ta ezkerra dan itzela!

Zugatz arrotzen artean eldu ekidan neure illuntzea, ta goizeko
nire izarrak ulertu ez eben izkuntzaz negian itz.

Eguntentiko urrea eztanda dagikean zorroa lakoa da gabeko illun-
tasuna.

Gurariak bai margosten dauz istrikuaren(*) margoak bizitzearen
laiñoetan!

Gizonaren eskuz Ber-beraren liliak birrirabaztea ditxaro Jain-
koak.

Niri bai egiten daustee iseka neure gogamen goibelak, mozorroak
lez, eureri zelan deritxoen itaunka!

(*) *istriku* = ostadar. Geure erriko zaareri entzuna dot itz au.

Ederra da igaliaren emaia, gozoa lorearena; orri-gerizetearen laguntasun apala emon aal izatea gurago neuke, nik neuk, baiña.

Aize astitsuetarantz zabaldu dauz oialak nire biotzak *Estaardura* gerizetan, ugarterantz aurrea dabela.

Zeure edontzi egin nagizu, ta nire betetasuna beite zeuretzat eta zeurearentzat.

Bere maitetasunaz lurra bere nardatuko leukean Urtziren baten urrumea dirudi ekaitzak.

Munduari itugiñik ezpa-dario, eriotzea arrakalea eztalako da.

Galdu izan direan maitetasunetatik, bizitzea bai gozoa!

Mendi bakartsuaren erpin zorrotzak lez egian dizdiz, zure neurri bako biotzak, eguzki-urteierearen aurrez-aurre, lagun.

Erioaren iturriak bizitzearen ur geldia erion-azoten dau.

Zeuz ez beste guztia daukienak, Jauna, barre egin daroatsee. Zeu baiño besterik etzaukiezaneri.

Ber-beraren eresian dago bizitza ibiltariaren atsedena.

Ostikadak lureko autsa astinduten dabe, uztarik ez.

Gabaz itsasoan dizdira egin eta lorratzik itxi barik beingoan il oi dan argia lakoak dira gure izenak.

Ementxe, ur arrotz onetantxe, loratuten da gure erriko lotondoa beste izen bateaz, baiña biguntasun bardinañaz.

Lekutekoak irudituten yataz bideak, biotzaren asmuetan!

Ez egizu esan «Biar», ta atzo izenaz joaten itxi. Begiratu ta dei egiozu egunero, lenengo aldiz, izen bako sein jaio-parriari lez.

Keia arrotu egin oi da aizeaz, eta errautsa lurreaz, suaren anaiak direala-ta.

Etzaiteze bildur izan, gogamen bildurtiok, olerkaria naz-da.

Onek, nire pentzamentuaren et-eteko ixil onek, durundiaren argiabar arrea dirudi, txirritxirri-kantaz beterik.

Izarren irain, zizirikook! Zuen iraiña bai naasi zeuon aurka!

Itsasontzi estu batean guztiok alkarregaz igaro daroagun itsasoa lakoa da au, bizitza au. Eriotzearen bazterrera eldu gaitzanean baikoitza bere mundura goakez.

Guzurraren ugerkaz doa egiaren latsa.

Aldiaren itsasoz-andik dagoan ordu bakar gozatsuaren miña dauko nire biotzak egun.

«Eretxi orrek enozu laztandu gura?» itaundu eutsan txilin-loreari goizeko argiak.

Beitu argiaren munaz zelan egiten direan zeruko lora edoi baltzak!

Aldezka! bageko bere kirtenari ezpegio barrerik ezpateak.

Kurtzulutzarra lez ixetuta dago gabeko ixilla bere ostilikaren(*) argiaz.

Eriotzearen amaibako abestia gau ta egun jagi oi da, itxasoa lez, bizitzearen izaro eguzkitsuaren inguru.

Aize ta uragandik txairotasuna artzen daben txalupea lez billatu egizu zeure edertasuna, neure biotz orrek, munduaren igiduran.

Neure mundu ain txiki onetan, txatxarrena be kizi(*) gitxituko ete dan bai bildurra! Zeure munduaren erdiraiño jagi zadi, zeu; guztia pozarren emoteko azkatasuna indazu!

Aal izatez asko geituarren, iñoz bere ezin eldu leiteke egira aizuna.

Zeure abestien zanbuladakaz eguzkidun eguneko lurbira eze au mizkatea bai garramurea, biotz!

Ezpateaz egitea lez zeartu egizu enparantzako zalapartadea zeure musikeaz, eta sartu egiozu biotzean!

Beitu egiozu sorginderea izan gura eukean pitxi gaixoari autsetan!

Gaba ba-dator, eta bakarrik nago bideen munduan. Edegi zakidaz, sabazterreko mundu ori!

Abestu egin dautsut egunez. Illuntzeko bide ekaiztsuz zeure kurtzulua eroaten itxiko dautzazu?

(*) *ostilika* = Jagoba Deunaren bidea.

(*) *kizi* = atomu.

Bizitzearena da eriotzea be, jaiotzea danez; ibilpidea oiña jasokeran naiz beean ezarkeran daitenez.

Berandu zabal-barri zan gabeko loreari mun egin eutsan goizak. Eta ikaratu egin zan lorea, zotin egin eta orriuldu egin zan bedartzan.

Sekulako ama ori, izaki guztien goibela-zear eltzen yat zure seaska-abestia!

Zeure ondartzara nintzan, atzerri-lurralde; zeuenean bizi izan nintzan ostatari; ba-noa zugandik adiskide.

Zeugana biurtu daitezala nire pentzamentuak gura neuke, ni alde naitenean, ixiltasun izertsuaren bazterreko eguzki-sarrerearen leiñuru ori lez.

Umea gabean itzarrik naz, Ama. Nire eskuak bai billatu zu, illunetan!

Amaitu da nire bear-aguna. Neure arpegia zeure besoetan ezkute-tan itxi egidazu, Ama. Itxidazu zeurekautan amesetan egiten!

Billakako kurtzuluaren erretearen luzea; ta arena itzalikerea, une batean, azken-agurra egikeran!

Ospearen illezkortasuna illentzat bedi, baiña bizientzat maitetasunarena.

Bizitez beteriko maitetasuna, edontzi ardauz betea.

Kurtzuluak izetu, ta kantau egin oi dabe, euren itzakaz, auren jauretxeetan; baiña txoriak zeure goizeko argian txorrotxioz esaten dabe zure izena, alaitasuna da zure izena izan be-ta.

Bizi beitez gura dabeenak, euren suargi(*) txistu-jotzailleen artean. Nire biotzak, ene Jainko, gurago dauz zeure izarrek.

Ondar bageko itxasoa lez abesten dau maitetasun-oiñazeak nire bizitzearen inguru; oian loratsuetan txoriak lez maitetasun-pozkideak.

Itzali egizu, nai ba-dozu, zeure kurtzulua: ezagutu egingo dot nik, zure illuntasuna, ta maitetu.

Zeugaz egon naitenean, eguna doienean, ikusiko dozuz nire zau-
ratzak; eta jakin dagikezu nire sakien barri ta osasuna.

«Munduko egunsentian ikusi zendudazan bein, nik, eta gizon zi-
ñala maitetu zendudazan», abestuko dautsudan egunen bat eldu dai-
teke beste munduko egunsentian.

Edoiak etorri zirean nire bizitzara ta ez eben euririk ez yuzturirik
egin, sartaldeko ortzia biztu baiño.

Bere asia lau aizeetara zakabanatuten dabeen ekaitzak jagi oi
dauz egiak bere aurka.

Gabeko ekaitzak bai burestundu bake dizdiratsuz goiza!

Egia eldu daitenean, azkenekoa dirudi aren itzak; baiña aren az-
kenengo berbeak beste itz bat sortu daroa.

Donetsia egiak baiño entzuteak erlantz andiagoa eztagitsona!

Zure izenaren gozatasunak bete egin oi dau nire biotza, neureaz

(*) *suargi* = su aizunak; Etxaide'ren liburuen batean artu neban itz au.

aantzi naitenean, laiñoa alde daitenean zeure goizeko eguzkiak da-
giztanez.

Ama lakoxe ederra da gau ixilla; umea lakoxe yaioa egun zala-
partasua.

Zeure maitetasunaren tankerea bai-litzan sentidu dagidala au,
mundu au, indazu, ta nire maitetasunak lagunduko.

Ene biotzaren neguko egunetan irribarre egin daroa zure eguz-
kiak, eta biotz onen udabarriaren pitxien enurarik(*) eztau iñoz bere
izaten.

Amaikorrari mun egin oi dautso Jainkoak bere maitetasunakautan,
gizonak amaiezkorrari.

Urte antzuen basamurtuak-zear zoaz, baiña beteko da liparra.

Neure abestiz billatu egizu ta zeure oiñatzak aurkitu dagikezuz,
Bidazti Betikor orrek!

Ez egizu nik lotsatu zagidazan leku emon, Aita, semeekautan
zeure aintza dagerzun Orrek!

Eguna dagoan its! Matrailla zurbillak malkoz daukazan ume zea-
tua(*) lakoa dago argia laiño naasipean. Irrintze dagi aizeak mundu
zauritua lez. Baiña nik neuk ba-dakit joan noana, neure Laguna aur-
kituko dodana!

Igetargi betea, gau onetan bai palmondoak makurtu; munduaren
biotz-taupada itsasoa bai jagi!

(*) *enura* = zalantza.

(*) *zcatu* = zigortu.

Eta zuk zeuk, zelako zero ezezaunetik dakazu, zeure ixiltasunean, maitetasunaren ixil-oiñazea?

Egunen batean neu jaio neitekean izarren bateko argi-ugarteaz dagit ames; eta udazkeneko eguzkiaz eltzen direan intagari arloak lez elduko nire bizitzeak bere egiñena bizitzako asti-aldiaren sakonean.

Ziztrintasunaren lagunteri ixiltsuaren goratasunezko abesti neurribakoa lez jagi oi da, euria daitenean, lur bustiaren usaiña.

Maitetasuna nonoz izan daitekeala gitxiago, ezin daikegu egitzat onartu.

Jakingo dogu egunen batean, geure arimeak irabazi eukeanik ezin ebatsi(*) leikegula eriotzeak, arimeak be berea dau bere altxorra ba-ta.

Neure joandakoaren lorak otzaran eze dabezala dator Urtzi neugana, neure arrats-beran.

Neure bizitzearen ari guztiak gozatuta(*) daitezanean, ene Irakasle, maitetasuna abestuko dabe, zeuk ikutu dagizuzan bakoitzean.

Egiakautan bizi naitela indazu, Jauna, eriotzea egi biurtu dakidan.

Gizonaren edestiak egotarritsu itxaron oi dau gizon laidotuaren garaitza.

Landa igitaitu bakartsuan goizeko eguzkiaz ixilla lez asmetan dot zure begikunea, lipar onetan, neure biotzaren ganean.

(*) *ebatsi* = ostu.

(*) *gozatu* = girotu; gitarra-ariak gozatu, esan oi dogu.

Abestien izaro ori!, noz aldatuko ete zugana garraxien Itsaso nekatu au?

Sartaldearen musikea gabaren aurre-aresia lakoa da; Illuntasun azaldueziñarentzat aarai(*) ospetsu.

Ospearen tontorrera igon neban eta eneban aurkitu eskeperik aren goi elkorrean. Urrezko jakituriz uztak(*) garaun egin oi direan aran baketsura eroan nagizu, zeuk, neure Biderakusle orrek, eguna il baiño leen.

Izakiak bai irudimenezkoak ez ikusi bai ikusi, argiabarrean! Gerizetak orpo dabeezan torreak; baltxaki(*) orbanak lez zugatzon adaburuak!... Itxaron egingo, ta itzarri egunsentian, eta argitan dakusket zure uria.

Jasan, gogaitu, erioa ikus neban. Pazarren nago ba, lurbira onetan!

Zelaiak dagoz nire bizitzan, ixiltzu, billoizik. Neure bear-egunen arloak dira; aize ta argizko bakartadeak.

Azkatu nagizu onetatik, neure bizkarretik eskegita betetzeke da-goan, eta eriotzea gaitz dagiztan joandako onetatik!

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN'EK itzulia

(*) *aaaraia* = ereserkia.

(*) *uzta* = labore.

(*) *baltxaki* = idazteko ur margostua.

ARRANOGANEKO JANTZIZURIDUN PRAIDEAK

Gaztetan mutil lagun izanikoak gara Kotxolo Agirre ta biok. Gixitan ikusten gara orain, azkenengo urteetan batez be. Bizitzako arazoak aldendu gaitue ainbesteraíño.

Arranoganean egin dabeen komentu barrikoen artean dabillena banekian, entzunda. Neu ikusten datorrela ta etxera igon dau gaur arratsaldean, Arranoruntza doiala bide batez. Ordu bete ta geiagoan egon gara berbetan. Urrin gelditu ziran gure gaztetako egunak. Bost urte dala gelditu zan alargun Kotxolo. Ezkonduta daukon alaba bakarragaz bizi da, alargun.

Pizkategaitik gelditu naz neu be beragaz joan barik Arranoruntza.

* * *

Gitxi izaten gozak negualdean, baia pillo aundia udaruntza. Bos-teunetik gora be batu gozak baten baiño geiagotan, udabari alde-runtz eta udagoienetan.

Praide gitxigaz izan da be. Subertau leikek iñoz utsik egotea Arranogain, baia millagro. Ez dok entzun oraindiñoako olakorik, beti egoten dot batoren bat Arranogainen.

Bakoitza geure etxeetan bizi gozak astegunetan geienok. Zapatu arratsaldeetan igoten jouk geienok, domeka illuntzietan etxeratzeko barriri. Aste barruan be jaien bat izan eskero, komentu gutzia betetan dot, domeketako moduan.

Alargunak gozak batzuk, baia ezkonduak geienak. Ezkongai gazte pilloa be ez dok txikia.

Bat be ez dok abadea gure artean, oraindiño beintzat. Eguerdiko Mezia emoten etorten dok bat, jaiegunetan. Injiñeruak, legegizonak, osagilleak, irakasleak, ofizinetakoak, langilleak, ikasleak... danetik gozak artean, baiña iñok ez jakik bata-bestearen barri geienetan.

Euskaldunak gozak geienok. Erdaldunak be bai. Iruñan ikasle diran batz eta arabiar batzuk be etorten dozak batzuetan, eta euretatik bat bakarra dok kristau bataiatua. Judegu diplomatiku bat be ekarri neiñuan bein, neure lagune dot-eta. Bere kontura etorten dot orain, noz edo bein.

Akordetan az Lekube Motrikukoagaz? Itxasontzietako buru jabik. Ori be an agertzen dok, bere semerik zarrena ta Ondarruko pelotari bategaz. Langilleen artean, Arrasate inguruoak dozak geienak.

Danok jantzitzen gozak praide-jantziekaz. Munduko jantziak kendu, eta praille-jantzi latzakaz jantziten gozak, trapakoen antzera, zuri-zuriz.

Jatortasun utsean ordu batzuk bizitza gure dabenentzako bakarrik dot Arranogaingo baztarra. Udatiar-turista eta begiluze ikustezalcentzako ez jagok lekuri an, zer ikusi aundirik be ez jagok-eta.

Arrizko txabola txiki batzuk jaukuzak, eta aundi bat erdian. Au dok komentu dana. Mendi ta basoak be geuretzako, ardientzako eta txorientzako dozan moduan. Txabola nagusian batzen gozak eguberdian, Mezia entzun eta bazkaltzeko. Ogia eta ura dok gure janaria. Esnea be bai, erdigaixontzako. Besterik ez.

Ixiltasun aundienean joaten dok eguna. Txortxorrean ibilterik ez jagok an. Aitagurea asieran, danok besarkatuaz anaien besarkadeagaz, eta Andra Mariar: Agur-Erregiña arratsaldean, kantuz.

Bakoitza beraren gogokizunak ixiltasun osoan eta penitentzian egiteko eukera ona, ikusten dokanez.

Idazten be egiten juek batzuk. Aspaldian jabik nobela bat idazten Zalbidea idazlea. Saul Bellow-en gaiak buruan da jabik. Ez jakiat ba, Herzog euskaldun bat asmetan ez ete-dabillen.

Pariseko pintore bat be iñoz etorri dok, euskaldunen semia, eta dibuju pillo bat egin juan.

Agirian zarata barik gabiltzak. Alan da guzti be txikiegi gelditu jakuk Arranogane ainbestentzako. Leku barri baten bearrean aurkitzen gozak, geroago ta praide geiago gozak-eta. Naparroako Auñamendietan komentu barri bat egiten asteko asmoetan jabizak Bidasoz bestaldekoak eta Naparroakoak.»

* * *

Ez deutzat lagundu daur Kotxolo Agirreri. Urrengo beste jaiegunen baten bai, beragaz joan bear dot, besterik ez bada egun batean praidebarri bizitza egiten, Jaungoikoak gure-badau-gure.

N. SOLOETA-ASTARBE.

BIDEGAIN ERRE DA, ETA LEZO AMUNARRIZ IL

Ogei ta sei urtegaz il jaku ausoko Lezo Amunarriz mutil gaztea. Suak artu dau etxea, arratsaldeko bero kiskaldu orduan.

Sabaiko bedar sikuek artu dabe sue, eta doministikun bat esateko denporan ikusi daugarretan Bidegane etxezar zabala.

Eztagoala ezer egiterik, eta arriskuan inor ez paretako, esan dau aita zarrak.

Ez deutzo jaramonik egin Lezo gazteak: «Bere jaiotetxea alan ikusi ta geldirik egon? Ez orixe!»

Al izan dabena egin dau, biozdun eta bildur barik.

Azkenean be aidean bota dauz arri batzuk egun zar batek jausieran, eta orretariko batek jo dau bekokian.

Soldautzatik etorri barri, eta laster ezkontzeko dagoala, zelako eriotzia aurkitu dabon Lezo Amunarriz gixajoak.

Auxe eta besterik ez dau esan bere aita onak: «Gure etxea asko maite izan dabelako egin dau ori, seme maite orrek!»

BITAÑO.



JAKINTSUA

Ramón Sola'ren
ipui - gaia

Bozas Urrutia'k
itzulia

Begitxoak, argi ta alai zituen. Arpegia, irritsu ta ixekari. Deabruzkoa ere bai, noiz edo noiz. Soñña, gurpil-tankerakoa. Au da, urteak —batek daki zenbat!— gupi-lerro baten antza emana. Aurtasuna ta aguretasuna isatsa alkarri irentsita nastutzen ziran gupi-lerroa. Aurtasuna, nagusi. Okar eta makur, zirriborro bat baizik ez zan gizontto hura...

Jakintsu bat zan, ordea, aguretxoa. Jakintsu aundia, kimilari sonatu. Bakar-zale amorratua, ez zuen alkarlanik maite. Bere gogaiak, bere asmakizun arrigarriak gaiñera —siñist-eziñeko gogai bitxiak, bere gisakoak, ixillean gorde nai zituen gogaiak— gizonengandik urrun bizitzera ta lan-egitera bultzatzen zuten. Eta orregatik bizi zan bakar-bakarrik, aspaldi ezkeroz, etxe aundi batean. Gutxi-bearra ta jan-urri izanik, aski zuen morroi baten laguntza. Bi areto baizik ez zituen erabiltzen, aundia bata, txikia bestea, elkarren ondokoak. Txikia lantegia zan, bere burukizunak mamitzen, izaki biurtzen, egia egiten zituen leku izkutua. Antxen egoten zan geienean, ari ta ari, billa ta billa, mota guzitako ontziak bete-ustutzen, berak bakarrik ezagututako gaiak nastutzen, eskuak trebe, begiak zorrotz, eta arako keiñu deabruzko hura ezpaiñetatik iñoiz ere aienatu gabe. Morroiak ez zuen an sartzetik, nagusiak ots egin ezik. Beti pizkor eta leiatsu betetzen zituen aren agindu guziak, gure jakintsua patxada gutxiko gizona bait-zan, purrustalari eta itzlaburrekoa.

Taylor morroia ez zan egiazko morroia. Ajente bat zan, miatzaille bat, zelatari bat, ixilleko misioe bat betetzera artan sartua zana. Doai ederreko gizona, argi ta ausarta, korapillorik nastuenak askatzen asko nabarmendua zan. Orrexegatik aukeratu zuen gobernuak, jakintsu arri buruz zerbait geiago jakin nai izan zuenean, baitezpada-ko gizona zitekeala susmotan asi zanean.

Zortzi illabete zeramazkian Taylor'ek morroiaren itxurak etxe ar-

tan egiten, begiak tink, belarriak zut, usnoa erne. Alperrik baña! Azkar eta buru-argi izanikan ere, ez zuen ezer garbirik atera ahal izan. Gogait egiña zegoen, etsi-etsia. Geldi-eziña ta ezin egona, zirt edo zart egitea erabaki zuen azkenik. Zan bezelakoa agertuko zan, orra. Beste biderik ez zuen ikusten.

Baita agertu ere, goiz batez. Aretoan sartuta ikusi zuen, antxe, txoko batean, nagusi izandakoaren irudi ziztrñi zimurtua. Au ordea, lantegi artan iñork deitu gabe lenengo aldiz sartzen ikusita ere, ez zan asarretu. Irri-parrez begiratu zion. Arriturik gelditu zan Taylor. Ba-zan alako aire gaizto bat agurearen arpegian, inguratzen zan morroskoari zearka begiratzen zion bitartean. Susmoz asi zan Taylor argia. Igarria ote zuen gizonttoak Taylor'en nortasuna? Ala ematen zuen... Morroskoak ez zekien, noski, gizaki ñimiño arrek buruan aspalditik zerabilzkian bi gogai —bere gogaietan arrigarrien eta bitxiak— egi bihurturik ba-zituela ordurako. Morroia ikusirik, zerbait bururatu zitzaion jakintsuari, bere asmaketa berriak probatzeko bide obeagorik, noiz? Taylor urrean zegoen. Agure maltzurak irriz, urbiltzeko keiñua egin zion, amultsuki. Eta Taylor, ajente trebea, ikasia, urbildu egin zan; katu-antzo, azeri antzo, erne eta gertu, bere atzaparra luzatzeko prest.

Aguretxoak, morroiaren asmoak somatuta edo —ala uste zuen onek, beiñepein— mugimentu arin eta pizkor batez zerbait eraman zuen aora. Taylor'en zaiñak ederki erantzun zuten; besteak bere burua il nai zuelakoan, jauzi aundi bat egin zuen, alako asmoari eragoztearren. Eta... orduantxe eman zion asiera agure maulumtzak bere lenengo gogaiaren probakerari. Asi zan jokua!

Eta asi zan, ajentearen eskutzarrak lepoari eldu bearrean, utsari eldu ziotenean. Zarra ez zegoen bertan! Taylor ordea ez zan geiegi arritu, ez estutu. Baldartuxea arkitzen bide zan, ain luzaroan jardun gabe egona; bai, orixe zan: gaizki neurtua zuen abiadura, noski... Ortan, takateko batzuk sorbaldan nabaitu, eta jiratu zan; balantzaka zegoen'argi-ontzi bat ikusi zuen. Eskubi aldean, alki baten gaiñean, agurea. Par egiten zuen onek, zorrozki, garrazki, atertu ere gabe. Zan baño txikiago zirudien. Berriz egin zion, maitekor, urbiltzeko keiñua. Eta Taylor bai urbildu. Ontan ez zuen ajenteak bere abiadura gaizki neurtu, ez; baiñan, besteak ere ez zuen nolanai jokatu; alajaiña! Jauzi miresgarri bat egin eta zzuissst! orra aguretxoa aidean jiraka, mai baten gaiñean pausatu zan arte. Eta andik berriz ere asi zitzaion zirika eta urreratzeko kiñuka: «emen natxiok... ezetz arrapatu! hi, hi, hi!» Bildurtzen asi zan orduan ajentea; burua galtzen ere bai; besoak zoroki astindurik etsaiagana zuzendu zan, zalapartaka. Eskuak, len bezela, utsari eldu zioten. Agure deabruz-

koak Taylor'en ikusmena ta entzumenen oñazeztatu zituen, milla arpegi-kiñu lipar batean egiñez, bere par-algarak iñoiz baiño garratzago ta zoliago egiten zituelorik.

Zentzua galtzera zijoala pentsatu zuen Taylor'ek. Ikusten ari zanak etzuen egi-antzik, itxuragabea zan hura. Aren atzetik entzuten zuen'zurrumurrua baña, firrinda hura, egiazkoa zan. Biurtu egin zan urduri ta larri. Hura lo-zorroa, hura ameskaitza! Zernai ikusita ere, siñisgarri irudituko zitzaion gerokoan, bai noski... baña... izango ote zuen gerokorik? Egaka ari zan gizontxo, batean zearka-mearka, bestean zuzen, urrengoan jira-biraka. Euli bat ematen zuen, zurrumuru lo-eragille jaurtitzen zuen mando-euli eskerga bat.

Ajente berezia begi-klisk asi zan. Tximista bezin azkar ekarri zituen gogora ordurarteko bere misio ta egin guziak. Zailak eta gogorak izan ziran batzuk, arraruak beste ez gutxi, arriskuz beteak geienak, baiñan itxuradunak guziak, konprenigarriak; ez, au bezela, ulertu-eziñak, itxuragabeak... Susmo bat izan zuen orduan: burutik egiña zegoela. Burua menperatzen alegindu zan; alperrik. Mando-euliaren firrinda arrek lo-eragiten zion. Eta igesari eman nai izan zuen, bere bizian lenengo aldiz; iges-egin, naiz lotsagarri gelditu, naiz koldartzat artua izan; inpernuzko ameskaitz madarikatu artatik aldeegin len bai len. Aren asmoari igarri balio bezela, gizontxo jakitsuak bukaera ematea erabaki zuen jokuaeren lenengo parteari. Goruntzago igo zan. Taylor'ek, aren eraso aldia sumatu-arren, etzuen ezer egin bere burua gordetzeko, babesteko; arridurak erabat indargaberik utzi zuen eta.

Agure jostalariak, aidean zintzilika dantza-pausu batzuk egin ondoren —orpoak elkar-kontra jo, bi zangoekin kurpillak egin eta azkenik guraize-gisa erabilli, euskal dantzaririk iaioenak egin lezaken bezin ederki ajentearen gaiñera amildu zan. Au gogor-egiten saiatu zan baña berandutxo. Ez zuen arpegia estaltzeko ere betarik izan, eta gizontxo dantzari-egalariak pasaldi laster bat egiñaz, ortzak agirian jarri, mingaiñari eragin eta sssss... leun batekin, txistuka bezela, zerbait egotzi zion begietara Konortea galdu zuen Taylor'ek; uzkurtzen asi zan polliki-polliki, ta azkenik pardel bat egiña geratu zan, lur gañean zerraldo.

Egazkin arrigarri arrek akats-gabeko lur-artze bat egin zuen andik ez urrun. Jauzi bat egiñik, aguretxoa urbildu zan, oiñ bat ajentearen gaiñean ipiñi ta besoak gerrian zituela, tente-tente luzatu zan, gora begira, pozez lertu-bearreko. Poztutzekoa zan benetan bere burua garailari ikustea, bere jakinduriak emandako garaipen miresgarri hura txastatu ahal izatea!

Apurtxo bat onela egonda, lurrondoko egaldi batez, aretoko ate-

runtz joan zan; gero lantegian ibilli zan zerbaiten billa. Ixil-mixilka ari zan kantatzen barru artan, eta aopeko-ixil-kantuz inguratu zan berriz ere lur-jotako gorputzari. Jeringa txiki bat zekarren eskuan. Bigarren probaketa, bigarren jostaldiaren txanda zan orain.

Kantuari utzi zion agure birigarroak, eta urduri xamar irriño gaito bat egin zuen, Taylor'i lepotik zerbait sartzen ziolarik. Au egin ondoren, ari baten muturra lotu zuen ajentearen beatz batetik; beste muturra, alki batetik. Ez zekazean uts-egin iñola ere! Eta ez zuen egin.

Bertan-berako gorputz hura luzatzen asi zan emeki-emeki. Eztanda txiki batzuk entzun ziran aren barruan. Agurea txaloka asi zan. Egundanoiko garaipena! Andik miñutu batzutara, Taylor'en arpegia more-kolore batek artuta zegoen; berealaxe, orixta batek, gero arrosazurbil batek; eta onela, kolorerik gabeko kolore batzuk txandaka artuaz, zuritasun gabeko kolore zuri batera eldu zan. Aldi berean aundituaz joan zan gorputza, puztuaz, geroago ta aundiago ta puztuago. Asi zan polliki lur-gaiñetik aldentzen, urruntzen, eta aidean zintzilika egon zan. Barruko eztrandak bakanduaz eta txikituaz joan ziran eta gorputzak bere tankera osoa galdu zuen. Mamu eskerga artan ez zan nabaitzen giza-antzik: ez zangorik, ez besorik eta ez bururik. Begiak bakarrik, neurriz gaiñ zabalduak begi izugarri, kartoizko marama merke batenak ziruditen begi batzuek bakarrik, gogorazten zuten gizon baten nolabaiteko arpegiera. Tanto xuri-erraldoi aren gaiñean, or-emen, bixarraren ondakiñak agerian; eta lurrean sakabanaturik jantzien ondarrak, josturetan ler-egindako soñekoak.

Giza-zagiak sapaieruzko joera artua zuen, bere pixurik-ezak leunleunki goratu-azia. Alkiari lotutako ari-muturrak eusten zion, ez goraez bera, aidean esegita orekan bezela. Ariaren beste muturrean karetxa zirudien'adartxo bat agiri zan: noizpaiten beatza izandako zerbait.

Aguretxoa globoa askatu ta aretoan barrena ibiltzen asi zan saltoka, parre-santzoka, aur bat zirudiela, ondakin zabukalariari begira, ostopozoka ta lerre jario, pozez lertzeko urrean. Ikusgarri hura ez zan mundu ontakoa... Dante'ren Infernu'tik ateratako agerraldia bat baizik! Deadarka asi zan jakintsu zitala. Jakitera etorri intzan, ez al da? Ba, ba-dakik orain, bai nai baiño geiago jakin ere! Hi, hi, hi! Zer derizkiok?

Jostatzeaz aspertuta, terrazara irten zan. Aize bolada batek bulztatu zuen morroia izandako «hura» erlaitz baten kontra; gutxik egin zuen urratu ta puztu ez zanean. Ikaratu egin zan zaharra... ezpaitzan ori izango, berak jokuari eman nai zion bukaera. Beatz bat aboan sartu ta zurrupatu ondoren, goratu zuen, aizeak nundik jotzen zuen jakin nairik, itsas-gizonak egin oi duten moduan: ego-aizea. Begiratze

xamurra bota zion globoari. Gero asperenka, askatu zuen txorimaloa, mundura bialtzen zuen bere azkartasun-agiria, bere argitasunaren mezua...

Ajente izana goi-aldera abiatu zan, mantso-mantso, aundikiro, nausikiro; zalantzan egon zan apurtxo batez, nundik-norakoa jakin naiean nunbait. Bein bidea artuz gero, ajente ixillak bere misioe, bere elderik (1). nabarmenenari ekin zion... iparralderako bidea aukeratuta, urrunduz eta urrunduz joan zan, amilka ta gora-beraka, alik-eta puntutuz ikusi-eziñ egiñik, odei-ertzaren ostean zearo izkutatu zan arteraño...

R. BOZAS-URRUTIA.

1969-III-28

(1) Elde: aventura

M A R T X E L A

*Zumaya, Euskal-Erriaren zatitxo
politita, neure jayotzerria!
Zuri eskeitzen disu lantxo au.
Egilleak.*

Kale Nagusiko etxe batetik erten, askenengo etxeari buelta eman, Fuero'en Enparantza igaro, eta Ama Birjiña Errukiduna'ren kalean gora asi zan, ariñ xamar, kale au aldapa aundiduna izan arren.» Ez ttipi ez aundi, bai bien arteko, zan emakumea. Gorputz liraña, zerukoloreko begi aundiak —arpegi politt ura dana betetzen zutenak— sudur zuzen euskalduna, espain gorri, ao txiki... eta barruan ikusgarritzko ortz illarak, danak berdiñak, txikiak, elurra beziñ zuriak, euskaldun abendan gutxik izan oi dituzten bezelakoak. Illea, berez kixkurra —ez geyegi— eta gaztaña kolore argikoa. Beltzez jantzia zijoan, eskuan Meza liburua ta manteliña zeramazkiela. Begirakunea txit biguna zuan, begi urdiñ geyenak oi duten bezela, eta bere zera guztiak apaltasuna eta biguntasuna erakusten zituzten.

Gaur eguneko edonork ikusi ba'lu, alargun gaztetxoren bat zala uste izango zuan. Baña ez zan alarguna, emeretzi urtedun neskatxa bat baizik.

Eleizatik etxera zijoan, zortziretako Meza entzunda, eta Maria'ren Alaba'ren eleizkizunean jauna artuta. Augaitik zijoan beltza jantzita, denbora artako emakume euskaldunak (1911 garren urtea) oraingoan aldian, serioak eta elegantiak izanik, eleizara beltzez jantzita juaten ziran, eta plazara ta erromerietara soñeko argiakifñ. Nere irakurleak igerri dute noski neska gaztetxo au Martxela izango zala, eta ez det esan bearrik, aurkestu diet, izenik esan gabe ta.

* * *

Kalea bukatu zuanean eskerrerantz zegoan bide-zidor batetik sartu, ta beingoan zan Ama Birjiña Errukidun'en eleizatxoaren aurrean. Atea itxita zegoan, baña, erdi-erdian burnizko leiotoxo bat zuan, beti zabalik egon oi zana, eta andik ikusten zan Ama Birjiña'ren irudi politta, eta beti argitan egon zediñ, andik botatzen zituzten bidez zijoazenak txanpon batzuek. Ama Birjiña au oso maite dute Izustarritz'en jaiotakoak, mariñelak batez ere, «dakitelako nola dituan, gau illunean, ontzi gaxuak etxerantz zuzentzen, eta gizonak iruntzi nai dituzten olatu aundiak baretzen» aspaldiko abesti batek dion bezela.

Augaitik, ez egunez eta ez gabaz, ez da andik iñor igarotzen Berari «Agur Erregiña» bat biotz-biotzez esan gabe.

Atearen leiotoxoak, gañean, izki aundiakaz dio latiñez «Salve».

Martxela belaunikotu zan arrizko malletan, leiotoxetik begiratuaz otoitz egiñ zion Erruki'dun Amari, gonaren patrikaratik atera ta txakur aundi bat bota zun barrura, ta burua makurtu, ta «Agur Erregiña» esanda jexi zituan arri mallak, eta bere bideari ekin zion.

* * *

Ogei bat metro egiñ zituanean, pausoak entzun zitun bere atzean, eta burua jiratuaz batera, «Eup! Martxela!», deitu zion mutill gazte bat ikusi zuan elizaxoko atearen aurrean.

—Aaa! Joxe Antonio, i al intzan? erantzun zion Martxela'k bere abots bigunaz.

—Bai, itxaron, itxaron pixka bat, alkarrekiñ juango gaitun da, esan zun mutill gazteak. Eta txapela erantzi, «Agur Erregiña» abots sendoaz esan, bost arri mallak salto batean igaro, ta, beste bi saltogaz jarri zan Martxela'ren ondoan.

Au, mutillari begira gelditu zan, bere begi zoragarri ayekaz.

—Martxela: esan zion bat-batean, itzak askar erabilliaz.

—Irekiñ egon bearra nitxiukanan, eta orra nola alkar billatu diñagun nai baño ere obetoago.

—Nerekiñ egon bearra? Zertarako?

—Iri gauza bat esateko.

—Esan zak bada, mutill.

Biak era batera asi ziran juaten; Martxela bare-bare, baña Joxe Antonio urduri xamar.

—Biar soldautzara natxian.

—Jakiñen gañian natxiok, eta Aprika'ra erten dikala. Zori txarra izan dek, gizajo orrek!

—Eta ara juan baño len, gauza bat esan nai niñan.

—Mutill, len ere orixe ta bera esan diak, eta, esan zak bada.

—Ara, Martxela, urte betean gauza asko igarotzea izan leiken, da...

—Zerk pasatu bear dik bada?

—Gauza txarren bat.

—Ill egiñ bear al dek ba?

—Illtzea baño gauza txarragoa, milla bider txarragoa.

—Zer dek ba gauza ori?

—I, beste batekiñ... zu, beste batekiñ eskontzea ni soldautzan naizan bitartean. Eta aruntz juan baño len, auxe esan nai dizut... Martxela, nik zurekiñ eskondu nai neukela, eta ia zuk nerekiñ nai al dezun.

Bukatu zuanean arnas aundi bat artu zun, larogei kiloko arria bizkar gañetik bota ba'leu bezela.

Martxela, len aiñ bare zegoana, dana urduritu zan. Eskuan zekarren manteliña ta liburuari bueltak ematen asi zan, da, mutillari arpegira begiratzeko ausardi gabe esan zion:

—Benetan esaten al dirazu ori? Joxe Antonio.

—Bene-benetan, nere gogo ta biotz guztiz, Martxela. Beste iñori ez diot sekula onela itz egiñ. Neskaxa bati lagundu gabea naiz nere bizitzan, baña zure oroipena aspalditik neukan nere barruan.

—Ez nuan uste neretzat zengozanik. Ene! Arantzabal'ko seme gaztea Errekaxo'ko Martxel'entzat! Gu, pobreak gera, bai dakizu. Gure ama gaxoa, ogeita zortzi urtedun alargundua, iru ume txiki-rekiñ; neu zaarrena zazpi urtedun. Lana pranko eginda ta bear-izan ugari, ta naigabe aundiak pasata eldu gera oraiñ gauden mallara. Goiko Jauna'ri eskerrak zorrik ez degu, baña ez eta dirurik ere Errekaxo'n. Zure amak bai al daki zure asmo au?

—Ez. Ez eta zertan jakiñik ere, gaur gaur bezela beintzat. Bear dan sasioan esango zaio, ta bien bitartean, ni etorri artean ixillik euki bear degu. Zuk, esan zeure amari, Martxela, baña beste iñoriori ez. Martxela, eskontzeko itza ematen dirazu beraz?

—Emango ez dizut ba? Ondo pozik gañera, Joxe Antonio. Ez dakit nola azaldu nere barruan nabaitzen detan zoriona. Ez nuan uste onelako suerterik merezi nuanik. Au egun zoragarria!!

—Neu ere ondo pozik nua ba, eta oraiñ trankill izango naiz soldautzan. Idatziko dizut. Zuk ere bai neri, maite? (itz abek abotsa bigunduaz esan zizkion).

Martxela gaxoari, maite itza entzun zuanean, biotzak bira osoa eman zion, eta bi eskuak bularrera eraman bear izan zituan, biotzari bere lekuan eultzi aal izateko. Negarra begi ertzean zuelarik, esan zion:

—Juan bildur gabe, Joxe Antonio, itza eman dizut, eta itz bat besterik ez det.

—Neurekiñ erabiliko detan gauzatxo bat eman bear dirazu.

Zer eman nezakezu ba? Manteleñik ez dezu bear, Meza-libururik ere ez... eta liburua zabaldu zuanean agertu zan sudur-zarpitxo polita eskeñiaz esan zion: Ara, artu egidazu auxe, neure izena ere emen du, neuk eskolan egiña, jaietan bakarrik erabilltzen detana. Berri berria dago oraindik.

Joxe Antoniok artu zion sudur-zapitxoa, ta musu emanda kolkoan sartu zun. Eta bidekutzero eldu ziralarik, alkarri eskuak estutu eta —Agur, Martxela.—Agur Joxe Antonio, esanda aldendu ziran ba-koitzak bere bideari jarraituaz.

Joxe Antonio Arantzabal'erantz eta Martxela Errekatxo'rantz.

Pauso batzuek egiñ zituanean, Martxela bat-batean gelditu egiñ zan, baña bereala buelta egiñ, eta ariñ-ariñ Ama Birjiña Errukitsua'ren eleizatxorantz asi zan. Eldu zanean jarri zan belauniko ate aurreko arri mallan eta, atearen leyotxotik barrura begiratuaz esan zion Ama Birjiña'ri.—«Milla esker, Ama, milla esker.»

Zuk ekarri dirazu bada Arantzabal'ko Joxe Antonio senargaitzat, artu egidazuz nere biotzetik erteten duten eskerrik beroenak.» Au esanda zutindu, «Agur Erregiña» esan eta etxerako bideari ekiñ zion.

* * *

Ariñ-ariñ zijoan asieran, baña, pauso batzuek eman zituanean astiroago asi zan. Bere barruan, aiñ denbora gutxian nabaitu zuan aldakuntza aundiaz pentsatzen asi zan. Dana ikusten zuan ezberdiña lendik onera. Gauza guztiak edertasunez eta argiz inguratuak bezela ikusten zituan oraiñ bere irudimenak. Bizitza batez ere. Ene! Bizitza izango zan gauza zoragarria Joxe Antonio'kin!!! Bere ondoan soroan lana egiñ, berakiñ etxeratu, berakiñ eleizara igande ta jaietan, bere ondoan jan, bere ondoan egunez eta bere ondoan gabaz...

Bere arima salbatzeko ere (Martxela oso Jaungoiko zalea zan, eta gauza guztiak Berari buruz epaitzen zituan) Joxe Antonio zuan lagunik onena, berakiñ errazagoa izango zuan Zeruratzea ere... Eta An ere alkarrekiñ izango ziran... Au aldakuntza ain denbora gutxian! zion bere baitan. Gaur goizean ni ez nintzan ezer... «Errekatxo'ko Martxela baño... eta oraiñ eguerdia baño len... Ene!» Arantzabal'go Joxe Antonio'ren emazte gaiatu zoriona, Jesus! Jesus! Au zoriona!

Bere ikusmena ere aldatu egiñ zan edo... beintzat gauza danak len baño ikusgarriagoak epaitzen zitun. Itxasorantz begiratu eta dana zillar eta urre bizia. Gorantz begiratu eta dana urdiña. Eskerrerantz

begiratu eta... an bein Izustarritz bere eleiza romaniko ederrakiñ, etxe zuriz inguratua. Or-emen lorategi ederrak zugatz aundiakiñ ornituta. Baña nola zeikean Izustarritz aiñ erri politta izatea?

Izgora zan eta erri guztia urez inguratuta zegoan, alderdi batetik izan ezik. Arralde'n itxas-ontzi polittak, bertakoak edo urrutiko itxas-atietatik konpontzera bertara ekarriak, ez aundiak baña, bata bestea baño obeto pintatuak.

Ibai biak (Izustarritz'ek bi ibai ditu: Urola eta Larrondo izendunak) ur gezalez *plen-plen*. Eta gañean burnizko zubi ariñ, dotore, astunkeri gabeak, berrogei ta amar urte inguru lenago ingeniero prantzezak egiñak.

Ze txarmangarria iritzi zion Martxela'k egun artan bere erriari!

Eta mendiak? Ene mendi maiteak. Indamendi, Ametzmendi, Larramendi eta abar, danen gañetik Izarraitz aundia zutelarik. Au edertasuna!! Baña gauza abek aldatu egiñ al dira gaur? Ez al ditut bada nik, len ere, milla bider ikusi? Eta bide ertzeko sasi ta masusta loreak? Eta loretik-lorera zebiltzan tximilitak? Eta erlien durundi biguna? Ta txorien abesti ixilldu eziñak? Eta belarraren usai gozoa...? Lenengoz ikusi ba'zitun bezelaxe lilluratua zegon Martxela.

—Gauza abek aldatu egiñ bear izan dute —zion neskatxak bere baitan.

Ez, Martxela, ezer ez da aldatu. Zeu aldatu zera, zeure barruan sortu dalako garrastasun guziak gozatu, aldapa danak lautu, neke guztiak ariñdu, eziñ guztiak ezereztu, urruti danak urreratu, ta gauza saill guztiak erraztutzen dituan indar Jaungoiko'tarra: MAITETASUNA.

* * *

Poza zeriola eldu zan Martxela «Errekatxo»'ra. Ama atarian bilitatu zuan. Beste aizpa biak —Anjelatxo ta Kontxexi— bespera illuntzean ekarri ezinda, zelaian gelditu zan belarra ekartzera juanak.

—Ama, zatoz sukaldera, gauza bat esan dagizudan. Ez dakizu asko zer pasa zaidan. Eskontzeko mandatua egiñ didate eta itzak eman ditut.

Ama dana ezeztatuta, alabari begira-begira jarri zan, burutik egiñ ote zuan edo zalantzan sarturik. Pixka bat bere gogoaz jabetu zanean esan zion:

—Zer esaten den, ume, zer eskontzako mandatu, ta zer itzak emate?

—Bai, ama, senargaia bai det, eta ez nolanaikoa, Arantzabal'go Joxe Antonio. Eta Martxela'k azaldu zion amari zer eta nola guztiaz, Joxe Antonio'k eta biak izan zuten alkarbillatzea, ark esan ziz-

kion itzak, berak erantzun zizkionak, eta alkarri emandako eskontzeko itzak.

Ama, dana txundituta zegon, alabak beziñ gutxi itxaroten bai zun alako zorionik bere umientzat, eta biak iritzi batera jo zuten: Jaungoikoa'ren mesede aundi bat zala senargai ura, mutill on utsa, langille porrukatua, eta gañera... Arantzabal'go semea —Bai, ama —zion Martxela'k—, Aita Egaña'k esan zigun sermoi batean, ez ibiltzeko geu mutillen atzetik, eskondu nai zuan neskatxa onari, Jaungoikoa'k ez ziola senargairik ukatuko ta. Nik beintzat, sekula ez nuan pentsatuko orrelako mutillik neretzat zegoanik.

* * *

Esanda bezela, Joxe Antonio urrengo egunean jun zan soldautzara. Izustarriz'ko geltokian sartu ziran beste mutill batzuek ere. Gañera trenan beterik zetorren. Ferrol'era, gerrako barkura zijoazenak ziran geienak. Kantuan zetozen, aspaldiko esaera egiztuaz: «Euskaldun bat bakarra, burnitegia, bi euskaldun, pelota partidua, iru euskaldun, orfeoia.»

Trena asi zanean ekiñ zioten berriz ere kantuari, eta entzungarri abestu zuten Euskal-Erritik lenengo soldaduak eraman zituztenean ateratako abesti ukigarri au (1).

*«Adio, eta oraiñ banua
Barku berrian soldadu,
Barku berrian soldadu eta
Amaren ume sobratu,
Adio, eta oraiñ banua.
Au despedaren tristia,
Iltzen ez ba'naiz
Etorriko naiz
Adio nere maitia.»*

Une artan Izustarriz eta inguruetako auzune polittetan (Artadi, Askisu, Oikia eta abar) neskatxa bat baño geiago egongo zan negarez abesti ori oroituta.

Joxe Antonio ez zan berez saratatsu ta orroatsua, baña, berak

(1) Euskal-Erritik lenengo mutillak soldadu eraman zituztenean, izugarria izan zan euskaldunen biotz eta ariman soldadutzako lege ark egiñ zuan arrada eta utzi zuan marka. Izustarrizko Udala'k soldadu eraman bear zituzten erriko seme guztiak, Udala'k berak ordainduta libratzea erabaki zun. Baita urte batzuetan erabaki au bete ere. Baña... gero eziñ!

ere artu zuan parte orfeoian, kantatzeko baño Martxela'tzaz pentsatzeko gogo geiago zuan arren.

* * *

Illa-beten-bat igaro zan Martxele'n eskuetara lenengo eskutitza etorri zanerako. Oso itun (triste) zegoan Arantzabal'go semea lur legor, bero, aietan. Zugatz gabeko mendiak, belar gabeko zelaiak, ur gabeko errekek (obeto esanda erreken lekuak). Ez euririk, ez lanbrorik, ez lañorik, ez ipar aizerik, ez itxasorik. Eta edateko ura eskas, eta beroa. Dana autsa, dana eltxoa, eta eguzkia beti bazter guztiak kixkaltzen. Onelako lekurik munduan egon bear zuenik ere! Ai gure Euskal-Erri eder maitea!! Azkenian idazten zion:

«Zure gauza politt bat
Or det nerekiñ.
Eskribiturik dago
Letra birekiñ.
M. ta E. dira.
Beti nago berari begira,
Ain dira fiñak,
Maitetxo politta zuk egiñak
Sedaz ederki.
Kolkuan gorderik
Dauzkat beti.
Kolkuan gorderik
Dauzkat beti.»

(Martxela'k emandako sudur-zapitxoeren oroipena zan bertso au.)
Beste eskutitz batean esaten zion:

«Lengo arrats batean
Egiñ det amets.
Nere pentsamentuak
Beti aldrebes
Irteten dira.
Ustez nengoan zuri begira
Maite politta,
Kopriaren gañian jarrita
Kontu kontari.
Nai nuen bañon
Ez nintzan ari.
Nai nuen bañon
Ez nintzan ari.»

Onelako samurtasunez beteak izaten ziran Joxe Antonio'n kartak. Martxela'k artzen zituanean, bere burua nun-edo-an eskutatu eta milla bider irakurtzen zitun. Gero, lengoa, manteliña ta Meza liburua zeuskan kajatxoan gorde ta berria bularrean gordetzen zuan, noizean-beiñ atera ta iñork ikusten ez zuanean irakurteko. Lotsatu egiñgo zan iñoren aurrean bere Joxe Antonio'ren eskutitzak irakurtzen, baita ere senargaiatzaz itz egiten. Gauza abek aiñ ziran errespetagarriak, ixillekoak eta biotzaren erdian ondo gordeta eukitze-koak!! Antxe zeuden ondo, maitetasunaren epelan, eta ez kanpoan, atariko aizeak, ara ta onera eramane eta ekarriaz eta zabalduaz. Beuren maitetasunaren berri ez zuekan iñork zer jakiñik. Jaungoikoa'k, Joxe Antonio'k eta berak bakar bakarrik.

Joxe Antonio'n andregaia zan egunetik ez zan geiago igandeetan plazara jua. Zertara? Bere barruan zuan, maitetasunak betetzen zion bizi osoa. Beretzat ez zegoan ez ikuskizunik, ez musika entzun bearrik, ez erromerietara jua bearrik, ez dantzan egiñ bearrik. Alaitasun eta pozgarri denak bere baitan zituan, Joxe Antonio'k eta biak alkar maite zutenetik.

* * *

Arantzabal'go etxekoandreak, susmatu zuan nundik edo andik bere seme ta Martxela'ren arteko maitetasuna, eta ez zitzaion ondo iruditu ez gutxiago ere.

Emakume artoa zan eta diru zalea, ta «Errekatxo»'ko alaba diruz neurtuta, oso despreziagarria epaitu zuan:

—A zer gauza! —esaten omen zun «Errekatxo»'koak jakingo zuten lekuetan. Moja dijoan itxuran ibilli ta barruan mamorrua. Ez du gutxi uste Arantzabal'go semiakiñ eskonduko dala uste ba'du!! *Zorralorra* besterik ez dagon etxera, ez dijoa nere semerik. Ez orixe! Ederki eman ere! Pentsatzia ere ez dute gutxi egiñ zorristuok, alakuok!

Martxela maite zutenak erantzuten ba'zioten «Errekatxo»'n ez zegoala *zorrik* —eta— *lorrik*, «Errekatxo»'ko familia ez zala *zorristuak* itz itxusi ori beurakaitik esateko modukoa, eta neskatzak, pobrea izatea beste akatsik ez zuela, esaten omen zun:

—Zorrik ez ba'dauke obe, nere semeak eramandako diruakaz ez dituzte beñepen pagatuko ta. Neskatzak orrekiñ eskontzea erraz kenduko diogu burutik Joxe Antonio'ri, eta kentzen ez ba'zaio «ainbat okerrago». «Soñean soñekoakin» ertengo du Arantzabal'go atzeko atetik, ardi bat bera ere, guk emanda ez du izango ta.

Gauza abek jakitean, «Errekatxo»'ko familia txit ituntzen (tristetzen) zan. Gutxiotarako al zan bada?

Martxela'k, Joxe Antonio kenduko zioten bildurrik ez zeukan, baña Izustarritz'ko baserri guztietan «aoan eta mingaŕean» ibilli bearrak naigabetzen zuan. Eta ez gutxiago bere ama gaxoak ixillik zera-mazkian penak.

Onek esaten zion batzuetan:

—Ai Martxela, biotzak esaten zidan gero ere andre orrekiñ ez denala pakerik izango. Arrua den ba, eta ez diñ barkatuko bere semia i bezelako neska pobre batekin eskontzerik. Gure Jaungoikoa ere pobria izan unan eta pobriak zituala maite esaten diñ Erretore jaunak, baña Arantzabal'ko etxekoandreak, gu beziñ sarri edo sarriago eleizara juan arren ez diñ orrelakorik ikasi. Ai bada! *pobriak usai txarra nonbait...*

Goiz batean, Martxela'k jaiki beziñ laister esan zion amari:

—Ama, bart gauza bat pentsatu det. Diru pixka bat irabaztera erten bearrean naiz. Zorrik ez daukagu, egia da. Datorren urteko etxe errenta ere prest daukagu Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxan, baña etxeko puskak beia jota daukagu, andre alargun batek egitekolañ eta geiago egiñ dezun arren. Gezalaga'ko Bañu Etxean sartu al izango ba'nintz, datorren udaran, an irabazitako diruakaz egiñgo ginduzke nere arriorako erropa zuria, koltxoi berri bat eta ontzi batzuek. Ama, eta oe estalduari zer egingo diogu?

«Oe estalia» onen istorioa esan bearrean naiz. Martxela'ren berramama (bisabuela) bat, Errekatxo'ko Jabiela Iñaxi, Andaluzia'n iñude izandua zan, Duque de Tarifa'ren seme zaarrena azitzen. Jabiela Iñaxi au, Duketxoak iru illabete zituanean eraman zuten, eta bostgarren iñudea omen zan.

Eta aurra aiñ erkiña ta exkaxa ikusi zuanean esan omen zun:

—Nik aur au aziko det, baña, laga gero neri pakean, sendagillerik eta orrelako pesterik ekarri gabe. Gaxotzen ba'zait eta neuk eziñ sendatu ba'det, neuk esango det, eta orduan ekarriko da sendagillea. Aur onek len ere botikak ugariago artu ditu bular ederra baño ta. Gose atzeratuak dauzka onek, gixaxo onek, ez beste gaitzik. Konporme ez baldiñ ba'daude, esan oraintxe, eta ni, eraman atzera ekarri nauten bideetatik Donosti'ra. Andik «Errekatxo»'rakoak oñez egingo ditut eta.

Konformatu ziran Dukeak, iñude euskaldunen *ultimatum* onekiñ eta bai Jabiela Iñaxi'k Duketxo galanta ta ederra azi ere. Urte bi egiñ zituan Duke Tarifa'ren etxean, erderaz tautik ere ikasi gabe (interpreteak nai aña zituan, neskameen artean batez ere) eta etxeratu zanean, iñudetza ondo pagatu bai'zioten ere, milla errial eskupekoa, eta berak erabili zuan oea eman zizkioten.

Oe au oso ederra zan, latoizkoa (de latón) eta buru aldean, Ma-

drid'eko Prado Museo'an dagon «El rapto de Europa» kuadroa ederk
ki egiña.

Oe au, irugarren belaunera etorrira zegoan eta «Errekatxo»'n
iñork ez zion batere meritorik eman oi, egun batean Izuztarritz'ko
kanpotar bat aurkeztu zitzaioen arte. (Izuztarritz'en udara pasatzera
ta bañuak artzera datozenari kanpotarrak esaten diote.)

—Osagille jaunak esan dit oe ederren bat omen dezutela ta,
orixe ikustera nator erakutsi nai ba'dirazute beintzat.

—Bai, jauna, gure amamak iñudetzatik ekarria —erantzun zion
Patxika'k.—Oso gauza bakanak dauzka buru aldean. Zezen lodi eder
bat, bere bizkarrean emakume gazte eder bat narru-gorrian, itxaso-
tik zear daramala. Guk ez dakigu zer Santu diran, baña gure ama-
mak jakin zezakean.

Kanpotarrak, erosiko ziola esan zion baña Patxika'k ezetz ba,
bere amamarena zala ta, an ondo zegoala ta, oe ark ez zuala ogirik
eskatzan da, Ezetz.

Baña, Martxela'ren aita gaxotu zanean, izan ziran ixtilluak oe
ura zala ta «Errekatxo»'n.

Sendagilleak Eleizakoak emateko agindu zuanean, etorri zan don
Prudentzio Urdanpilleta apaiz jauna. Goierri'ko semea zan izatez, oso
itz gutxikoa, jakintsu pamaduna eta iñorekiñ artu-eman gutxikoa.

Gaxoaren gelan sartu zanean, urreratu zan oearen buru aldera,
ta leioa ireketzeko agindu zun. Da, orroa batean asi:

—Nundik ekarrita daukazute oe au? Inpernutik gutxienez. Baña,
Euskal-Erriko baserri batean oe au? Emen lo egiten duana oben as-
tunean dago.

Nik, eziñ ekarri nezake onera Eleizakorik. Ez eta neu gela one-
tan egon ere. Atera gaxo au emendik beste gela batera.

Patxika gaxua dana ezestatuta zegoan, zer egiñ, ez, zer erantzun
ez zekiala, baña auzorik urreneko Matista'k erantzun zion:

—Don Prudentzio, gizon au oso gaizki dago, arnasa-arnasari ean-
tsi eziñik, berorrek ikusten duan bezela, birika bietako pulmonia
dauka, eta, nola asiko gera ba gizon au beste oe batera eramaten?
Oztu egingo zaigu eta orduz len ill. Bota bezaio berorrek konjuro
bat, inpernukoak iges egiñ dezaten, eta gero, izare bategaz estaltzea,
ez al litzake berdiñ izango, gaxoaren gora-bera ikusi artean?

Don Prudentzio'k konjurua egiteko libururik ez zun berekiñ eka-
rri, baña, gizona aiñ gaizki ikusiaz (bera gelan sartu zanetik ere ez
zan gutxi gaizkitu) konpormatu zan izare bategaz oe burua estali ta
gizon gixajua aitortzera (konpesatzera).

Ogei ta lau ordu baño len ill zan Patxika'ren senar gizajoa, bi
alaba ta emaztea aurdun utzita, eta arrezkero, berramamak iñude-

tzatik ekarritako oe aura, buru aldea izare bategaz estalduta euki oi zuten, eta «oe estalia» esan oi zioten.

—Etxia zurituko degu, eta iñoren lotsagarri ez gutxiago ez gera aurkituko. Igazko udaran, milla bana errial (orduko pobreentzat millara eltzen ziran numeroak txit aundiak ziran) irabazi omen zituzten neskameak, eta jendea jua da etxea garbitzen da jasotzen gelditu ziranak bakoitzak irurogei duro.

Lan asko egiñ bear izaten omen dute neskameak. Goizeko bostetatik gabeko amabiak arte oñen gañean, gelditu gabe, batzuek gaxotu ere egiten omen dira, baña, irabazi ere ala egiten dute, ama, iru illabetean dirutza ori. (Gertaera abek 1911g. ziran.)

Zuek, ni gabe ere aal dezuten moduan egiño dituzute udako lanak. Zeure burua urkatzen ez ibilli, ama, guretzat Arantzabal'go etxeoandrea baño aundiagoa zera, eta irurok eziñ geiagoan maite zaitugu. Augaitik, ez degu nai zu gaxotzerik. Gañera, iltzeko egun bat ez zaigu paltako, ta «gu ildakoan ere astoak errotara juango dira» esaera dan bezela.

* * *

—I, Martxela; 48 garren gelako jaun orrek ez diñ gutxi begiratu gaur, eskillarako alponbra garbitzen jardun denanean —esan zion Gezalaga'ko beste neskame batek Martxela'ri. Eta Martxela'k erantzun zion:

—Begiratzea ziukan nai ba'du.

—Beste egun batzuetan ere erreparatu zionat nik, iri nola begiraten diñan, jantoki aunditik igarotzen aizanean, bera gosaltzen ari dan bitartean. Ire atzetik juaten zizkion begi biak.

—Ainbat okerrago beretzat, begi gabe gelditzen ba'den —esan, eta bere lanari jarraitu zion gogoz, aditzera emanaz, ez zitzaiola batiere atsegiñ solas ari jarraitzea. (Irakurleak igerriko zuan lez, Martxela, Gezalaga'ko Bañuetxean neskame zan.)

* * *

Berrogeita zortzigarren gelako jauna, irurogei urte inguruko gizon aberats bat zan. Esukalduna, Gipuzkoa'ko semea, Mexico'n aberastua. Bere urtietarako, oraindik gizon gordiña, kalbogabea, egokia, patxarazkoa, oso ondo jantzia, ta urrezko erloju, katez ta erastunez ongi ornitua. Ez zirudian, bere gazte denboran, osasuna ta bizia leiotik bera botatzen ibillia zanik. Gezalaga'ko bezeroa zan; bost urte aietan beti etorritakoa amabost egun egitera, baña aurten, illabete igaro zuan arrenan zegoan oraindik. Don Juan Tomas de Irigo-

yen izena zuan, eta Gezalaga'ko beste uredale (agüistas) zuzendari, sendagilleak eta abar itzal aundiz agurtzen zuten. Bakarrik ibiltzen zan, beti Ipar-Amerika'ko ta Mexico'ko izparingiak irakurten. Esku-titz eta paper asko etortzen zitzaizkion. Arratzaldietan bere gelan egon oi zan idazten illuntzerarte, ta goizean-goizean karta pilloa eramaten zuan Bañu-Etxeko Estafeta'ra. Gauza guztiak ordu berdiñetan egiten zituan. Oso eratsu edo metodikoa zan. Eta mutill-zarra. Donosti'ko Hotel Ezkurra'n bizi zan azkenengo sei urte aietan.

* * *

Martxela'k, osasunez igaro zuan Gezalaga'ko Bañu-Etxean udara. Lana pranko eginda, baña pozik, bere amari eramateko diru pillua irabazi zualako. La Fontaine'ren esnesaltzalleak baño ames ederra-goakin betea zeraman irudimena. Erosiko zuan bere arriorako erropa zuria, ta, neguko gau luzeetan, ari gorri ta urdiñaz egingo zizkion letrak: A. E. Aldalur-Egurbide.—Ni eskontzean —pentzatzen zuan Martxela'k— gure amak izango du deskantsua. Indar berri aundia etorriko baita «Errekatxo»'ra! Joxe Antonio langille purrukata da. Arantzabal'go mayorazkoa ez bezelakoa. «Errekatxo»'k egiñ bear du buelta!! Lau bei erraz izango ditugu. Orain bi baño axago. Gañera nik, Izustarritz'eko plazatik egunero-egunero zazpi edo zortzi peseta ekarri eziñik ez daukat (irakurle, ez irriparrrik egiñ, gauza abek 1912 garrenekoak dira) Anjelatxo ta Kontxexi'rekiñ ere oroitzen zan. Aizpatxo maiteak!! Kontxexi, aitag ezagutu gabea, jaio baño lenagotik umezurtza!! Eta Anjelatxo, bera Gezalaga'n izan zan bitartean ainbeste lan egindakoa! Bientzat pentsatu zuan saria: Kontxexi urte betean eskolara bialduko zuten arratsaldeetan, eta Anjelatxo josten ikastera.

* * *

Abenduaren 8 garren eguna zan. Izustarritz'en eleiz puntzio ederrak egiten ziran (eta egiten diran) eguna. Batez ere, Maria'ren Alabak arratsaldean egin oi zuten ibilldeuna (prozezioa) ikusgarria izaten zan.

Loyola'ko Aita Egibar'ek egin zuan sermoi ederra bukatu zanean, zabaldu zuan sakristauak ate nagusia, eta asi zan jendea erteten, gizonak lenengo, gero Maria'en Alabak, eta erdiko gradan beera, neskaxa illara biren erdian, «Errekatxo»'ko Martxela, Amabirjiña'ren ikurriñ (estandarte) urdiñ-zuria zuzen eramanez.

Nere irakurleak ezagutu zuten egunean zeraman soñeko beltza

bera zuan soñean. Organoak (Izuztarriz'en oso organo ederra dute, Paris'tik ekarria) indar aundiakiñ asi zuanean abesti eder au:

*«Euskal-Erriko
Gazte zintzoak,
Atozte danok batera.
Amabirjiña
Sortzez garbiak,
Deitzen digu gaur
Bere aldera...»*

Martxela bere ikurriñakiñ, ate nagusien erdi-erdian zan; laister, Matxixtako lurmuturrean eskutatu bear zuan eguzkiak bialtzen zitun «diamantezko printzak» arpegi-arpegian artzen zitularik.

—Joxe Antonio'k ikusiko ba'nindu —zion bere baitan.

Joxe Antonio urruti zegon eta eziñ ikusi zezakean, baña, beste pertsona batek ikusi zuan, eta Joxe Antonio'ri egingo zion beziñ arrara aundia eragiñ zion biotzean Martxela'ren arpegi Zerutarrak.

* * *

Andik egun bira, Patxika, «Errekatxo»'ko alargunari, baserriaren jabeak idatzi zion, esanaz berakiñ itz egiñ bearra zuala, eta eskertuko liokela ainbat axkarren etorriko ba'litz bere etxera.

Lau emakumeak izutu ziran, dei aura gauza txarren baterako izango zalakoan: Etxeko errenta jasotzeko, edo lurren bat kentzeko, edota zuten mendi bakarrean piñua aldatu bear zuala esateko, edo... gauza onik ez beintzat!

Urrengo goizean juan zan Errekatxo'ko Patxika Azkoiti'ra, bere nagusiena, beltz-beltzez jantzita (euskaldun andre alargunak beren bizi guztian ibilli oi ziran bezela) otarra beltxian dozena bi arrautza zeramazkiela.

Nagusi jaunak oso ondo artu zun, iñoiz baño obetoago, eta esan zion, guztiz berri ona emateko deitu ziola. Bere adizkide ona zan don Juan Tomás de Irigoyen jaunak, Martxela'kiñ ezkondu nai zukeala, eta bera (nagusia) ipiñi zuala bitartekotzat. Esan zizkion guk, don Juan Tomas'etzaz dazkigun gauza danak eta geiago ere. «Errekatxo» erosi nai zuala Patxika'entzat; Martxela'ri ezkondu aurretik egiñgo ziola ogei milla duroren donazioa, ta Anjelatxo ta Kontxexi'ri bakoitzari amarna milla durokoa. Eta azkenez esan zion: «Oso gizon ona da ta aberatsa, eta oraiñ arte ezkondu gabe egon ba'da, ez uste izan, asko bezelako gonazale, andre batekiñ'bakarrik ase eziñ diran oietakoa izan dalako, danik. México'ko bere negozioaren lanetan,

buruko tximetaraño sartuta egon dalako baizik. Azukare ola aundi bat du an, eta oraiñ arte ez du izan astirik eskontzan pentzatzeko.

Patxika'k amesetan ari zala uste zun. Izan aal zitekean mundu onetan (berak ainbeste supritu bear izan zuan mundu gaizto onetan) beretzat eta bere alaba guztientzat alako gauzik? «Errekatxo»'ren jabea bera, Patxika? Eta bere iru alabak diruz josiak? «Arantzabal»'darrak baño ondotoxo aberatsagoak? Nun gelditu ber zuten ango etxeoandarearen arroputzkeriak? Baña... Azkoiti'n al zegon bera, ala «Errekatxo»'n amesetan? Ez, «Errekatxo»'tik goizean-goiz ertenda Azkoiti'ra etorri zan. Ez zegon beraz amesetan, esna baizik. Baña...

Bere pentsamentu ta gogoaren jabe egiñ zanean astiro-astiro, arnas luze bat artuta erantzun zion:

—Nagusi jauna, gauza oyek danak, guri tokatzen zaizkigunak baño aundiagoak dira. Aundiegiak guretzat! Martxela eskontzeko itzak emanda dago. Arantzabal'go seme gaztea du senargaia, ta, soldautzatik etortzean eskontzekotan dira.

Nagusiak orduan esan zion, orrelako zoria beñ baño geiagotan ez dala izaten bizitza guztian, eta ez zala orrela utzitzekoa, eta gañera alabak zer esaten zuan jakiñ bear zala. Danen onerako izango litzakeala Martxela don Juan Tomas'ekiñ eskontzea. Gipuzkoa osoan ez zegoala neskatzik, arras aberatsa izan arren, jaun orreri ezetz esango liokenik, eta... ortik gora!! Nagusi jaunak, Errekatxo'kiñ diru gutxi artzen zun. Urtean milla errial. Eta diru mordo ederrean saldu lezakion bere adizkideari. Erraz gañera. Irurogei urte inguruan sortu dan maitetasunak, zer muga izango ditu bada? Beretzat ere ondo zetorren Martxel'en eskontza. Ez zebillen, beraz, Patxika'ren onagaitik bakarrik.)

* * *

Egun artatik asi ziran Martxela ta Joxe Antonio'ren naigabeak. Eta ez nolanaikoak, sakonak, garratzak, eta eziñ aundiagoak.

*«Maitetasunen penak
Bertso berrietan,
Zabaldu al ba'nitza
Euskal-Errietan.»*

Amaikatxo bider, etxe osteko errekatxoan, lixiba jotzen ari zanean, abotz ederrakiñ kantatzen zituan bertso oiek eziñ zitun burutik kendu.

Bera bai zegoan oraiñ bertsuen barru-barruan sartua!!
Martxela'k, lenengoz sendo erantzun zuan: Eskerrik asko baña

ezetz. Berak itz bat bakarra zuala eta au Joxe Antonio'ri emana, eta ez zijuala munduko ondasun guztiakaitik ere, bere itzik jatera.

Amak esaten zion:

—Martxela: euk nai denana egiñ zan, euk ezkondu bear den, da. Baña nik askotan pentsatu diñat, i, jaun orrekiñ eskonduta danok aiñ ondo izango giñakeala! Kontxexi gaxua amar milla duroren jabe. Ez den alajaiña auntzen gaberdiko estula!! Eta Anjelatxo, juan dan udaran, nerekiñ batean ainbeste lan egiñ duan ume ona, berdiñ. Nor señoritak ziuzkan bada Izuztarritz'en amar milla duro? I, berriz, Izuztarritz'eko señora aberats danak alkar jota baño aberatsagoa. Eta gañera (esaten dituzten danak egik ba'dira beintzat) aiñ dala gizon ona jaun ori!! Iñoiz uste izaten diñat, eure aita zanak Zerutik egiñ-dako gauza dala ere. Eta nolako pozik ikusiko leukela dagoan Leku-tik (Zerutik alegia) bere emazte gaxoa ta bere iru aurrak, ainbeste arrastaka egiñ da gero, aiñ ondo izatea. Baña, ez zaigun komeniko nunbait. Beti beartsu izateko sortuak izango gaitun, eta zer egiño diñagu bada!!

Patxika'k bere konformidadea erakusten zuan itzez, baña beti negarrak erteten zion Martxela'kiñ gauza abek esaten zituanean. Eta Martxela'ri ere bai. Martxela'ri negarrak erteten zion bere ama ta aizpatxoen zori ona galerazten zualako. Eta amak berriz, ez beragaitik, bere iru umeak galtzen zutenagaitik baizik.

Egun batean ordea Patxika gaxoari biotzak leer egiñ zion nonbait, eta negarrari eman zion garratz, zotiñga, iñoiz ez bezela, ixiltze-ko egiten zituan alegiñ guztiak alperrikakoak ziralarik.

Noiz ikusi zuan Martxela'k, bere ama ala negarrez? Ai, bai, aita zana ill zanean. Gogoan zeukan zazpi urte zituan arren, bere amaren ezekuzioa egun triste aietan. Orduan eziñ zezakion ezer egiñ aita ill egiñ zan da, baña oraiñ, ez al zeukan bada bere eskuan bere ama onaren malkoak legortzea? Bi itz aski zitun... Bai, itz bi. Baña itz bi aien ondoren bere biotza, berak, bere naiaz, biur-biur egitea zetorren. Bi itz aiek, bere biotzak Joxe Antonio'ri zion maitetasun garbi ederra, berak, Martxela'k, bere eskus itto bearra zekarten. Erruki'dun Amabirjiña maitea, lagun egidazu! Arren, lagun zakidaz!!

Martxela gaxoari indar guztiak eta erabaki sendo danak iges egiñ zioten, ama ala ikustean, eta bere tinkotasun osoak, bat-batean beia jo zuan. Miñutu bat naikoa izan zun bere bizitzako asmorik garrantzitsuena artzeko, eta ama besarkatuaz onela esan zion:

—Ama; ez geiago negarrik. Zu bezelako ama bati orrenbeste negar eragindako eskontza ere, bai leike onena ez izatea, gure gañera Jaungoikoa'ren bedeinkazioak erakartzeko. Zeure naia egitera noa. Jaungoikoa'k daki ez naizala diruagaitik aldatzen, zeuri oñaze geiago

ez emategaitik baizik, eta Bere esku argitsueta utzitzen det danon zoriona; gurea eta Joxe Antonio'na.

Eta amak negarrez ikusi ez zezan, burua beste aldera jiratu eta baratzarantz erten zan.

* * *

Martxela errukarriak gau artan ez zuan begirik itxi. Gaxuak negar ugari egiñ zun bere biotzeko maitetasun samurrari agur egiñ eziñik. Bere pentsamentua, jira-ta-bira beti gauza batera zijoakion eta burutik eziñ uxatu zuan biotza erdibitzen zion abesti auxe:

«Nik eziñ bestegana

Izan amodio.

Ai nere biotzeko

Joxe Antonio!»

* * *

Joxe Antonio ta beste lagunak, urte bete Aprika'n egiñ zutenean biali zituzten Ezpaña'ra, ta don Juan Tomás jaunak jakiñ beziñ laister, oso era onean gaztigatu zion, berakiñ itz egiñ nai leukeala, eta asko eskertuko ziokela, Hotel Ezkurra'ra etorriko ba'litz, berari ondoen zetorkion egun batean. Bestela berriz, Joxe Antonio'k izentatzen zuen lekura, bera, don Juan Tomás, juango zala nai zuanean.

Joxe Antonio'k igerri zuan, eskabide au zertarako izango zan, da batere jaramonik ez egitea pentsatu zuan lenengotan. Baña geroago esan zun bere baitan:

—Juaten ba'naiz, asiera ona erakutsiko det, eta gizon zaar bati zor zaion itzala. Gañera nik ez daukat zertan lotsaturik jaun orrekiñ itz egiteko.

Urrengo goizean, *esan da egiñ*, juan zan Donosti'ra, ta Hotel Ezkurra'n galdetu zun don Juan Tomás jaunatzaz.

Onek, txit ondo artu zuan, eta oso ondo itz egiñ zion. Asko alegindu zan berakiñ batean bazkaldu zezan, baña gure mutillak ez zun nai izan. Astiro ta patxaraz entzun zituanen don Juan Tomas'ek esan zizkionak onela erantzun zion Joxe Antonio'k:

—Eskerrik asko, jauna, ni, nere pobrezan etxejauntzako semea naiz. Arantzabal geurea degu, eta ez du zertan guretzat erosi. Amerike'tara juateko gogorik sekula ez det izan. An dauden berorren mendekoak, ondo artuko nindukeala? Diru asko irabaziko neukeala? Eta zertarako det bada nik dirua Martxela'entzat izan ezik? Berorrek

eskeiñtzen dizkidan diruak eziñ artu nitekez. Ori izango litzake Martxela neuk saltzea, eta *Ez dago munduan dirurik Martxela pagatu ahal izatekorik*. Orain, berak nerekiñ baño berorrekiñ naiago ba'du (desesperazioa adieraziaz), nik eziñ ezer egiñ!! Gaur baño lenagoko ber-soak dio.

*«Nik maitetxo bat
Bakarra izanik
Aura bestek
Eraman dit.
Ez nuke penik.
Izango ba'litz
Nerekin bañon obeki.»*

Don Juan Tomás arrituta gelditu zan Joxe Antonio'ren zentzun ona ikusirik. Eta *nola-edoala* eskertu nairik, kaleko atera eldu zira-nean, esku biak artuta esan zion:

—Egunen batean ezagutuko dezu, zeñ ondo jokatu dezun gaur. Eta ez zera damutuko.

* * *

Joxe Antonio, burua goitik zuala erten zan Hotel Ezkurra'tik, baña Amara'ko geltokira eldu zanerako igo zitzaion biotzetik burura euskal abesti triste au:

*«Adio, ene maitia,
Adio sekulako.»*

Eta burnizko mallu bategaz buruan joko bai'zeukean bezela, miñ ematen zion.

Etixeratu zanerako, buruko miñez egon eziñ, da oeratu egiñ bear izan zuan.

* * *

Martxela Dn. Juan Tomas'ekiñ eskondu zan eguna, ederra ta argitsua izan zan arren, ez zion gaixoak ez edertasunik ez alaitasunik ezer eri aurkitu. Bere gogoia beziñ tristiak epaitzen zituan gauza guztiak. Len, bere biotzean, argi eder bat beti pixtua zeukan, eta orain argi disdiratsu aura itzali zan betiko. Baña Martxela Jaungoiko'ia zan, lenago esan degun bezela, ta, bere biotzak gogor eskatzen zion maitetasuna (Joxe Antonio'na alegia) erruki gabe bere gogoari

ukatuaz, senarrentzat emazte akats gabea eta zintzoa izateko erabakia Jaungoikoa'ren aurrean egun artan artu zuan. Eta baita bete ere. Joxe Antonio'ren oroimenari ez zion iñoiz lekurik eman, eta bere senarrari maitetasun fiña, leiala ta iraunkorra erakutsi zion beti.

Onek ez zuan besterik eskatzen. Martxela'ren begiakaz ikusten zuan. Ume aiñ politt eta ausikor aura berea zala, ta beti esku-urrean zeukala ikusteak, zorionez betetzen zun. Eta iñork bere aurrean, esaten ba zuan:

—Zuk egiñ dezu suertia, Martxela, ariñ erantzuten zuan:

—Suertia nik egiñ det.

«Maitena» euskal operan, Ganitx'ek bere emazteari abestutzen dion:

*«Bizi eztiya ezagutu dut
Maitia, zure ondoan.»*

sarritan kantatzen zion Martxela'ri.

Hotel Ezkurra'n jarraitu zuten, baña Gezalaga'ko Bañu-Etxera ez ziran juaten, Vichy'ra baizik. Ez bai zun nai Martxela'k, len bere lankide ziran neskameen aurrera aiñ aberats eta aiñ *señoratua* azaldu. Apala ta ona zan, gaixoa, eta onek ematen zion:

*«Zuk duzun txarma ukigarriak
Nundik du botere hori?
Gorputz-arimak
Egiñ-asteko
Bortxaz zure serbitzari?»*

(«Maitena» Opera'n Ganitx'ek emazteari kantatzen dion abestia-
ren zatia.)

Laburdi'n entzuna det esaera au: «emaztearentzat boterea baino txarma hobe».

Eta Martxela'k biak zituan ugari Jaungoikoa'k emanda, edertasuna eta txarma (encanto).

* * *

Gure iritzirako bai dirudi aiñ gizon errespetagarri ta onak mezezi zuela bere emaztearen ondoan urte luzeetan bizitzea, baña Jaungoikoa'k beste asmo batzuek zitun nonbait, eta ezkondu ta iru urtera (Martxela'k orduantxe zituan ama izatera eldu bear zuan ezaugarriak) Dn. Juan Tomas gaxotu egiñ zan. Donosti'ko sendagillerik onenak

eta Madrid'tik ekarri ziotena iritzi batekoak izan ziran. Gibelean gauza txarra zeukala eta osate-ebakuntza (intervención) bear zuala.

Dn. Juan Tomas'ek patxaraz artu zuan berri txar au, baña Martxela'k izu aundiakiñ. Gaxuaren aurrean alai eta bare agertzeko alegiñak egiten bai zitun ere, gelatik ertetean negar batean zegon beti.

Paris'tik ekarri zuten Albarrán sendagille ospetsua operazioa egi-tera, ta ez zuan ondo ertengo zan itxaropenik eman. Da aurriez ipiñi zuan baldintza bete zun oso-osoan. Bere lana bukatu beziñ laister itzuli bear zuala Paris'era, miñutu bat bera ere eziñ egon zeikeala ta. Baldintza au bete ezik ez zan Paris'tik etorriko. Denbora artako pe-setak gaurkoen aldian asko balio zuan arren, Albarrán osagilleak berrogei ta amar milla peseta kobratu zuan bere lana, eta juan zan, eta Paris'era eldu baño len ill zan Dn. Juan Tomas de Irigoyen zalduna.

Eta ordu gutxi barru Martxela'k bere barruan zeraman aurtxoa.

* * *

Sei urte igaro dira. 1920'garreneko loreillak ogeita amaika ditu. Maitetasun Ederraren Amabirjiña eguna. Izuztarriz'ko eleizan, Maria'ren Alabak abestuko dute aintziñako abesti eder, onela asten dana:

«Maitetasun Ederraren
Ama maite gozoa,
Uste dena
Zeu'gan daukat
Itxaropen osoa.»

Martxela Izuztarriz'tik urruti dago, baña biotzez, ixillik ba'da ere, abesti au kantatzen du, bere errian Amabirjiña'ri ainbeste bider, maiatzen azkenean abestutakoa.

Oraiñ ere Zeru'ko Ama'ren irudi eder baten aurrean dago belau-niko, Joxe Antonio bere ondoan dualarik. Lourdes'en, Loyola'ko Aita Egaña'k ezkondu ditu. Gaur, berriro, Martxela'k Izadi guziari ederra iritzi dio. Egun itun (triste) batean, bere biotzean itzali zan argi eder aura berriro piztu da, *len-da-gero-baiño* dizdizari aundiagoakiñ. Zor-ion utzez inguratua ikusten du bere burua eta Goiko Jauna'ri eske-rak damazkio.

Eleizatik irten diranean Aita Egaña'k esan diote, Dn. Juan To-mas zanaren naia bete dutelako pozik dagoa la. Ill bear zuanean esan ziola:

—Aita Egaña, ni iltzen naizanean, Martxela Joxe Antonio'rekin eskontzea nai nuke, Neonek kendu nion andregai mutill on ari, eta berari itzuli bearrean nago.

Au entzutean Joxe Antonio'k batbatera esan zion:

—Aita Egaña, lenengo izaten degun semeari Juan Tomas ipiñiko diogu izena.

Eta Aita Egaña'k erantzun zion:

—Oso ondo egiño dezute, eta bide batez esker ona erakutsi.

Martxela beera begira jarri zan, eta bere baitan pentsatu zuan: «Zuk maitatzen nazun eguna, garagarrilla baño argitsuagoa izango da.» Eta Joxe Antonio'k, une berean, Martxela'ren pentsakizunari erantzunaz bezela zion bere barruan: «Zuk maitatzen nazun gaba, illargi bete-betekoa.»

JULENE DE AZPEITIA.





ALEJANDRO'REKIN ELKARRIZKETA

Alejandro au gure lagun zar bat da. Badira onezkero berrogei urte ezagutzen degula. Txikitan Aletxo deitzen genion.

Ia lurbira osoa ezagutzen duan gizona da Alejandro. Ta, orain urte pare bat arte, sukalkintza-eginkizunak izan ziran bere bizimoduko oñarri nagusienak.

Lengo arratsalde batean Donostia'n egin genduan biok topo, ta *Parte* zarreko kafetxe batean sartu ta eseririk, elkarrekin jan-edan-gaiezko itzaspertu au izan genduan.

GAURKO SUKALKINTZA

—Nola dabilta gaur lurbiran jan-edan-gauzak?

—Ez dabilta gaizki. Erri aurreratuak beintzat ematen die gauza oiei merezi duten ajola.

—Beti izan al dira gizonarentzat jan-edan-gaiak ernagarriak?

—Bai, noski. Begira: gure lenengo gurasoak, Paradisu'tik irten ziranean, aurreneko buruaustea au izan zuten. Alegia, nondik, nola ta zer jan eta edan. Egungo egunean, jakiña, baditu gizonak beste buruauste geiago, baña jan-edan-ardura au beti berekin darama. Bes-

talde, ezin uka sukalkintzak zer-ikusi ta artu-eman aundiak dituala zibilizazioarekin eta kulturarekin. Are geiago: ezin diteke erri bat ondo ezagutu bere sukalkintza berezia kontuan eduki gabe. Orobat, urruti-samarrera erbesteratzen dan jendeak askotan sukalkintza obeto gordetzen du izkuntza baño. Ala gertatzen da beñepein, adibidez, India'n gelditu ziran ingelesen artean. Ta nik neronek ezagutzen ditut Ego-aldeko America'n euskaldun bat baño geiago euskeraz jadanik mintzatzen ez diranak, baña oraindik ere aldiz-aldiz bakallaoa Bizkai-erara maniatzen eta jaten dutenak. Gaiñontzean, ta idazle fran-tzes umoredun batek egoki esaten duan bezala, gauza jakiña da, emakumeak gizona biotzetik elduta bereganatzen duala, baña gero eutsi ta gorde, beraren urdailla betetzen saiatuaz noski.

SUKALKINTZA ONENAK

—Gaur sukalkintza onenak nongoak dira?

—Geienak, Frantzia'koa ta Txina'koa jotzen dituzte munduko bi onentxoena bezala. Frantzia'koarengatik gaur batzuek ez dira oso ongi mintzatzen, baña, nere iritzi apalez, bera dar gaur ere lurbira osoko onena. Esate baterako, ez da iñon obeto jaten, iñolaz ere, *La Tour d'Argent*, *Laperouse*, *Le Grand Vefour*, *Maxim's* edo *Lasserre* deritzaien Paris'ko jatetxetan bezala. Txina'koari buruz, berriz, esango dizut, bera jotzen zala orain bi milla urte ere lurbira osoko onenetako bat bezala. Gauza jakiña da, gañera, gaur munduko uri aundi guzietan —Paris'en, baitipat; Londres'en, Madrid'en eta abar— gero ta txinatar jatetxe geiago ari dirala idikitzen. Bestalde, jakingo dezu noski, portzelanazko jatontziak lendabizi Txina'n egin zirala.

—Frantzia'ko ta Txina'ko sukalkintzen ondoren, zeintzuk dira onenak?

—Raymond Oliver, len aitaturako Paris'eko *Le Grand Vefour* jatetxearen nagusiak dionez —ta gu bere iritziarekin bat gatoz—, Italia'koa, España'koa ta Mexiko'koa. Gero, Hungria, Alemania, Canada, Suiza, Grecia, America ta Ipar-Africa'koak, eta, azkenik, Escandinavia, Ingalterra, India ta Indonesia'koak eta abar.

EUSKALERRI'KO SUKALKINTZA

—Zer derizkiotzu Euskalerrri'ko sukalkintzaz?

—Gure sukalkintza ere, zalantzarik gabe, onentxoenetakoa dala. Gaur ezin diteke berari buruz orain urte batzuek Regoyos'ek bere *La España Negra'n* itzegin zuan bezala itzegin. Alegia, gure sukalkintza *guisados rojizos*, *calamares negros* eta *quesos petrificados* baik izk etzala.

—Ta zeintzuk dira, zure ustez, Euskalerrri'ko sukalkintzaren berezitasun nagusienak?

—Esan izan oi da gure sukalkintza batez ere arrai ta saltsa-sukalkintza dala, baña au ez da egia osoa; gaur aragia ere, baitipat errea, txit ongi gertutzen bait-da Euskalerrri'ko leku batzuetan beñepein. Gaiñerakoan, gure sukalkintzaren beste berezitasun nabarmeneko bat oparotasuna da. Ta, berebat, garbitasuna: sukaldeari ta batez ere maiari dagozkien gauza guzien garbitasuna. Jakiña, Euskalerrri'ko sukalkintzak ez dira berdiñak toki guzietan. Gipuzkoa'koak eta Bizkai'koak elkarren antza badute, baña, ta esate baterako, bestelakoak dira Lapurdi'koa ta Zuberoa'koa, ta bai Napparoa'ko Ego-aldekoa ere. Napparoa'ko Ego-aldekoa badu Aragoi'koaren antza piska bat, eta Gipuzkoa'koak, berriz, batez ere Donostia'koak, baita Frantzia'koarena ere, ta zeatzago esateko, gaskoi-sukalkintzaren alako kutsu bat.

—Ta zeintzuk dira Euskalerrri'ko jaki nagusienak?

—Nagusiena edo beintzat ezagunena bakallaoa Bizkai'erara da. Jaki au, adibidez, Txina'n ere ezagutzen da. Gero, legatza koxkerarera, txitxardiñak, piperrada ta arkume saieskiak eta amorraiak Nappar-erara. Ondoren, salda garbia, eltzekoa, ttioro, txapiroiak, bigua ta xangurroa; sardiñak eta bakallaoa pil-pil-erara ta Busturia-erara; porrusalda, zurrkutuna ta *ajo-arriero* Nappar-erara; marmitakoa, kokotxak eta mendreska; perretxikoak Araba-erara, pagusoak Etxalar-erara, babarrun zuri-ezeak galeperrakin, trinpollarrabak, zurrakapotea, mamia, gaztanbera ta abar.

—Beraz, eta zuk diozunez, jaki asko ditugu?

—Bai, asko. Nappar-izen kutsua dutenak bakarrik ezagutzen dira eun eta geiago.

—Ta antziñakoenak, zarrenak, zeintzuk dira?

—Antziñakoena, bear bada, mamia izango da. Erromatar idazle ospetsu Strabon'ek orain bi milla urte aipamentxo bat bere lan batean jaki onezaz ezarri zuan. Gaztanbera, gazta-ustela edo gazta-miña ere zarrenetakoa izan bear du. Badakizu jaki onekin zer-ikusi duan ipuitxo bat ere badala. Alegia, Txirrita bertsolaria jaki onekin betekada bat eginda ill zala.

—Ta kanpoan ezagunak al dira gure jakiak?

—Bai, gutxi bezala. Ez Madrid'en edo Paris'en bakarrik, baita, esate baterako, Miami'n ere arkituko dituzu euskal-jatetxeak. Baita, jakiña, emengo sukaldariak ere. Auek leku guzietan ongi ikusiak izaten dira. Onela, ill onen 12'an gipuzkoar sukaldari aditu bat bere laguntzalle batzuekin Bartzelona'ra joatekoa da, ango *Hogar-Hotel*'ek antolatutako bosteun bazkalдарrekiko oturuntza batean emengo erara arrai-jaki bat maneatu ta serbitzatzera.

—Zerbait geiago esan nai al dezu Euskalerrri'ko sukalkintzaz?

—Bai. Euskalerrriko jakiak al bada bertan edo bertako sukaldariak maneatuta artu bear dirala. Kanpoan, Euskalerrri'ko sukalkintzako jakiak balira bezala serbitzatzen diranak, askotan *izena* bakarrik izaten dute-ta.

JAKI-ONENAK

—Zeintzuk dira, zure ustez, jakirik onenak?

—Galdera ori ausarta, txit ausarta da. Baña, tira, or dijoakizu nere iritzia. Nere gogorako, jakirik onentxoenak, urdaiazpikoa, otarraintxoak eta *foi* preskoa dira.

—Zertxobait esango al zidazuke jaki oiezaz?

—Txerriki guziak dira onak, baña batez ere urdaiazpikoa, eta Trevelez, Baiona edo Montanchez'koa bada, berriz, are geiago. «Urdaiazpikoa, beste jaki guziekin ere ongi dijoa», dio esaera gaskoi zar batek. Otarraintxoak ez dira, egosita gero, ur otzean sartu ta eduki bear. Egosi ziran urean bertan ostutzen utzi bear dira. *Foi* onena, berriz, preskoa da. Bestelakoa ere ez da *mokau* txarra, bereziki Strasburgo'koa edo Toulouse-aldekoa bada.

—Beraz, zure ustez, urdaiazpikoa, langostinoak eta *foi* dira jaki lenenak. Eta gero?

—Inguru-samarrean, caviar, ostrak, otarraña ta amarrak, errebo-lloa, izokia ta amorraiak, galeperrak eta ollagorrak datoz. Ondoren, faisana, Guinea'ko olloa, eperra, abelgorri ta ardi-aragiak, trufak, perretxikoak eta abar.

—Ba aldakizu gaur Euskalerrria'n berealdiko perretxiko-zaletasuna dagoala?

—Bai, ta nik ongi ikusten det zaletasun ori. Emen Euskalerrria'n sortzen ziran perretxiko batzuek, txit onak izan arren —*clitopilus prunulus*, esate baterako—, len bildu ere ez baitziran egiten.

—Ta egia al da perretxiko-izena emen, Euskalerrria'n, ijitoak sartu zutela?

—Baditeke, ta ala ezartzen da gañera V. P. eta R. G. Wasson'en *Mushrooms, Russia and History* deritzaion liburu ernagarrian.

—Ta zer derizkiotzu oraingo gure arteko amorrai-zaletasunaz?

—Ni beti izan naiz amorrai-zalea. Jakiña, amorrai-presko-zalea. Amorraiak, arrapatu ta andik ogei ta amasei ordu barru geienez jan bear dira. Gaiñerakoan, euskaldunon amorrai-zaletasun au aspaldikoa da. Ez da oraingoxea euskal-kanta ura: «Goazen erre kara —amorrai- ketara— gogoz afaltzeko gabea...» Egia esan, lurbira osoan da,

aundiagoa edo txikiagoa, amorraiz-zaletasuna. Jakizu, bein batez Abisinia'ko adiskide bati entzun nionez, amorraia omen da Negus'en jakirik begikoena...

GAZTAK

—Zer diozu gaztaz?

—Badakizu Brillat-Savarin'ek zer zion. Alegia, gaztik gabeko otordua, begi bat palta duan emakume eder bat bezalakoa dala.

—Non egiten dira gaztik onenak?

—Onenak edo beintzat geienak Frantzia'n egiten dira. Brie, Roquefort, Camembert, Camargue, Cantal, Pont-l'Eveque, Port-du-Salut, Banon, Saint Maure ta beste ia irureun geiago. Holanda'koak ere, Gouda ta Edam bereziki, txit onak dira. Suiza'ko Gruyere ta Emmenthal ere bai. Baita Italia'ko Gorgonzola, Bel Paese, Parmesano ta Robiola ere. Ingalterra'ko Chester ere ona da. Ta España'ko Cabrales, berriz, inongoari zorrik ez diona.

—Ta Euskalerra'ko gazta ezagunenak zeintzuk dira?

—Ezagunenak eta onenak, dudarik gabe, Erronkari'koa ta Idiazabal'goa. Urt, Tardets eta Santa Garazi'koak ere goiko mallakoak dira. Bestalde, jakingo dezu noski, Roquefort'eko gazta egiteko Beeko Naparroa'ko ardi-esnea ere erabiltzen dala.

—Zerbait entzun izan oi degu, alegia, gazta ez omen dala postrea-edo...

—Bai, ori egia da. Gazta, inolaz ere, ez da postrea, ta maiazkenen aurretik, batez ere maiazkenak gozoak badira, jan bear da beti.

—Zerbait geiago gaztaz?

—Gure adiskide gazta-zale porrokatu batek, norbait ondo bizi dala adierazi nai duanean, «gazta-barrunbeko arrak berak baño obeto bizi dek ori», esaten duala...

EDARI ONENAK

—Edari onenak, zeintzuk dira?

—Onena, dudarik gabe, ardoa da. Onezkero badira bosteun urte eleizgizon batek idatzi zuala: «Edateko, ardoa, beltza edo zuria; ura joan dedilla ibaian barruna.» Bestalde, txit ezagunak dira Aita jesuita euskaldun baten bertso auek: «...edan ezkeru —ardoa txit ongi—, gizonik txatarrenak —balio ditu bi.» Zergaitikbait aitatzen da ardoa ainbeste bider Eskritura Santuetan.

—Askotan aitatzen al da?

—Bai. Bein batez Eskritura Santuak ongi ezagutzen dituan adiskide batek esan zigunez, lareun eta berrogei ta iru aldiz noski.

—Ta ardoa, beltza ala zuria da onena?

—Berez baditeke beltza onena izatea, baña zer jakiekin edaten dan eduki bear da beti kontuan. Adibidez, aragi-jakiekin beltza, eskuarkiro, ohea da zuria baño. Zuria ordea ohea da arrai-jaki geienakin. Gañera, badira ardo zuriak berenez ere txit onak diranak. Txanpaña, Jereza, Sauternes —esate baterako, Chateau Yquem bezalako gauza on gutxi dira mundu ontan— eta abar. Txakoliña bera ere itxas-frutuekin, bereziki, ona da. Dana dala, Harry Schraemli'k arrazoi du noski, ardoa, emaztea aukeratzen dan ardurarekin berarekin aukeratu bear dala, esaten duanean.

—Ta ardoa, gozoa ala sikua da ohea?

—Ardo gozo txit onak badira, baña guri sikua atsegiñago zaigu. Ez dakigu laister, gu ere adiñean aurrera goaz-eta, gozoaren alde jarriko geran edo ez.

—Zer bada, zarrei geiago gustatzen al zaie ardo gozoa?

—Gure adiskide euskaldun jator eta umoredun batek —ill zan gizarajoa!— esaten zuan: «Bein irurogei urte bete ezkeru, gizona gainbera gustu-gauzetan joaten dek. Eta orrela, *musica italianoa*, txanpan gozoa ta emakume gizenak atsegin izaten dizkik.

—Ta ardo zarra, berria baño ohea al da?

—Ia orain arte zarra, berria baño ohea jotzen zan beti; baña gaur mokofiñ bat baño geiago dira, onena iru edo lau urtekoa dala, diotenak. Dana dala, ezin uka, ardoak, gizonak bezalaxe, bere gaztaroa, adin eldu ta zarzaroa badituala.

—Ta, jakiak maneatzeko, ze ardo erabilli bear da?

—Sukaldari batzuek, jakiak maneatzeko, edozein ardo erabiltzen dute, baña oitura txarra da au. Jakiak maneatzeko ere, ongi aukeratutako ardo erabilli bear da beti.

—Zertxobait geiago ardoaz?

—Turquia'ko esaera zar batek, ardo ona ta emakume ederra bi pozoi gozo dirala, diola.

—Ta ardoaz landara, zer beste edari dira onentxoena?

—Whisky, Cognac, Armagnac —guri Armagnac zarra, on samarra bada Cognac baño atsegiñago zaigu—, sagardoa, garagar-ardoa, jinebra, vodka, calvados, tequila ta abar. Eta alkoholik gabeko edarien artean, berriz, kafea —o, kafea!—, tea ta limoi-ura, baña limoi freskuarekin gertua. Gaurko alkoholik gabeko beste edari berri oiezaz, obe degu itzerditxo bat ere ez esatea. Ez dute merezi-ta.

—Whisky aitatu dezun ezkeru, esango al zidazuke zeintzuk diran, zure aburuz, edari orren *markarik* onenak?

—Barkatu, baña naiago det whisky-marken izenik ez aitatzea. Etzait gogoko izaten onelako elkarrizketetan ezeren *propagandarik* egitea-ta. Baña, tira, alaere esango dizut, Churchill zanak ain begiko zuan *King's Ransom* deritzaion marka, ez dala txarrenetakoa...

—Edari-gai au bukatzeko, beste galderatxo bat.

—Bota.

—Gaur Cognac, geienean aldeurrez edontzitxo berotuta edaten da. Oitura egokia iruditzen al zaizu au?

—Ez gizona. Oitura ori txorakeri bat da. Cognacak berotasun orrekin ez du ezertxo ere irabazten-da. Apika, galdu.

JATETXEAK

—Jatetxeak, aspaldikoak al dira?

—Ez. Jatetxeak, restauranteak, berri-samarrak dira. Boulanger deitura zuan sukaldari moko-fin batek, 1765'garren urtean Paris'en idiki zuan lenengoa. Emen, Donostia'n, lendabizi idiki ziran restauranteak *La Mallorquina* ta *Hotel de Londres* izan ziran.

—Zer jatetxe dira onenak?

—Jakiña, ondoen jaten ematen dutenak. Dana dala, jatetxe baten doairik gaillenena garbitasuna da. Ta nagusiak berak sukalkintzan egiten badu, obe. Baldin jaki-errenkada labur-samarra bada, ez du ajola. Baña bai, bezeroak errenkadan ezartzen dan jaki bat aukeratu ta eskatu ta gero, nagusiak amaitu dala erantzutea. Gaiñerakoz, nik ez dituk atsegin loreak maiean. Ez eta jan-bitartean musikarik jotzea. Topak eta brindisak ere neretzat *sobra* daude. Bazkaldarren artean elkarrizketa alai bat, ori da ongi bazkaltzeko saltsarik egokiena. A! ta ia aztu zitzaidan. Bazkaltzen ari geranean telefonoz iñork deitzen badigu, serbitzariak erantzun bear du beti ez gaudela jatetxean...

AOLKUAK

—Aolkutxo batzuek eguneroko jan-edan gora-beeretako emango al zizkidatzuke?

—Or dijoazkitzu batzuek. Gatza ta azukrea al dan gutxiena artu bear dira, batez ere barazkiak eta fruta jaten badira; barazkiak eta frutak baibadituzte berenez naiko gatza ta naiko azukrea. Ozpiña ere alik gutxiena erabilli bear da. Bere ordeztimoia askozaz ohea da. Yogur piskabatek ere, maiazken bezala edo arratsalde-erdian, txit ongi egiten du. Jakiak —naiz aragijakiak naiz arrai-jakiak— erreta, saltsan baño osasunerako iñolaz ere obeak dira. Bukatzeko: geiegi ez da ez jan eta ez edan sekulan egin bear, ta gutxiago oeratzeko garaian.

JAN-EDANAK ETA LITERATURA

—Ze esaten didazu gastronomi-literaturaz?

—Batzuek uste izan oi dute gastronomi-gaiak ez dirala literaturarako egokiak. Oso oker daude. Grecia zarrean, egia esan, tripazai gutxi zan, baña alaere ango orduko idazle bikain batek baño geiagok gastronomi-gaiak erabili zituzten. Aristofanes berak, *Akarnitarrak* deritzaion teatro-lanean, ikututzen ditu gai auek. Erroma zarreko Petronio ta Apicius aundia, berriz, gastronomigai-idazle txit adituak dira. Orobat Frantzia'ko antziñako Rabelais, Brillant-Savarin, Berchoux ta Montaigne, ta geroko Zola, Dumas, Daudet, Colette, Curnosky, Reboux, Amunategui ta abar. Ta berdin España'n lengo Villena, Lobera de Avila, Doctor Thebussem, Castro Serrano, Valera, Urcullu, Pardo Bazán ta Becerro Bengoa, ta gure gizaldiko Julio Camba, Mourlane Michelena, Darío Pérez, Azorín eta Marañón, Pérez de Ayala, Mikelarena, José Plá ta Néstor Luján, Cunqueiro ta Castroviejo, Escobar ta Entrambasaguas, Zunzunegui, García Serrano ta abar ta abar. Orain bi urte Nobel Saria irabazi zuan guatemalatar idazle Miguel Angel Asturias'ek ere erabili izan ditu gastronomi-gaiak. Oñela, berea da 1953'garren urtean Marta Beines'ek Buenos Aires'en argitaratu zuan *El Gran Libro de Cocina*'ren itzaurre ernagarria.

JANEDAN-LIBURU-BILDUMAK

Egia al da munduan gastronomi-liburu-bildumazaleak asko dirala edo zeratela?

—Bai, geiegi.

—Nortzuk dira mota ortako bilduma onenen jabeak?

—Raymond Oliver izango da ziur asko garaienaren jabea. Nik ezagutzen det bere liburu-sorta ori, ta izango ditu ia sei milla ale. Alemania'ko izen aundiko Harry Schraemli ostalariak ere oso bikaña du. Berebat Segovia'ko *Cándido* jatetxe ospetsuaren nagusiak. Baita Persia'ko erregiña izan zan Soraya ederrak ere. Orain lau-bat urte ill zan lord Westerbury'rena ere gain-gaiñekoa zan. Milla ta seireunbat ale baizik etzituan bere bildumak, baña ale geienak banan-banakoak ziran, ta euren artean 1475'garren urtean Aita Santua'ren liburuzai Platina'k argitaratutako *De honesta voluptate et valitudine*'ren bat arkitzen zan. Bilduma au, lord Westerbury'ren oñordekoak zearo sakabanatua izan bear dute.

—Ta zure bilduma, zer moduzkoa da?

—Ez da ain txarra ere, baña len aitaturako oien ondoan ezer gutxi balio du.

JAN-EDANAK ETA ERLIJIOA

—Zertxobait esango al zidazuke jan-edanen eta Erlijioa'ren arteko gorabeera ta artu-emanaz?

—Ongi. Azkeneko Kontzilioa baño lenagoko eleizgizon geienak jan-edan kontu ta gauzak etzituzten begi-onez ikusten. San Juan Crisostomo batek, Aita Granada batek, Axular batek eraso gogorrek egotzi zituzten gastronomisaillaren aurka. Baña orduan ere eleizgizon onbidetsu bat baño geiago beraren alde ere mintzatu ziran. Orain eun eta geiago urte Bartzelona'n argitaratutako liburuxka batean Aita Prantziskotar batek onela zion: «Mai eder-naro baten aurrean eseritzen dan gizonak, nai ta naiez goretsi bear du Jaungoiko Guzialduna, mundu ontako gauza on guzien iturburua.» Dana dala, gaur, Kontzilioa ezkeru, iñork gutxik jan-edanen aurka itzegiten du. Entzun: oraindik denbora asko ez dala, Errijoa'ko upelategi batean lagun batzuek ardoak dastatzen ari giñan. Ardoak txit onak, *apartak*, ziran, eta gure artean apaiz gazte bat arkitzen zan. Eta apaiz onek, ardo bat progatzen zuan bakoitzean, ezpañak mizkatuaz eta zerurontz begiak jasoaz, esaten zuan: *Benedicamus Domino!*

BUKAERA

Gaurkoz naikoa izango degu noski. Afalduko al degu elkarrekin?

—Nik afari arifña egiten det beti. Bazkaldu, portitz-samar, baño afaldu —berriro diot— arin.

—Nik ere bai, baño, tira, nere etxean afari-lege bat egin genezake: caviar piskabat, langostino batzuek, baserri-ollaskotxo bat erreotza Bilbo'ko ur sikuarekin...

—Bapo! Goazen...

—Ta nere etxean bukatu genduan, kontu zarrak kontari, gure elkarrizketa.

A. A.

Noviembre, 1969.



ADABAKIAK

AITA DIEGO GOITIA JESUITAREN EUSKERAZKO LANAK ERE GALDUAK OTE?—Galdutzat genituen XVIII-garren mendeko Gamiz jesuita arabarraren lanak ere, baina berri pozgarria eman zigun Joan Goikoetxea-Maizak EGAN-en (1968-ko zenbakian) arkitu zituztela agertzean. Lan hoiiek, uste baino garrantzizkoagoak izan ditezke, beintzat irudimenez beterik ikusten dira Goikoetxea-Maiza-ren oharretatik nabari danez, eta asko poztuko ginake lehenbaitlehen liburuxto batean argitaratuko balira. Edo zatika EGAN-en bertan.

Gure artean ezezagun dan beste idazle batekin arkitu naiz, baina bere lanak nundik izan ditezkeanaren berri, orain ere, jesuiten azterketetatik etorri beharko du, Aita Diego Goitia aulestiarra Gamiz arrabarra bezala, jesuita zalako. Hara bere berria:

Birrargitara berri dan Labayru-ren *Historia General del Señorío de Bizcaya*-ren VI-gn. tomoaren 672-garren horrialdean agertzen danez, *Ambulavit Henoc cum Deo* (Bologna, 1794) liburuaren egilea zan Aita Diego Goitia-ko aulestiarrek, ba omen zituen euskerazko lanak esku-idatziz. Hara zer dion, hitzez-hitz: «los *Ejercicios de bascuence*, en dialecto central o guipuzcoano (manuscrito)», eta aurreraxeago: «un cuaderno de frases españolas con versión a la lengua bascongada; otro cuaderno de ejercicios de lengua euskara y española; diez décimas en vascuence, tituladas: *San Borjaren bizibari amardunde...*» Eta, agiri danez, bizkaitar jesuita hau XVIII-gn. mendearen azkenaldekoa zan, «de los jesuitas expulsos», Labayru-k dionez.

Gamiz-ekin bezalako suerte ona bagendu, ongi letorke gure literatura hurriarentzat. Norbait arduratuko al da lan hoién bila?

J. S. M.

EUSKAL LITERATURAREN KULTURA MAILA, NOIZTIK?

Euskal literaturagatik iritzi askotako gauzak entzun ditugu. Bainan, gehien-bat eleiz liburuak eta herri literatura apala bakarrik ditugula esan ohi da, gainera, bigarrena ahozkoa soilki. Badakigu hau ez dala gezurra, bainan maiz jardun izan da neurritik kanpora. Hortik aparteko literaturaren neurria adierazi zigun A. Irigaray-k *Esbozo bibliográfico de Literatura euscará profana* saiakeran («Príncipe de Viana», 98-99 zenbakiaren 133/159 horrialdeetan, 1965-ean). Bainan euskal literaturaren zabalkundea beti labur izanen da, baita geure barnean ere.

Campion-ek esana, Arrese-Beitiak hornitu zuela gure literatura kultura mailara: «...nuestra lengua deja de ser popular y se eleva al rango de trascendente»; Isidoro Fagoagak berritu duenez *Los poetas y el país vasco* liburuaren 164 horrialdean. Behar bada, ez jakin gabe. Hala uste dugu. Gainera, horri berean aipatzen ditu beste zenbait poeta handi: Bilintx, Serafin Baroja, Otxalde, Etxahun eta Elizanburu. Baina ezta hau bakarrik. Fagoaga berak eskeintzen digu saiakera bakan bat Boletín de la R. S. V. Amigos del País delakoan (XXIV urtea, 3-4 zenbakia, 401/418 horrialdeetan, 1968) *La ópera vasca* izenez. Bertan, euskal operaren sustraiak XVIII-garren mendeko euskal antzerkietara daramazki. Eta, horrek, beste gabe gizurtatuko luke Arrese-Beitia euskal literatura kultura mailara jasotzaile bezala.

Detxepare, Oihenart, Axular, Etxeberri Sarakoa eta abar bereiztea ezta aski. Hozie z gainera, hor daude XVIII-gn. mendeko antzerki hoiek (dakus, hauei buruz EGAN-en egin nuen aipamena: aurtengo 1-3 zenbakiaren 105/107 horrialdeetan), eta mende beretik, eten une gabe, esate baterako, XIX-garrenaren zehar goraka etorri zitzaigun lantze ekintza. Honen seme eta jarraile zan Arrese-Beitia. Besterik ez. Villasantek *Historia de la Literatura Vasca* liburuaren 284-an dionez, har-eman estuak izan zituen *Euskalerría* aldizkariaren arima ziren: Arzak, Soroa, López Alén, Artolak eta abarrekin.

Bestalde, Campión berak, Arrese-Beitia-ren *Ama Euskeriaren liburu kantaria*-ri (Bilbao, 1900) egin zion hitzaurrean ez du uste hori azaltzen, eta jartzen dituan ideetan badirudi lehenagoko ekin-tzan zituela oinharriak. Eta, bere *Gramática de los cuatro dialectos literarios*-en (Tolosa, 1884) 16/22 horrialdeetan irakurtzen dena zeharo bestera da.

Puntu honetatik aparte, hor zehar esan direnak esan, liburu interesante iduritu zaigu *Los poetas y el país vasco*.

Euskal kulturari buruz erderaz ari diren literaturik gehienak agi-

rian dago euskal literaturaren mugimenduaren muintetik aski aparte bizi direla, anitzek gutxi eta txarto ezagutzen dutelarik.

J. S. M.

PURUA, BURUA.—Adiskide Zatarain-en gaizki ulertze bati oharra egin nahi diot. Igazko urtean Bilboko Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca dalakoak argitara zuen Azkue-ren *Cancionero popular vasco*-ren bigarren tomoak «Notas al cancionero» izenez eka-
rren eraskinean, beste zenbait oharren artean, E-32 horrialdean, neri zuzenketa eginez, eibartarron «zarraren puruan» eta «eiñaren puruan», barbarismoak direla zion; hau da, erderakadak: «de puro viejo» eta «en puro hacer». Ditekeana, zeren nik hori ez bait dut ukatu, ez aipatu. Hau da, ez dut inoiz esan erderakadak ez direnik, baizik, giputxen «zarraren buruz» eta «egiñaren buruan»-en kidekoak direla baino. Eta hau zeharo beste gauza bat da. Gainerako iritzia ontzat hartzen dut. Gure «urtien puruan»-etik ez ote gipuzkoarren «urteen buruan»? Ez gainera Eibarren bakarrik, baizik bizkaitarrok (mintzairaz bizkaitarrak geranok), «puruan» erabiltzen dugu gipuzkoarrak beti «buruan» erabiltzen duten kasu berean.

Argi gelditu bedi: ez duk inoiz esan hori «barbarismo» eztenik. Beharbada hala izanen da. Hala baldin bada, gipuzkoarren «buruan» hori bera noski.

J. SAN MARTIN.

ARRAIÑA, ARRAINA, ARRAIA. — Gipuzkoarrak, *arrainari*, *arraia* deitzen ohituak daude eta ezta batere harritzeko hortik zenbait nahasketa sortzea. Anitz holako dute gipuzkoarrak beren laburkizunetan, eurak konturatu gabe gainerako euskaldunontzat ilun agertzen direnak. Lapurdik eta Bizkaiak bezin itsaso zabala izanik ere, hitz hau ez dute erabiltzen besteak haina jator. Eta bukaerako tartean «n» edo «ñ» galtzeak, hitzari bere itxura kentzen dio.

Itsasotik harat arkitzen den Nafarroako Baztanen ere hobeto dakite. Gehiago da, baztandarrak ongi bereizten dakite *arraina* eta *arraña*; handia edo txikia diranean. Zeren, haientzat «ñ», txikigarria da (diminutivo da), mugazandikoentzat bezala. Eta uskeri itxurazko gauzatxo hoiek, uste baino jatortasun gehiago ematen diote hizkuntzari, zehatz eta aberats adierazteko behinikpehin.

Joxe Artetxe adiskideak argitara berri duen *De Berceo a Carlos Santamaría* izeneko liburu bikainean honelako huts bat nabari dala

esango nuke. Gipuzkoarren *arraia*, maizago *arraya*, bere sustrai jatorretik hainbeste desberdinu delarik, ezta harritzekoa beste zerbaiten itxura hartzea. Eta, 130-gn. horrialdean irakurri geneza getariarrei buruzko kanta:

*Getariarrak txoruak
balia iltzera,
arpoi-arpoya motza
arriyai sartzera.*

Izan ere, txoruak izan behar harriari arpoiak sartu nahirik bazebiltzan. *A hincarlo en las piedras* itzultzen du Artetxek erderara. Baina *arriyai*, ez ote ahoz-aho zerbait bihurtua eta *arrayai* izan bere era jatorragoa? Hala dirudi. Askozaz jatorragoa zen *arrainai*-ren forma okertzetik heldu zaio nahasketa hori. Noski.

J. S. M.

SAN JUAN-TXIKI.—Eskuartean I. Linazasoro-ren *La otra Guipúzcoa* liburu apaina, gure probintziako txoko galduak berebiziko onduen arakutzen dituana. Holako liburu asko behar ditugu gure herria izango dan moduan ezagutzeko. Atseginenez irakurri dut.

Lazkaoko San Juan ante Portam Latinam-i, ingurukoak samurki deritzen omen diote, «San Juan Txiki». Familiko gisa ote? Eguzkia-ren jai nagusietan finkaturik dagoan San Juan Bautistarekin bereiztearren ez ote? Hala esango nuke, zeren Gipuzkoan bada beste San Juan ante Portam Latinam bat, Eskoriatzan, Kurutzebarriren hegian, Bolibar ballarako Ereña hauzoaren gainekaldean, Mendiolatik Degurixara bidean —eta ez Aitzorrotz gainean D. Irigoyenek *Ermitas e iglesias de Guipúzcoa*-n dion bezala (dakus: *Anuario de Eusko-Folklore*, tomo XIV, 40-garren horrialdean, 1934)—, inguru haietan, Lazkaumendiko bezala, «San Juan Txiki» izenez ezagutzen dutena da. Beraz, ez dala hain harrigarria esango nuke. Izen horrek bere zergaitia du. Bi ezagunok lekuko.

Lazkaoko «San Juan Txiki»-ren imajiña (liburuaren 162-gn. horrialdean) erromanikotzat joten du, bere arpegian, eskuetan eta tunikan gotiku joera argi eta garbi salatzen duelarik ere. Transiziokoa dirudi, gotikura aski sartuago. Eibarko San Pedro-rekin egiten duen konparazioak eztu batere baliorik. Biak ezagutzen dituanarentzat oso desberdiñak dira. Eibarkoak oinetatik bururaino hain bereizgarri duen simetria falta zaio.

J. S. M.

UGARTE.—Linazasoro-ren *La otra Guipúzcoa*-ren 141 horrialdean irakurtzen da: «En euskera, Ugarte significa Isla.» Behar bada izan zitekean itsas erdian edo ibai baten erdian urez inguratutik balego. Beintzat, hori da erderazkoaren zentzuna. Baina euskaldunok, *ugarte* hitza, ez dut uste erderazko *isla*-ren izate justuan erabiltzen dugunik. *Ugarte*, *uharte*, *huarte*, toki-izenak ugari dira Euskal Herriaren zabalean; baina nik personalki ezagutzen ditudanak, Amezketakoa bera ere tartean delarik, bi ibai edo errekaen tartean dauden hauzo edo baserriak dute izen hori. Eta erderazko zentzunera itzuli behar banuke, *entrambasaguas* edo holako zerbait egokiagoa arkituko nuke.

Era honetako zerbait dala, Ugarte, argi dago Mitxelena-ren *Apellidos vascos*-en ere. Ikusi 1953-ko argitaraldiaren 47 eta 103 horrialdeak.

Euskal deituretan ere, «euskalari» edo «etimologilari» artean ere bada holako nahasmendurik aski. Aipatu dugun Mitxelena-ren liburuaren ondorean argitaratuak dira beste zenbait liburu gai berean, eta ez dirudi aurreak erakusten dugunik atzea zelan dantza; zeren kontu honetan, oraindik, Mitxelena-rena da ganorazko bakarra. Gainerakoak ez dute balio deusik.

J. S. M.

ICHASO, ITSATSO.—Etimolojia kontuan sartu gentalarik, berriz ere, beste ohar bat gaineratu nahi diot Iñaki Linazasoro adiskideari. Behar bada, gizon humeretsua danez, uste dut adarra jotzen ari dela etimolojia kontuan. *La otra Guipúzcoa*-ren 22-gn. horrialdean dakar: «Ichaso, trae en jaque a los etimologistas.» Bai ote? Erderazko «retama»eta «mar», nahastuko balira bezala.

Baina, aspaldidanik, honetan ez dago nahasterik, eta iturri onetara jo ezkeren *isats*, naiz *itsa(t)s* (eta hemen ez dago ahozko deformaziorik, berak hala uste badu ere); hoiek sustar berekoak dirala badakigu; erderazko «retama», besterik ez. Dakus arestian aipatutako L. Mitxelena-ren *Apellidos vascos*, 75-gn. hor. (337 du artikulu numerua).

Herri jakintzak berak erakusten du, iturri onetik edatea osasungarria dala. Eta inun ez da joaten herririk bada-ezbadako iturritik asetzera.

JUAN SAN MARTIN.

GARCIA LORCAREN AZKENENGO ORDUAK.—Ez dot irakurri Marcelle Auclair idazleak argitaratu daben *Enfance et mort*

de García Lorca. Liburu onen ganean Manuel Alcala jaunak «Razón y fe» aldizkarian egin dabean iritzi emotea bai, irakurri dot.

García Lorcaren azkenengo orduak ikusi ebazan Granadako gizon bat ezagutu neban emen Irunen, naparroako euskaldun bat gaz ez konduta bera. Gipuzkoatik ziar ibili geñien udako arratsalde batean izan zan, granadarra txoper geñuela.

Getarian afaldu geñun, aurrez aurre txoperra ta biok geñala. An kontau eustan zelan izan zan García Lorcarena. Ez neban idatzi ezer orduan, eta gogoan gauzak eukiteko buru txarrekoa izan naz beti. Damututa nago orain, besterik ezean oar batzuk artu-eza orduan. Baleiteke zeozer aberastutea, Marcelle Auclairrek batu dabezanetik ganera, artu banitu.

Gauzak gertatu ziran moduan kontau eustazan. Ziurtasun aundiko gizona zan granadarra, ezetan be ez ez-bai zalantzakoa.

Bakean eta burua galdu barik joan zala Federiko gizajoa. Xigarroak eskeñi eta erretan egozan bitartean berba egin ebela: «Eztaukozue kulparik zuek, goikuen aginduen esana betetan dozue-ta.»

Urte batzuk dala il zan granadar txoperra. Baleiteke zeozer jakitea bere alargunak. Ez dot ezagutzen bera, baiña ikustaldi bat egiteko asmoa badeukat. Manetofonuagaz artuko deutzadaz erantzunak, okerrik ezpada.

N. A. G.

DIEGO LORENZO DE URQUIZU.—Orainarte ez genduan ezagutzen Diego Lorenzo de Urkizuren izena euskal literaturan.

Labayruk bai, emoten dau bere izena, erderazko liburutxo bat argitaratu ebalako. Liburutxo orretan be imini ebazan Urkizuk euskerazko eleiz kanta batzuk. Ez da gauza aundia, baiña amazortzigarren gizaldiko textuak izateko, zeozer da euskal literaturan.

1737'garren urteko «Durango Uriko Debotoa» be Diego Lorenzo de Urkizu ber-bera da, nere ustez beintzat. Iruñian argitaratu eban *Liburu Virginia Santissimien Errosario Santuena*. Larogei ta zortzi orrialde daukoz. Durango-uriko euskeria darabil. Vinsonek emon eban beraren barri, EBLB-ean.

Bonaparte erregegaiaren liburutegian gordetan da ale bat (Chicagoko Newberry Libreryan orain). Durangoko Jesus Astola Sertutxak bialdu deuste kopia bat. Fakzimilean argitaratzeko asmoa daukot.

Urkizuren bizitzako barri batzuk emon deustez J. M. Larrakoetxeak. Uribarriko Andra Mariyaren eleizako artxibuan be aurkitu dodaz beste barri batzuk. Danak argitaratuko dodaz, okerrik ez bada, eria etorten danean.

Euskal literaturan beste izen barri bat daukagula. Orixe esateagure naban oar onetan. Besterik ez.

N. A. G.

Gizonak eta Ez

M. de Pedrolo

S. Garmendia'k
itzulia

Bi aktoetan, billatze-azterketa-inbestigazio bat.

Teatro honen autorea: Manuel de Pedrolo.

1960-garren urtean «Ignasi Iglésies» saria irabazi zuen.

Teatro-lan hau, lehendabiziko aldiz, 1958-garrengo azaroaren 19-an, Teatro Romea-n eman zan. Barzelona-kö «Agrupació Dramàtica»-koek eman zuten.

Frederic Roda gidari eta erakusle.

Ari ziranen izenak:

Núria Picas	Selena
Mercè Garcia	Eliana
Pepa Palau	Sorne
Miquel Gimeno	EZ
Miquel Rodés	Bret
Jordi Torras	Fabi
Lluí Bosch	Feda

Antoni Bache-ek dekorario.

Euskerak, Salvador Garmendia-k eman du.

LEHENDABIZIKO AKTOA

Bi Burni-habe bi hillarek, hiru gela desberdin egingo dituzte. Erdikoa, alboetako biak baiño meharragoa, estuagoa. Alboetako bi ge-

len alboetako bi paretak, zuri zuriak. Eszenarioaren barren guztian, oihal bat, goitik behera zuzen zuzena, kolorez beltza. Alboetako bi getetan, paretaren kontra, biña aulki, edo bestela, banku luze bat; oso anka-motz dira alki hok. Erdiko gelan, alki bat, ondoko getetako baiño txikiagoa. (Lan hau lehendabizikoz eman zanean, bankuaren edo alkiaren ordean, «mezedora» bat ipiñi zuen gidariek.)

Alboetako gela bakoitzean, gizon bat eta emakume bat daude. Gazte dira oraindik. FABI, eskubiko gelako gizona, lurrean etzanik bezala dago; eta emakumea, SELENA, burni-habeei lotuta erdiko gelako gizonari begira. Gizon hau, EZ deritza, lurrean etzanik lokarturik dago. Ezkerreko gelako gizona, BRET, eta emakumea, ELIANA, erdiko gizonari begira daude. ELIANA erdi belarriko, eta BRET zutik. Eskuiñeko gelaren barren-barrenean, lurrean eserita, geldi eta nunbait galdurik bezala, mutil bat. Ezkerreko gelaren barren-barrenean, neska bat: mutillak duen postura bera du.

Oihala altxa eta minutu batez edo, dena isil isilik.

BRET.—Hilik ote dago?

FABI.—Ez, lo dagoela dirudi.

BRET.—Orain arte ez zan sekula lokartu.

ELIANA.—Ez du mugimendu txikienik...

FABI.—Lo dago.

ELIANA.—Arnasarik ez duela, esango nuke...

FABI.—Ezpainetan mugimendu txiki bat ba du.

SELENA.—Hil zorian bide dago...

FABI.—Hil zori luzea litzake.

BRET.—Noizpait hil beharko daba.

FABI.—Zergatik hilko da? Hori baiño lehenago hilko ez ote geran, nork daki?

ELIANA.—Gazteago gera.

FABI.—Hori ere gazte da. Zenbat urte duen, inork ez daki.

BRET.—(Ez-engandik hurbilago egoteko, lurrean etzan da.) Hilko balitz...

ELIANA.—Libre gindezke.

FABI.—Ez gera sekula libre izango. Begira bestela burni hoiei...

(Burniei begira geratu dira guztiak; zenbait minututan denak isil. Gero, berriz denak Ez-i begira. Burni tartetik besoa luza eta gizonaren ikutzen ahalegiñak egin bitza BRET-ek. Dena alperrik!)

BRET.—Nahi eta ezin.

FABI.—Ez dugu sekula ikutu ahal izan.

BRET.—Ausartu ere ez gera sekula ausartu.

- ELIANA.—Noizpait ausartuko bagiña... eta ikutu ahal bageneza, dana apurtuko litzakeala iduritzen zait.
- SELENA.—(*Burniak astindu bitza.*) Gogorrik daude burniok...
- BRET.—(*Gizona ikutzeaz etsi beza eta lurrean eseri bedi.*) Hare gogorragoa da diogun bildurra.
(*Ez, posturaz kanbiatu da.*)
- SELENA.—Mugitu egin da!
(*Hari begira danak.*)
- FABI.—Esan ere esan nizuen ez zegoela hil-da. (*Zutitu bedi, burnien ondoan egonki.*)
- BRET.—Pozik nintzake makilla bat edo zerbait banu, kolpe bat edo beste emateko. (*Gelaren barren alderat begira beza. Hori bera egin bezate FABI-k eta SELENA-k.*)
- FABI.—Makilla bat? (*Atzean duen alkirat egin beza urrats bat eta hari begira, haren ondoan gera bedi.*) Alkiaren anka batez zer egin ditekean, nork daki... (*Har beza anka.*)
- SELENA.—Zer da hori FABI? (*FABI-rengana kurri egin eta.*)
- FABI.—Burni tartetik anka batez jo genezake... (*Alkiari anka kentzen ahalegiñak egin bitza.*)
- SELENA.—Ez holakorik FABI, ez holakorik!
(*BRET-en ondoan eseri da ELIANA, eta burniez beste aldeko gelan gertatzen ari danari begira geratu dira.*)
- FABI.—Zer dala eta ez? Saia gaitezen zerbait egiten... Aspaldi hontan ez gera ezer egiten saiatu.
- BRET.—Gisako zerbait egiten ez gera behiñere saiatu.
- FABI.—Lo dago-eta, oraintxe da gurea. Joan eta billa berriro noiz lokartuko dan!
- BRET.—Bai, oraintxe da gurea. (*Zutitu eta alkiraiño doa.*)
- ELIANA.—(*Haren atzetik joaki.*) Nik lagunduko zaitut.
- SELENA.—Burutik eginda ahal zaudete? Zerbait gertatuta ere.
- BRET.—Zerbait gertatuko balitz, hobe.
- FABI.—Zu zerorri, burniotaz ez ote zaude asean?
- SELENA.—Hala da. Baiñan, zer ondorenik izango dan ez dakigu-eta...
(*Denak geldi.*)
- BRET.—(*Burnietara joaki*) Ondorenik, diozu...?
- SELENA.—Bai. Duguna bera baiño ere zerbait txarragorik etor dakigukeala, ez ote dakizute?
- FABI.—Ez. Bai eta zera ere! Presondegia baiño txarragorik ezer ez dukegu.
- SELENA.—Batek bost ba daki! Heriotza... Hil gintzake.
- BRET.—Ez guk bera lehenago hiltzen badugu.
- SELENA.—Besterik gabe, zauritu bakarrik egin bageneza?

BRET.—Orduan ere ez liguke ezer egingo. Gu gabe ez diteke bizi.
Gu gabe ez litzake, ezer, ez litzake nor.

FABI.—(*Alkiari anka oraintxe kendu dio.*) Aprobata egin nahi dut.

BRET.—Ni armatu arte, zaude. Erdi hilik uzten baduzu eta atzera egin badeza, hementxe egongo naiz gertu bertan behera zerraldo uzteko.

ELIANA.—(*Oraintxe-arestian alkiari anka kendu dio.*) Har zazu, Bret.

SELENA.—Eliana, ez ahal zera bildur ala?

ELIANA.—Bai, zuk bezelaxe gutxi gora behera, bildur espentagarria sentitzen dut. Bildur naizelako hain zuzen nahiko nuke hil lezaten. Beti izan naiz bildur...

(*FABI-k besoa burnien tartetatik sartu du, bainan, anka txikiegia dala ohartu da.*)

FABI.—Ez dut ikutzen ahal...

BRET.—Ea nik... (*Sar beza besoa, baiñan doi doia ikutu besterik ez beza egin gizona.*)

FABI.—Zerbait luzegorik beharko genuke.

(*BRET-ek, bere hartan jarrai beza; besteak, ingurumaria begira bezate zerbaiten billa bezala; baiñan, errenik geratu diran alkiak beste ezer ez dago haien geletan.*)

ELIANA.—Piska bat itxoegitea hobe genuke... Posturaz kanbia diteke.

BRET.—Ditekeana da. Itxoegin zagon.

(*Aspertu da; eginahal guztiak alperrekoak dirala ikusi du; utz bitza bertan behera; orain, denak, gizonari begira geratu dira.*)

SELENA.—Ez diogu sekula ezer egiten ahal!

FABI.—Isilik zaude! Guk baiño gehiago ote dakizu?

SELENA.—Dena den, denok dakigu horren kontra ez dezakegula ezer-txo ere egin.

BRET.—Zer dakigu guk! Gure indarrak horren kontra buruz buru nehurtu arte, ez dugu jakingo.

SELENA.—Milla aldiz nehurtu ditugu.

FABI.—Ez da hori. Hitz egitea eta alkar nehurtzea, besterik da. Beste alde, gugandik aparte bizi da.

SELENA.—Hor datza bere indarra.

BRET.—(*Buruari eragiñaz.*) Ez, ez dago hor.

SELENA.—Nun bada?

BRET.—Gauzen berri dakielako du indar.

SELENA.—Zer daki?

FABI.—Guk al dakigu!

BRET.—Gora behera guztien, ixillenen ere berri du.

ELIANA.—Ez digu sekula agertu.

FABI.—Ez eta agertuko ere.

BRET.—Hori egitea, isil-gorderik isillena adiskideei esatea bezela litzake. Ez dizaiguke ezertxo ere esan, bestenez bere burua traizionatuko luke eta. Bere etsaiak gera.

FABI.—Gure etsaia dala, esan nahiko zenukean.

BRET.—Gauza bera da.

ELIANA.—(*Alkian eseri bedi.*) Neri berriz, batzuetan, gure gora beherei, aza ostu bati baiño garrantzi gutxiago ematen diela, iruditzen zait.

FABI.—Ez genioke begiratuko begiratzen diogun bezala, hori egia balitz.

ELIANA.—Berarekin ez bagera sartzen, ez da sartzen gurekin, baiñan.

BRET.—Zer dala eta sartuko da gurekin? Mendea hartu ginduen, eta orain bere eskuetan gauzka... ala uste du behintzat. Ez da bada-ez-bada ere sartuko gurekin, baitaki, hala egin baleza, hemen barnean izkutaturik daramazkigun indarrak eta sena pizaraziko lituzkeala eta burnien kontra oldartuko giñakeala. (*Alkian anka lurrera bota eta burniak astintzen hasiko da.*)

ELIANA.—Ba dugu senarik. Burrukan ari gera halaz guztiz ere.

SELENA.—Bera ez da konturatu ere egiten...

BRET.—Noiz eta noiz hori!... (*Burniak pakean utz eta alkian anka har beza.*) Ahaztuzeko betarik ere ez baidiogu ematen.

FABI.—Egia esan, ez du sekula ahaztu. Itxuraz bakarrik du indiferentzia guretzako.

ELIANA.—Aza hostoaren pare gera horrentzako.

FABI.—Isilik zaude! Dan guztia, gu gera horrentzako.

ELIANA.—Bai eta ez: ba gera eta ez gera deus.

BRET.—Hori da. Gure beharrean da, baiñan ez balitz bezala bizi da.

FABI.—Gure baitan ez baitu konfiantzarik.

(*Ez zertxobait mugitu da.*)

SELENA.—(*Haren begira baitzegoen.*) Horra, mugimentu txiki bat zuen orain arestian.

BRET.—Txiki txikia... hutsa! Oraindi ere ez dago gure esku.

FABI.—Ez da sekula egon gure esku. Ez bera, ez bere pentsamendua eta ez bere naitasuna. Gure baitan zer ikusten duen ere ez dakigu.

ELIANA.—Ikusi, beharbada ez gaitu ikusi ere egiten.

FABI.—Hori horrela balitz ez lezake gurekin sekula diskuti.

ELIANA.—Besterik diot: geren burua ikusten dugun bezala ez gaituela ikusten alegia. Ba daki ba duela aurrean norbait, beharrezko duen norbait, baiñan ez daki norbait hori nor dan, norbait hori nolakoa dan. Horrentzat ez dugu nortasunik, ez izenik, denok berdiñak gera, itxura zerbait, aurrean dituen ezerez batzuek, gaitzitzen duten aza hostoak...

BRET.—Horixe berorixe da guretzat: izenik ez duen norbait.

ELIANA.—Ez deritza.

FABI.—Ez deritzagu. Beti eta guztiok, Ez otsegin diogu. Guk geok gure gurasoen deitura-apellidoa hartu genuen, bainan deitura hura egiazkoa ala alegiazkoa zan jakiteko ez genuen ezer egin.

BRET.—Hor konpon bere izena! Bera, bere izateko eta jokatzeko era zaigu ardura.

SELENA.—Kanbiakor eta aldakor da; beñere ez bat eta hura.

BRET.—Ez, hain zuzen ere beti da bat eta hura.

ELIANA.—Ez du egiazko nortasunik. Gu nola, hala ari da.

FABI.—Momentuero mugatzen gaitu.

(Harrituta bezala alkarri begira geratu dira laurak. Luzaz isilik.)

BRET.—Gizon hori buruz gutako bakoitzak ideia diferentea du!

FABI.—Bai eta zera ere! Hitzak ditugu desberdiñak, baiñan dena den, gauza bera ikutzen dugu guztiok. Beharrik esaten dugu guztiok, gauza bera! Bestela balitz, izan, ez litzake izango!

BRET.—Horrexengatik da izanago, kualidade eta defeto guztiak bat honen gaiñera botatzen ditugulako.

ELIANA.—Hori horrela balitz...

FABI.—*(Aski urduri eta beroturik.)* Hori horrela balitz deseginduko genuke!

BRET.—*(Buruari eragiñaz.)* Ez, orain beranduegi da. Baiñan, geok asmatu, sortu genuela beharbada egia da.

ELIANA.—Zer dala eta sortuko genuen kartzelero bat?

BRET.—*(Bizkarra bildu-eta.)* Haren beharrean aurkitzen giñalako edo.

FABI.—Orain ez dugu horren beharrik.

BRET.—Hori da, orain ez dugu horren beharrik. Gaitzitzen gaitu, oztopo bat kaltegarri da.

ELIANA.—Desegin dezagun beraz!

FABI.—Hortan ari gera hain zuzen. Baiñan... *(Besoak zabal bitza, etsipena eman eta gelaren barrenera doa.)*

BRET.—Zaude. Onenean...

(Ez-i begira geratu dira laurak.)

FABI.—Onenean?

BRET.—Ixo! Gauza bat bururatu zait. Gizon hau ba dalako ote daude hemen burniok, ala alderantziz, burniok hemen daudelako ote da gizon hau? Hortik jo behar genuke, hortik hasi... *(Anka alde batera utz, eta has bedi burniak hastintzen.)*

FABI.—*(Horren ahalegiñan alperrokoak ikusi ondoren.)* Ez. Norbaitek hala nahi izan zuelakoz dira gauza guztiak, bateren batek hala erabaki zuelakoz. Borondate batek altxatu zituen burniok.

ELIANA.—Geok edo gure gurasoak sortuak dira.

FABI.—Behar da hortarako prozedimentu bat...

ELIANA.—Gure borondatea.

FABI.—Borondateak ez digu ezertarako balio izan. Beti izan dugu borondaterik.

ELIANA.—Ez beharbada beti behar genukean beste. Bildur piska batetik, gure indarretan konfiantza ezak ez bide dio utzi libreki ager zedin.

FABI.—Libreki! Burni tartean zer diteke azaldu libreki?

SELENA.—(*Burniei lotu da, oiñazez beterik.*) Ez dut konprenditzen, ez dut ulertzen!

FABI.—Zer ez duzu ulertzen?

SELENA.—Dena eta ezer ez. Gizon hori, zuek, ni neroni.

BRET.—Zer konprenditurik ez ikusten ez dagoelako edo da, eta iñork baiño argiago zuk duzu ikusten.

FABI.—Beti dago zerbait konprenditzekorik. Hori dala eta gaude hemen. Besterik ez bada, zerbait konprenditzen saiatzeko. Oraina eta geroa gure da, oiñazetan eta preokupazioetan bizitzeko. Enima hau miatzeko eta konprenditzeko, urteak urteen gain, gure ditugu. Noizpait konprendituko dugu.

BRET.—Horrekin edo hori gabe.

ELIANA.—Gabe, beharbada.

BRET.—Zergatik esan duzu hori?

ELIANA.—Azken mugaraiño iristen galeraziko baitigu. Gauzak garbi eta zuzen ipintzeko momentua etor dakiguneen, gauza guztiak itxuraldatzen saiatuko baita...

BRET.—Ia ia azken mugaraiño iritxi geranik ez bide du pentsatzen; gure barnean sarturik, isilik isilik, hitzik aipatu gabe zertan ari geran iñork ez dakiela, gure egoerari soluzio bat billatzen ari geranik ere ez zaio burura etorriko! Eta gero, berriro lokartu dediñean...

SELENA.—Berriz gehiago lokartuko ez balitz?

FABI.—Egia. Beharbada gure bizitza guztian ez da gehiago lokartuko...

BRET.—Ez dakigu zuzen. Dana dala, prepara gaitezen...

SELENA.—Zer besterik egin dugu bizitza guztian?

BRET.—Orain besterik da.

SELENA.—(*Lehengoan gogor.*) Beti hortan gera: orain besterik da, joanak joan, orain beste momentu batean bizi gera.

FABI.—Zuzen ari da SELENA.

BRET.—(*Oiñaze-miñetan.*) Selen a beti zuzen ari da. Bildurtiena ere bera baita...

- SELENA.—Gauza guztiak izkutuan gordetzen ditut, ahaztu gabe.
- FABI.—(SELENA-ri *begira.*) Zer gordetzen duzula?
- SELENA.—Bai, zuek ahaztutzen duzuen gauza guztien oroitzapena.
- BRET.—Ez dugu ezer ahaztu. Zertaz oroiturik ez baitago izan ere.
Geon baitan ezer esan gabe pentsatu dugun guztia, ez baigenezaiokan ezertxo ere esan.
- SELENA.—Barne muiñetan bizi ditugunak oroit diteke.
- ELIANA.—Hitz egitea ez digu behinere debekatu...
- SELENA.—Guk zer esango esnai, hor zegoen beti ordea. Zertaz mintzatzen giñan?
(*Beste hiruek mugimendu bat dute, eta zer esan ez da kitela bezala, alkar begiratuko dute.*)
- SELENA.—Garrantzirik duenik ezer, inoiz esan ote dugu?
- BRET.—(*Buru makurrik.*) Hortaz oroitzea neke da, Selena.
- SELENA.—Ni bai, ni oroitzen naiz. Eguneroko gora behera xingleak aipatu ditugu beti.
- FABI.—Gora behera horiek aipatzen genituenean hain zuzen ari giñan honarako preparatzen.
- SELENA.—Bai, preparatzen ari giñan. Horrexengatik ez dugu orain, presentean ezer berririk egiten, ditugun pentsamentuok bata bestearekin agertu baizik. Egiteko genuen guztia, aspaldidanik zuen guretako bakoitzak nola egin behar zuen erabakirik. Eta zertarako balio izandu du?
- BRET.—Horretxek bultzatu bide gaitu momentu honara.
- SELENA.—Beste edozein momentu bezin momentu da hau. Esnatuko baita, eta dana lehengora etorriko da: hain usaturik gauden ordenara.
- BRET.—(*Ankaz berriz zerbait egiten saia bedi.*) Arrapa ahal baneza...
- SELENA.—Ez zenezake ordea. Horrek ere baduke sendituren bat.
- FABI.—Ez, hala gertatu beharrezkoa izango zan. Burnietatik gertuago lokartu izan balitz...
- SELENA.—Balitz eta ez balitz... Hori da ez duena egin!
- FABI.—(*Zerbait egin gogoz.*) Egitea pentsaturik genuena bertan behera utziko ahal diogu ba?
- SELENA.—Ez; hobe dugu zerbait egiten saiatu.
- BRET.—(*Ankaz saiatu ondoren, bertan behera utzi du dana.*) Alperrik ari naiz. Noizpait nekatuko ahal da betiko postura horretan!
- SELENA.—Hori ere jakin ez dakigu.
- ELIANA.—(*Kejatz bezala.*) Zuk bihotz gabetzen badituzu...
- SELENA.—Ez dut inor bihotz gabetu. Lan eta lan aritu eta gero esku hutsik aurkitzeak emango lieken atsekabea eta nahigabea aldendu nahi nieke.

- FABI.—Esku hutsik aurkitzea baiño milla aldiz tristeago da ezer gertatu gabe egunak eta egunak etortzen sentitzea.
- ELIANA.—Beti da zerbait berririk gertatzen. Gero eta txikiagoa da dugun itxaropena. Hemen sartu giñanean, zenbait egunetarako bakarrik izango zala, uste genuela, ondo asko gogoratzen zait.
- FABI.—Egungo egunean ere hori bera uste dugu. Bizitza hontara ez gerala sekula jarri ondotxo dakizu. Zerbait hoberik aurki ditek-alako da noski; ez burnirik eta ez bildurrik ezagutuko ez dugun egun argi bat halako batean etorriko zaigulako. Ez gabe bizitzerik izango dugun eguna.
- SELENA.—Ez beti izandu dugu gaiñean.
- BRET.—Izan dana eta izango dana ez da berdin. Egunero dira gauzak kanbiatzen.
- SELENA.—Kanbio hori izateko kondizioa Ez da beharbada.
- BRET.—Mugarri bat da.
- FABI.—Gure borondateari eragiteko dira on mugarriok. (*Anka bur-nitartean sar beza.*) Eskurago baneduka...
(SELENA gelaren barrenera joan da eta ahal dan bezela eseri egin da. Besteak SELENA-ri begira.)
- FABI.—(*Besteei itzuli.*) Momentu honetan gugandik apartzeak, zer onik dakarke?
- SELENA.—Ez naiz apartatu. Nekaturik nago. Itxoin beharraren itxoin beharra!... Lehen esnai bezinbat denbora orain lo egongo ote dan, batek ba'daki!!...
- BRET.—Hala hobe. Zenbat eta lo luzeagoa eta kolpe gehiago ematen ahal diogu. Beste zerbaiten billa ahalegindu gaitzke gaiñera...
Ankaz besterik zerbait gehiago ba dagoke.
- FABI.—Bai, ba dagoke, baiñan nun?
- ELIANA.—Burnien artean dagoen tartea zabalagotu genezake, agian...
- BRET.—Edo agian... Ixo! Ba da bide bat.
- FABI.—Zein bide?
- BRET.—(*Ezin egonez eta urduri.*) Hobeto jotzeko guregana erakar-tzeko bide bat.
- FABI.—Nola?
- BRET.—Uztai antzeko zer edo zer egin eta burutik behera sartuta edo eta zangoetatik lotuta guregana erakar genezake.
- FABI.—(*Erabat harrituta.*) Uztai baten antzeko zerbait, esan duzu? Zerekin egingo dugu?
- BRET.—(*Ingurumarira begiratuaz.*) Ezdakit ba...
- ELIANA.—Gerrikoekin...
- BRET.—Hori esan! gerrikoekin gerrikoez! (FABI-ri.) Bota zazu zure hori.
(*Bai batek eta bai besteak gerrikoak kenbitzate.*)

- FABI.—(*Burni tartetik bota beza berea.*) Har zazu.
- ELIANA.—(*Bilduaz.*) Neuk egingo dut. Binbitartean, har zazu anka bat eta kolpeka hasteko zaude prest... (*Bi gerrikoak lotu, eta mutur bat hebillatik pasatuaz, uztai baten antzeko zerbait egin beza.*)
- FABI.—Nik zer egin nezake?
- BRET.—Geldi zu. Ez gaitzke denok batera lanean har. Zaude prest, beste aldera eskapatzen balitz ere. Erne, beraz!
(*Ez mugitu egin da. Zutitzea bezela egin du, baiñan, gero, lurrean etzan bedi. Besteak hari begira daude.*)
- FABI.—Ikusi ahal duzue?
- BRET.—Bai. Esnatuko zala uste nuen. Horrela mugitzeko, nahi eta nahiez esnai dago gizon hau...
- SELENA.—(*Bankutik.*) Ez; ez bide da lokartzen gu bezala. Gu ez bezalakoa da.
- BRET.—Hala bide da. Baiñan ez dezagun denborarik alperrik gal. Emazu hor, ELIANA!
(*Mutur batitik eldu eta beste muturra gizonaren kontra botako du; Binbitartean BRET, ankari bi eskuekin elduta, joka hasteko gertu dago. Baiñan, soka, doidoia eta goxoki erori da Ez-en gainera.*)
- FABI.—Orain bai esnatuko dala...
(*ELIANA, bere hartan saiatzen da, bainan gauza onik ez zaio atera. SELENA, alkitik altxa eta besteengana hurbildu da, haiek dagitena ikus asmotan.*)
- ELIANA.—(*Porfiatuaz.*) Hauxen ere zailla da...
- BRET.—Utz idazu. (*Soka hartzen dio eta anka ematen.*) Honeraiño ekartzen banu, has berehalaxe kaskaka, erdi-erdian kolpe bat eman.
(*Ez-en zangoak lotu nahiez, hara egorri du soka. Denak begira begira daude. Soka ez da lotu Ez-en zangoei.*)
- BRET.—Bai, egiazki gauza zailla da...
- FABI.—Ez dugu ezer onik lortuko. Beste era batetara beharbada. Zaude... (*Alkandora kendu, bi puska egin eta muturrez bibiztoa egin du. Aski luzea dala iruditu zaio eta, lot bezaio ankari.*)
- BRET.—(*Zer ari ote dan jakin miñez.*) Zertarako duzu hori?
- FABI.—Ikusiko duzu. Har zazu...
(*Burniz bestaldera anka bota beza; BRET-ek, makurtuaz, har beza.*)
- ELIANA.—Zertarako dan oraintxe konturatu naiz. Zangoen azpitik pasa eta...

- FABI.—Hori bera. (BRET-i). Ba dakizu orain.
(Alde banatatik sokari elduaz, Ez-en zangoen azpitik soka pasa bezate.)
- BRET.—Zer egingo dugu orain?
- FABI.—Itzul idazu anka.
- BRET.—Zer asmazioa! Zer gauza bitxia!
(Anka bota dio; FABI-k har beza.)
- FABI.—*(Soka askatu eta SELENA-ri.)* Zer nahi duzu; lotuta honeraiño ekartzea ala bertan kolpeka hastea?
(Ez, bapatean, BRET eta ELIANA dauden gelataro bihurtu da. Zangoak mugitu ditu, eta mugimentuaz, eskuetan zituen bi soka muturrak aldegin diote FABI-ri.)
- BRET.—Otx! otx!
- FABI.—Madarikatu alena! *(Burni tartetatik eskuak luza eta sokaren bi muturrak hartu nahi ditu.)*
- BRET.—Zaude! Orain gertuago dadukagu eta.
(ELIANA makurtuaz Ez-en zango bati lotu da, eta bur-nietaraiño erakartzen saiatuko da. Binbitartean BRET, an-kaz kolpea emateko gertu dago.)
- BRET.—Eldu zaiozu gogorrago!
(Bere burua loturik ikusi danean, Ez esnatu egin da. Oiña askatzen ahalegiñak egin bitza; aska beza eta zutitu bedi. Lurrean eseri da, eta beste guztiek atzera egin dute. Ez haien begira geratu da.)
- Ez.—Zer demontre gertatzen da hemen?
- ELIANA.—Zer?
- Ez.—Zer egin nahi zenuten? *(Soka har eta ikusmira beza.)*
- BRET.—Ezer ez.
- FABI.—Ez orain eta ez behiñere ez gera ezer egiten saiatu.
(FABI-k eta BRET-ek atzera egiñaz, norberaren alkira jo dute; han anakak utz bitzate.)
- Ez.—*(Soka erakuski.)* Hau zer da ba?
- ELIANA.—Jolasean genbiltzan.
- Ez.—*(Zorrotz eta akusatzaille.)* Preso altxatu nahi ninduzuten!
- ELIANA.—Zuk nahi ez duzunik ezin egin genezake.
- Ez.—Lokarturik nintzan ordea.
- ELIANA.—Dana dala, ez dugu borondaterik, ez gera gure esku.
- Ez.—*(Mespretxuz.)* Arratoiak ez besteak! *(Soka alde batera boteaz.)* Laguntzarik gabe diranei kalte egiten dien arratoiak bezalakoak zerate. Eskua jaso orduko txistu bizian aldegiten bai dute!
- BRET.—*(Bere onera etorri da.)* Ez da egia. Ez digu berak uste duan bezelako bildurrik sartzen, ez...

EZ.—Saiatu ere ez nauk saiatu sekula bildurrik sartzen. Bildurrak bizi bazerate, bildur hori, zeok zeren barruan sortu duzutela-ko da.

FABI.—Burniak sartu digute.

EZ.—Burniok zeokin izan dituzue beti.

FABI.—Halako batean ez ordea.

SELENA.—(*Erreguz.*) Fabi!

FABI.—Zer nahi duzu SELENA?

SELENA.—Zer ari zakizkio zirika?

FABI.—Ez natzaio zirika ari. Egunen batez gertatuko dana adierazi diot.

ELIANA.—Zu beste iñor ez da hemen bildurrak dagoenik. Zure burua gordetzeko jarri dituzu hain zuzen burniok.

EZ.—Zerk egiten zidan kalterik horrela gorde nadin?

ELIANA.—Gure baitan dugun indar izkutuak. Berak ikusten ez duen indar bat ba dugu, su bat, eta hori dala eta gaitu preso altxatu.

EZ.—Zeon burugabekerien kontra gordetzen zaituztet.

BRET.—Arnasarik har ez ditekean mundu zikin hontan hori dala eta biziarazten ote gaitu? Gu zaintzeko beste nehurririk ez ote diteke hartu? Dakien guztia guri jakiñaraziaz edo?

(*Ez altxatu egin da, bainan ez du erantzunik eman.*)

BRET.—(*Burnien ondoraiño hurbilduaz.*) Zure jakinduria hartzeko nor ez bagiña bezela, dakizun guztia zuretzako bakarrik zergatik gordetzen duzu?

EZ.—(*Burnietara keiñu bat egin-eta.*) Atzera ortik!

(*BRET ez da mugitu.*)

EZ.—Zer esan diat? Egin ezak atzera hortik!

BRET.—Zergatik egingo dut? Nere barrutian nago. Mugarriok ipiñi bazenituen, gu eta zure arteko barrutia mugatzeko jarri zenituen hain zuen. Begira: mugarria honeraiño da.

EZ.—Ez ahal duk nere esanik egin nahi?

FABI.—(*Burnietaraiño aurreratu ondoren.*) Ez nik eta ez iñork ez du egin nahi zure esanik, Ez. Burniz barrutik dagoen guztia, gure da. Halako batean, burniz kanpotik dagoena ere halaxe izango da.

SELENA.—Fabi!

EZ.—(*Mespretxuz.*) Gaixo errukarriak!... Hobeto beharrean ari zerate bainan ez baiduzue hortarako mediorik...

FABI.—(*Entzuteak pupua egin dio.*) Har zazu berriz lo eta ikusiko dugu.

EZ.—Zerbait egin nahi izan didazutela, egia da beraz?

FABI.—(*Behingoan dena esan nahi du.*) Bai, ez dizut gehiago izkutatuko, eta garbi esango dut. Hemendik aurrera, ahal dugun guztian ahal bestean saiaturiko gera gaiñera.

- Ez.—Zergatik hemendik aurrera? Zer da gertatu?
- FABI.—Geon konzientziaren berri piskana piskana ikasten ari gera.
Berez etorri dan gauza da.
- Ez.—(SELENA-ri ari da.) Hi ere bai?
- FABI.—Hau ere bai.
- Ez.—Mintza bekit bera.
- SELENA.—Ni... hauekin bat nago.
- ELIANA.—Hori da, Selena!
- Ez.—Ez ote dakizute zigortu zaitzakedala?
- FABI.—(Sinisgogor.) Bai ote?
- Ez.—Bai.
- FABI.—Aditu ahal duzu, Bret? Aditu ahal duzue zuek?
- BRET.—Bai. Barruz dan bezelakoxea agertzen hasi da. Lehenago ager zedin, zergatik ez ote dugu gehiago behartu?
- Ez.—Burugabeok! (*Makurtu, periodikoa har eta urduri-urduri tolesta beza.*)
- BRET.—Iseka hasi adi, hori behar genian orain!
- Ez.—Hika hitz egin didak!
- BRET.—Eta, hik, zer nola egiten didak?
- Ez.—(Periodikoaz kolpe bat eman nahiaz.) Zoroa!
- FABI.—Hontara jarri geran ezkerro, Ez, gure eskuetara beharko duk.
- Ez.—(Isiltasun bat, eta gero hotz-hotz.) Lokaturik nintzan bitar-tean, zer arraio gertatu da hemen?
- FABI.—Ez ote dakik ba?
- ELIANA.—Ez diagu esango.
- BRET.—Zergatik ez diogu ezango?
- SELENA.—Geok bai ahal dakigu?
(*Ez parrez ari da.*)
- FABI.—Egin zak parre! Zer gertatu dan ez dakigula eta, zer? Nor-baitentzat bai eta hiretzak dik garrantzia, ez guretzat. Lokartu haiz, eta esnatu haizenean, gizon berri batzuekin aurkitu haiz.
- Ez.—Buruan nahasmendu bat zerabilten miserable batzuekin...
- FABI.—Heuk esan duk. Eta horra, orain, behar ditugun erantzunak ematera behartuko haugu.
- Ez.—(Gaitzitu da, eta periodikoaz kolpeka has bedi.) Egin zak atzera hortik, ero arraioa!
- FABI.—(Atzera egin du.) Egingo diat, bainan hare gogorrago salto egiteko... (*Idea berri bat etorri balitzaio bezala, atzera egin du eta alkiaren anka biltzera joan da.*)
- SELENA.—Fabi! Fabi!
- FABI.—(SELENA-ren aurrean gelditurik.) Ez genezake berriz atzera egin. Konturatu ahalzera, Selena?

- SELENA.—(*Apal-apal.*) Hala da bai, Fabi; barka nazazu.
- FABI.—(*Burnietara jo du, zuzenik Ez-engana.*) Orain, hik eta biok...
(*Burnien tarteetatik sar beza anka, baiñan Ez ankari lotu zaio eta errez kentzen dio.* BRET, *bere ankaren billa doa korrika.*)
- EZ.—Txotxoloa! (*Burnien kontra kolpeka has bedi; ordurako FABI-k eskua erretiraturik du.*) Indar hoiek zertarako dirala uste duk?
- BRET.—Eta hireak zertarako balio dio?
- EZ.—(*Ez eta BRET buruz buru, BRET-ek anka atzean izkuta beza.*) Ez diat inoiz zigorraz baliatu nahi izan. Zuek bai, bururik gabeko pertsona...
- BRET.—(*Lasa-lasai.*) Bai, e? Hurbildu adi piska bat...
(*Bapatean Ez burnietara hurbildu da eta bere ankaz burnian kontra kolpeka, hasiko da.*)
- BRET.—Zer ari haiz hor kolpeka? Burniok gure kolpetatik gordetzen hauten bezala gaituztek hire kolpetatik gordetzen.
- FABI.—(*Bere onera etorri da.*) Eta gaiñera, burniok gora behera, burruka irabazik egingo diagu.
- EZ.—(*Gelaren erdian zutik, mespretxuz beterik.*) Galdoak!
- ELIANA.—Lehenago giñuen ez orain hik esan bezelako; izan ere lokartu haiz garbi asko ikusi diagu nolako ahula haizen.
- BRET.—Kate-txakurra ez bestea.
- EZ.—Zeon gorrotoari lotuta bizi zerate...
- BRET.—Gorrotoa, esan duk? Nundik nora ikasi diagu norbait gorroto izaten? Gure inguruan egin dan presondegi hau bezelakoa egiteko ez ote da behar gorroto bizia?
- EZ.—Zeon kontra zaituztet gordetzen.
- FABI.—(*Iseskaz eta ironiaz.*) Maite ahal gaituk, beraz?
- EZ.—Hartzen ditudan neke guztiak zeungatik ez ote dizkiat hartzen?
- FABI.—Gu ez beste inor eta ezer ez duk hirerik, eta zer behar duk hik gugatik nekerik hartu! Hor bazterrean utziko bahindugu, zer egingo ote uke?
- ELIANA.—Oraintxe ere lehen baiño gutxiago balio duk, izan ere hire kontra altxatu bai gaituk.
- EZ.—Zer ote dakizute horretxen beharrean ez ote nintzan aurkitzen?
- BRET.—(*Sinisgogor.*) Hori ere bai? Zertarako nahi izango huen?
- EZ.—Zuen ezerezaz eta umiltasunaz nekaturik bide nengoan.
- BRET.—Ez gaituk sekula izan hik uste bezin ezerez eta umil. Gure baitan, beti hire kontra egin gaituk.
- EZ.—Ni neroni niñuen nere kontra ari nintzana...
- BRET.—Beharbada. Baiñan hori horrela delarik, luzenean ere, kondenaturik hago.

- FABI.—Uztazu pakean. Ez du gurekin zer eginik. Gugandik urruti bizi da, mugaz beste aldetik. Zer nolako suaz anka kendu didan, ez ahal zerate oharatu? Eta burnien kontra zer nolako amorrazioaz hasi dan?
- BRET.—Egia diozu, bai.
- FABI.—Berenez ahul utsa dan batek bakarrik joka zezakean horrela. Bere onetik atera dan batek.
- EZ.—Ez duzue ezer konprenditzen!
- ELIANA.—Horrela bada, zergatik ez gaituk argitzen?
- EZ.—Zergatik ez dio zuetako bakoitzak bere buruari argitasunik galdegiten?
- FABI.—Egin zioagu, eta orain hor dakusak ondorioa.
- BRET.—Sekula atera ez bezelakoa atera zaigula iruditu zaiguk.
- SELENA.—(Nun dagoen ez dakien batek bezala.) Gure mugarrria hi haiz.
- ELIANA eta BRET.—(Biak batera.) Zer diozu? (Denak ari begira, Ez barne.)
- FABI.—(Gauza bera dio.) Gure mugarrria hi haiz... Selena. (Ondora joan bekio eta besotik eldu.) Zer esan duzun bai ote dakizu?
- SELENA.—Bai...
- EZ.—Horren esanak ez du bururik ez aztalik. (Atzera egin eta barennean dagoen alkiraiño joango da.)
- BRET.—Minbera dan lekuan ikutu bide dugu... Mintza zaite, Selena.
- SELENA.—Ez dakit...
- ELIANA.—Hizketan ari giñalarik, gure hizketaldia hautsi du Ez-ek, gogoko ez balu bezala. Zerbaitetara hurbiltzen ari ote giñan nago...
- SELENA.—...bai, gure baitan dugun azken posibilitadecera.
- BRET.—Zer da hori?
- FABI.—Nik neuk ez dut konprenditzen. Zer esan nahi izan duzu, Selena?
- SELENA.—Gu guztion azken muga Ez da... harengana ari gera.
- BRET.—(ELIANA-ri mintzo.) Zerbaiten berri ba du!
- ELIANA.—Gu geran bezelakoa ez baita sekula izandu.
- FABI.—Hitzegin zazu, Selena!
- SELENA.—Berak markatzen digu muga. Handik aurrera... beste aldera...
- FABI.—Beste aldera... Esazu, esazu, Selena!
- SELENA.—Handik beste aldera... sekula igaro ez ditezkean burniak daude! (Zerraldo bezela erori da.)
- FABI.—(SELENA-rengana makurtuaz.) Selena!
- BRET.—Zer du?

ELIANA.—Zer gertatzen zaio, Fabi?
 FABI.—(Eztiki eztiki masailleko bat emanaz.) Selena, Selena!
 SELENA.—Zer nahi duzu, Fabi?
 FABI.—Hobeto ahal zaude?
 SELENA.—Bai, baiñan oso nekatuta.
 FABI.—Zer dira beste burni hoiek?
 SELENA.—Beste burni hoiek? Ez dakit. Ez oraindik ere lo ahal dago?
 FABI.—Esnatu zala, ez ahal zera oroitzen?
 SELENA.—(Nekatuta bezela.) A, baliteke bai. Utz nazazu atsedean piska bat hartzen.
 ELIANA.—Zer du?
 FABI.—(Zutituaz.) Atsedean piska bat hartu nahi du.
 BRET.—(Ez zertan dan begira egon eta gero.) Begira! (Hara begira geratu dira danak.) Ezertarako gauza ez balitz bezela dago.
 FABI.—Delako beste burni hoiek aipatu ditualako ote da?
 ELIANA.—Baliteke. Baiñan, zer esan nahi zuen?
 EZ.—Ezer ez.
 BRET.—Ikusirik dago horrek zer esango duen. Gu gera gu Selena-k esandakoari adierazpen bat billatuko diogunak.
 FABI.—(Ez markatuaz.) Gu guztion muga dala esan du...
 BRET.—Baiñan zer arraio! Bertaraiño iritxi eta aurrera egiten uzten ez duen mugarria da muga...
 FABI.—Eginkizun zegoen gauza baten gertatzea da muga.
 ELIANA.—Gauza baten zertzea, alegia...
 BRET.—Biok gauza bat eta bera esan duzue.
 FABI.—Ba da beste berzait... A, ez dakit zuzen zer dan! Ikusten bezela dut eta halaz guztiz ere ez zait bururatzen.
 ELIANA.—Hori bera gertatzen zait...
 BRET.—(Ez markatuaz.) Horrek ordea ez du argitasunik emango.
 ELIANA.—Zangoz gora botatzeko beste pauso eman bai dugu.
 EZ.—Zeon buruak ondatzeko, iñozuak.
 FABI.—Ez da hori... gauden hontatik, zure kontura aurrera pauso bat emateko baizik.
 ELIANA.—Nago, ez ote diran orain burniok ahultxeago...
 EZ.—Lilluretatik bakarrik bizi izandu zerate beti. Oraindik ere ez ahal duzute konprenditu? Zuen muga burniok dira. Gauza berrik eta ez zenekitenik, ez dizute esan!
 FABI.—Ez da gure muga, esan du.
 EZ.—Aspaldidanik iritxi zerate mugaraiño. Betidanik...
 SELENA.—(Lurretik, nahaste-mahaste.) Burniak kanpoan daude.
 EZ.—Burniak barruan daude.
 FABI.—(SELENA-rengana makurtuaz.) Selena.
 SELENA.—Nekatuta nago...

BRET.—Lehengoaz ari ahal dira?

ELIANA.—Ez dirudi.

EZ.—(*Altxatu eta.*) Zuen hitzontzikeriak aspertu naute oraintxe! Behingoz isilduko ahal zerate?

BRET.—Oraintxe bai ez gerala gehiago isilduko.

EZ.—(*Ankaz burniak joaz.*) Isilik egoteko agindu dizuet!

FABI.—(*SELENA bere hartan utzi eta.*) Lehenik burni hoi en berri emauguk.

EZ.—Ez dago zer berririk eman.

FABI.—Ez daukak hortarako aski kemenik. Geu baiño bildurrago aihz. Hi ere, apurtu eta desegingu ote intake?

BRET.—Bai horixe! Denon artean apurtuko dugula gaiñera, agintzen dizuet.

EZ.—Behin eta betirako isildu zaitezte!

BRET.—Hi baiño sendoago gerala, egunen batez ohartuko bai gaituk.

EZ.—Zaudeteneko barruti hortatik, ala?

BRET.—Hemendik eta nun-nahitik.

FABI.—Ez gaude beharbada ezeren atzean. Egia bide da, burniak barnean ditugula eta ez beste iñon, eta hala edo hola hoiezaz libratuko gerala. Hori gerta dedinean, hire atzaparretatik libre izango gaituk.

EZ.—Orain arte, ez duk iñor libratu nere atzaparretatik.

FABI.—Orain arte ez... Baiñan seguru gaudek, ba dala nunbait gizonarentzat libertaderik. Nola edo hala lortzen, ikasiko diagu.

SELENA.—(*Emeki-emeki altxatu eta.*) Geok ez badugu lortzen, gure seme-alabek lortuko dute.

EZ.—(*Isekaz.*) Nun dituzue seme-alaba hoiek?

SELENA.—Noiz ekarriko eta hartuko ditugun zai daude. Gaur arte gazteegi giñan eta ez geunden hortarako preparaturi. Baiñan, seme-alaba hoiek zai dauzkagu. Seme bat izango diagu, burrukan hire kontra jarraitzeko.

BRET.—Denetan bildurtiena bera zalakoan-da!

FABI.—Selena! Baiñan, hori...

SELENA.—Bai, Fabi. Gu baiño bizkorragoa izango dan seme bat ekarriko dut zuretzat, denontzat.

FABI.—Baiñan, noiztik...?

SELENA.—Oraintxe bertatik...

EZ.—Haur miserable bat!

SELENA.—(*Ez dio kusorik egingo, eta zorabiatuta bezela, lilluratuta bezela.*) Nere erraietan sentitzen dut, eta zer nolakoa izango dan ba dakit. Gu baiño ederragoa eta bizkorragoa!! (*Gela barrenean orain arte eserita eta geldi egon dan mutilla zutitu eta emakumearen eta FABI-ren erdian jarriko da. Zutik egongo da, batere mugimen-*

- turik gabe. Orain datorren deskripzio laburra alda diteke; akto-rearen kontura hori.)*
- SELENA.—Mutil sendo, haundi eta itxurakoa izango da, arpegikera bizi bizikoa eta illea beltza...
- FABI.—Ikusten edo dut, Selena. Azala beltzarana du eta begien dirdaia bizi-bizia...
- BRET.—(ELIANA-ri.) Baiñan, egiazki ikusten bide dute!
- SELENA.—Gu bion antzik ez du izango...
- FABI.—Ahoa gozoa du, baiñan bai ermoa ere!...
- EZ.—(Bere buruari mintzo.) Burutik eginda daude! (Ankaz burniaren kontra kolpeka has bedi, baiñan, bestea, bere hartan jarraituko dute, lilluratuta bezala.)
- SELENA.—Besoak zaintsuak eta sendoak...
- FABI.—Buruz argia iñor bada...
- ELIANA.—(SELENA-k hartu duen tankera bera, estua eta zorrotza harturik.) Nere alaba erabat ezta eta goxoa izango da, izandu zan lehendabiziko emakume hura bezelakoa...
- BRET.—(Arri eta zur.) Eliana! (Gelaren barrenean zetzan neskatxa altxatu eta BRET eta ELIANA-ren erdira etorriko da. Mutillari eman dizkiogun karakteristika berak izango ditu neskak.)
- ELIANA.—Goxoa dalarik ere, ba duke bere barruan halakoxe indar berezi bat, ez baita sekula santan jarriko jaiotzen ikusi zuten burni tartean bizitzera...
- BRET.—Eliana! Baiñan zu ere...
- ELIANA.—Ispillu bat bezin garbiak eta argiak dira here begiak, eta ba daki hitz berorik esaten. Gudariarentzat berebiziko laguna liteke.
- SELENA.—Ez dute bidean etsiko, eta ez ditu iñork menderatuko.
- ELIANA.—Biak bat eginik, beste edonor eta beste edozer baiño gogorragoak eta sendoagoak izango dira.
- EZ.—(Parrez.) Amets, edonori egin lezake amets!
- FABI.—Hago isilik!
- SELENA.—Burrukan jarraituko duten gure ondorengoak eta Ez-i su eta fu erasoko diotenak, dira.
- ELIANA.—Itxaropen indarrak ereginda eta maitasunak darion sinismenean bat egin-da.
- BRET.—Aditu ahal duzu, Fabi?
- FABI.—Bai, aditu dut eta ba dakust nere seme hau... eta zuen alaba hori ere.
- BRET.—Nik ere. Ederra da neskatxa, zuen semearentzat gisakoa, narrua fiña du eta illea urrezkoa. Gisako izen bat aurkitu dut honentzat...
- FABI.—Zein izen?

- EZ.—(*Bapatean hizketan sartu eta.*) Lotan zaudete eta konturatu ere ez zerate egiten. Zuen ametsak gora behera, bizitzak aurrera jarraitzen du, eta lehen bezalako da: antzu eta miserablea, hots, burnien tartekoa.
- BRET.—(*Ez-engana itzuli eta aski eztiki.*) Isilik hago, Ez. Burniok apurtuko dituztela entzun duk eta...
- EZ.—Zuek ere, hautsi nahiko zenituzkean...
- FABI.—Gure gurasoa bildurtiak baiño gehiago lortu diagu behintzat.
- SELENA.—Feda-rekin bukatuko dira kateak...
- EZ.—Feda?
- FABI.—Feda deritza gure semea.
- BRET.—Sorne barriz gure alaba.
- SELENA.—Alkar maitatuko dute, eta burrukatuko dira.
- EZ.—(*Parrez.*) Bakoitza bere gelatik!
- ELIANA.—Ez dagoko hoientzat gelarik. Jaiotzetik bertatik hoién semea libre izango da.
- EZ.—Zuek baiño esklaboago izango da. Egiten ori zeratenaz ere ez zerate konturatzen: oiñazezko eta itxaropenik gabeko biharamona ari zerate sortzen, alegia.
- SELENA.—Alkarren artean hitz gutxi egingo dute, izan ere, hitzak ez baiñan egiñak izango bai dituzte erakusgarri.
- ELIANA.—Ez-en gaiñetik pasatuko dira, izan ere, geok asmatu dugun ataka faltso bat besterik ez baita gizon hau.
- EZ.—(*Isekaz.*) Hori behar nuen. Ba naizela ere uka ezazue! (*Serioski.*) Hor daude burniak bizi naizelako zeññale. Edo eta zer uste duzue, aski dala zuen deseoa eta gurariz burniok ankaz gora botatzeko? Begira ezazue eta ikus zein sendo dauden! (*Burniei zenbait kolpe bezaie.*)
- SELENA.—Horrenak ia egin du. Feda, nere erraietan, dagoaneko burrukan hasia da. Bera da mintzo. Gauden eldu arte. Gure erraien isiltasunean eta pakean, biak, Feda eta Sorne garatu arte... (*Mutillak eta neskak atzera egin dute; gela hondora joan eta lehen zeuden bezala geratuko dira. Emakume biak lurrera erori dira, erabat nekatuta. Gizonak, haiengana makurtu bitez.*)
- FABI.—Selena...
- BRET.—Eliana...
- FABI.—(*Aurpegian zenbait kolpe txiki emanaz.*) Selena, Selena!
- BRET.—(*Illea igurtziaz.*) Eliana, zer duzu?
- SELENA.—(*Begiak iriki eta.*) Fabi...
- FABI.—Bai.
- ELIANA.—(*Begiak iriki ditu.*) Ene, Bret!
- SELENA.—Zu ahal zera?
- EZ.—(*Ez hotz ez bero.*) Hauek dira komediak egiteko moduak!!

- BRET.—Eliana...
- FABI.—Ni ez eta nor izango da ba!
- SELENA eta ELIANA.—(*Biak batera.*) Zer gertatu da hemen?
- FABI eta BRET.—(*Biak batera.*) Ez ahal zera oroitzen? (*Instante batzuk eta bi emakumeak, nekatuta bezela, zuzpirioka.*)
- SELENA.—Behin eta betirako Ez burrukatu genuela, amets egin dut.
- ELIANA.—Jakiña ba burrukatu dugula!
- EZ.—(*Burniak poliki poliki joaz.*) Oraindik ere hemen nago. Gaiñera egon, hementxe egongo naiz orain eta beti.
- BRET.—(*Zerbait ausnar baleza bezala.*) Auskalo! Beharbada ez zaudete eta hortaz ez gera konturatu ere egiten. Piskanaka piskanaka...
- EZ.—Ez naizela esatea ez duzue aski nitaz libratzeko, ni gabe gelditzeko.
- ELIANA.—(*Altxatu eta.*) Ator honerago...
- EZ.—Neri esan ahal didan?
- ELIANA.—Bai, ator gertuago. (*Zer gerta ere, poliki poliki hondoratu da Ez, behar balitz, kolpeka hasteko eskuan anka prest duelarik. Burnietara gabe gertu-gertu ordea, gelditu da.*) Gertuago.
- EZ.—(*Ez da pio.*) Zergatik?
- ELIANA.—(*Lasai.*) Ikusi egin nahi haut.
- EZ.—Ikusten naun nagoen lekutik bertatik ere.
- ELIANA.—Hare hobeto ikusi nahi haut. (*Ez-ek beste urrats bat egin du, eta burnien kontra gelditu da, besoa gora, kolpeka hasteko prest.*)
- EZ.—Begira nazan, ba.
- ELIANA.—(*Zorrotz eta luze begiratu ondoren.*) Ez, ez haiz lehengoa.
- EZ.—(*Isekaz.*) Ez, e?
- ELIANA.—Hire barruan zerbait ziak amilbehera. Iñolaz ere, usteltzen ari dan zer bait ikusten edo...
- BRET.—(*Ondora etor bekio eta azter beza Ez.*) Nik ez dut ezer ikusten horren baitan, Eliana.
- ELIANA.—Bai. Gaurgero ez da muga. Gaurgero ez da ezer...
- EZ.—(*Lasai.*) Ikusteko guztiak ikusi ahal ditun?
- ELIANA.—Bai, joan indeke pakean.
- EZ.—(*Harro eta antustez beterik.*) Aztertu nahi nauenik, besterik iñor bai ahal da? Orain da garaia, galdegin ezazue!
- SELENA.—(*Altxatu eta.*) Bai, nik.
- EZ.—(*Burnietara joaki.*) Ikustagun zer billatzen dunan! (*SELENA-k eta FABI-k azter bezate.*)
- SELENA.—Ezerez bat haiz...
- EZ.—Zuek bezalakoa beraz?...
- SELENA.—Okerragoa noski; gu behintzat humil jokatu gaituk gure bititza guztian, hi berriz harro.

EZ.—Honelako isil-gordeak argitara atera dituzue gero, zer egin behar duzue? (*Ez du iñork erantzunik.*) Zertarako baliaraz ditzaitezue? Agi danez, orain lehen bezala, burnien atzean jarraitzen duzue.

BRET.—Burni eta guzti, egiaren billa goatzek. Zenbat eta hitz gehiago eta egiatik hurbiltzenago gaituk.

EZ.—Egia? Ez ote duzue bata edo bestea beti zuekin izen? Oraindañokoan ez ote naiz zuen egia izan?

BRET.—Gure egia, ez. Hirea.

EZ.—Hau edo bestea sinisterra ez zaituzte iñork behartu.

FABI.—Bai, burniok behartu gaituztek hire egia sinisterra. Astindu bat ematen ez giñuen iñoiz ere saiatu. Behingoz hasi geran ezkerro, naiz eta sendo eta gogor tinkaturik egon, ez zigutek halako errespeturik sartzen.

EZ.—Iges egiteko asmoa duzue beraz?

BRET.—Nola nahi ere, gauzak garbi esan, iges, egin diagu iges.

EZ.—Eta zer aurkitu duzue?

FABI.—(*Buru makurrik.*) Oraindik ezer ez.

EZ.—Hortik kanpora ezertxo ere ez bide dagoelako duk. Zuen eta nere egia, bat eta bera dalako edo duk; izan ere, egia bat besterik ez baitago.

BRET.—Egia bat bakarra dala, jakiña ba!... baiñan ez nik eman diguana. Nola nahi ere, gezurra sakatu diguala iruditzen zaidak.

EZ.—(*Burniak señalatuaz.*) Burniok gezurrik dioten, esaidezute!

ELIANA.—Hortxe hago hain zuzen oker. Naiz eta beroien barruan sarturik egon, hoiien tartetatik ez zitekek ezertxo ere ikus. Burniok pareta bat bezala dituk, beste aldetik zer egon ditekean ez bai zitekek jakin. Eta horra! orian arte, beste aldetik ezertxo ere ez zegoela sinisten edo genian.

BRET.—Orain berriz, beste alde hori gure zai zeuden gauzez besterik dagoela konprenditu diagu.

EZ.—Ederki ari zerate. Luza hitzazue beraz eskuek...

FABI.—Hor sartzea debekaturik zedukagu, eta sar gaitezen ere ez duk nahi, baitakik, hor bestaldetik ez daukakeala aginpiderik ez eskubiderik.

EZ.—Eskuak luzatzeko esan eta esan ari natzaizue-eta...

FABI.—Zertarako? Makillaz kolpeka hasteko?...

EZ.—Auskalo! Ez ahal zerate ausartzen?

SELENA.—Bai, ba diagu hortarako aski ausardia, Ez; baiñan, aspaldi hontan, gauza asko ikasi diagu. Hire begira egonaz, hamaikatxo gauza ikasi diagu!

BRET.—Iritxi nahi dugun garaitzapena eta bitoria, hi gabe iritxiko dugula alegia, ikasi diagu.

- EZ.—Ni gabe ez duzue gauza onik egingo.
- BRET.—Egunen batez lokartuko haiz eta orduan...
- EZ.—Hori ikusteko zagok. Ononean ez nauk sekula gehiago lokartuko.
- SELENA.—Edo eta, behin eta betirako lokartuko haiz. Oraintxe bertan ere, erdi lo erdi esnai hago.
- EZ.—(*Oso alai.*) Zer dion?
- SELENA.—Burua nahasten ari gatzazkik eta hi konturatu ere ez haiz egiten. Honela nahastuta egotea eta lo egotea gauza bera duk.
- EZ.—(*Bizkarra bildu-eta.*) Ez du zentzurik...
- BRET.—Ba du!
- ELIANA.—(*Bero eta uráuri.*) Noizpait behar eta oraintxe esan diagu zerbait zuzenik eta ez diguk konprenditu!
- EZ.—(*Piska bat atzera egin du, harridurak hartuta bezala.*) Baiñan, horrekin zer esan nahi duzue?
- BRET.—Hi gora behera, higandik aparte dagoen zerbait, gure gurea dan zerbait asmatzen, sortzen hasiak gerala...
- FABI.—(*Besteak esandakoa sendotu nahiez.*) Ez, hauxe esan nahi dik: oraintxe lehendabiziko aldiz aparte utzi haugula.
- SELENA.—Higandik iges goazela...
- EZ.—(*Alkian eseri eta lasaixeago agertunahi du.*) Ondo dago. Kanpoan zaudete, libre zerate!
- BRET.—(*Erronkan hasi nahiez.*) Kanpora, gogoak ematen digunean joango gaituk. Higandik ezkutaku beharrik ere ez dugula, orain konturatzen nauk.
- EZ.—(*Eskua luza beza.*) Luza zak esku hori.
- BRET.—Zer?
- EZ.—Eskua luzatzeko!
- BRET.—Ez diat nahi.
- EZ.—(*Buruari batera eta bestera eragiñaz.*) Ezin dealako. Hori esan nahi nian. Oraindik ere burnia sendo zegok.
- BRET.—Ez egotea ba litekek. Bildurtu egin nahi gaituk.
- EZ.—Aproba bat egin zak.
- BRET.—Noizpait egiten ba dut ere ez diat nik agindu dealako egingo, baizik eta gogoak emango didalako.
- EZ.—Burni tartetatik, batetik bestera posa intekeala uste ahal duk beraz?
- BRET.—Bai, orain hala uste diat.
- EZ.—Jo zak aurrera beraz, pasa zak.
- BRET.—Lehen ere esan diat: gogoak emango didanean pasako diat.
- EZ.—(*Fabi-ri mintzo.*) Eta hik?
- FABI.—(*Ez da BRET bezin seguru.*) Nik ere bai. Denok pasako diagu, seguruasko.

EZ.—Hitz eta amets asko jarabilkizue kasko hortan, hori da dana.
SELENA.—Giltza misteriosoak bezela dira hitzak...

EZ.—...baiñan ezer irikitzen ez dutenak. Hain misteriosoak eta ez-kutuak, zein sarrailletan sar ez baidakiak zue, ez zein atetarako balio duten. (*Altxa eta lehendabiziko planoan paseatzen has bedi.*) Sakelan gorderik daukazuten bitartean, urre gorria gordetzen duzuelakoan zaudete. Giltz bat! (*Eskua sakelan sar eta bat atera beza.*) Zerbaitetarako egin zuten, ez da? Baiñan, norbaitek egin ote du giltz honi zegokion sarraila? Norbaitek egin da bu, nun ote dago ordea?

ELIANA.—Giltz bat, hontarako eta hartarako egokitu diteke, konpondu diteke.

FABI.—Hitz egiteko gogoia besterik ez da hori.

EZ.—Jakiña ba! Hitzak, hitzak. Horra! Hortaz ohartu zaitezten garaia ba da. Hortxe nahasten zerate. Giltz bat ez baiñan, giltz mordo bat baiduzue zeokin, denak nahas mahas.

BRET.—Horrela bada, batekin eta bestearekin aprobak egitea diagu onena.

EZ.—(*Giltza gorde-eta.*) Hori behar diagu! Egunak eta gauak aprobak egiten igaro eta azkenean heriotza gainean. Izan ere hainbeste eta hainbeste giltz zegok!

ELIANA.—Baiñan hainbesteren artean, zein behar eta huraxe aukeratu zizuk senak.

EZ.—Senak?

ELIANA.—Bai. Otsegiok nahi dean bezala.

EZ.—Sarrailak behin eta berriz berritu diralako, eta giltzak zaharregiak diralako giltz hoietako batek ere ez duela ezertarako balio, ez ote dizute esaten senak?

BRET.—Hik zer dakik, giltzok berritzen eta kanbiatzen eta zer nahi sarraileri egokitzen ez ote dakigun? Eta orain, orain hain zuzen ere, beharko genukean hura aurkituko ez ote dugun?

EZ.—Horrela ote da? Iriki zak, beraz!

BRET.—Gogoak emango digunean irikiko dugula, lehen ere esan diagu.

EZ.—(*Isekaz.*) Orain presondegia maite duzutelakoz eta bertatik atera ez nahi duzutelakoz ote da?

FABI.—Baiñan, askatasuna, libertatea eman zaion gizona, bere kabuz lortu badu batez ere, ez lezake inork geldiaraz.

EZ.—Lasa lasai hementxe itxoegingo dut ba. (*Alkira itzulieta eseri egingo da.*)

FABI.—(*Geldiune bat; denak Ez-i begira.*) Bret...

BRET.—Zer?

FABI.—Atoz. (*Lehen planora etor dedin galdegiten dio, eta bera ere halaxe dator.*) Seguru ahal zaude?

BRET.—Zertaz egon naiteke seguru?

FABI.—Ateratzerik izango dugula?

BRET.—Zuk ateratzerik izango duzunez, ez dakit...

FABI.—Zergatik ez?

BRET.—Dudatzen duzulako, horrexengatik hain zuzen.

FABI.—Zuk ez?

BRET.—Ez. Hemen bagaude, gugan konfiantzarik ez dugulako dala hain zuzen ere, garbi ikusi dut. Orain ordea. (*Atzera egin beza, indarrrik hartzeko edo.*) Begira! (*Burnietara habia bedi; FABI eta emakumeak haren begira daude.*) Begiak hetsi ditu, aurrean duen ostopoa ez ikusteko; baiñan, burniak ez diote pasa-biderik eman. Burnien kontra leher bedi.

ELIANA.—(*Burnietara kurri.*) Bret! (*Ez alkitik bertatik, parrez leher gaizto egin beharrez.*)

Ez.—Zuzenez kontrako giltzaren bat hartuko huen, ez da? (*ELIANA alde batera utz eta bere gelaran barrena, Ez-en billa doa zuzenik.*)

BRET.—Parre egin zak, egin zak parre kartzeleru madarikatua! Mia eta mia jarraituko diat eta halako batean aurkituko diat. Murkituko diagu!

Ez.—(*Lasa-lasai.*) Zeok aurkitzen ez baduzute, zeon seme-alabak, ez dea? (*BRET-ek ez beste guztiek, gelarren barrenera, atzera egin dute.*)

BRET.—Euk esan duk, hala gertatuko duk.

Ez.—Nik ba zekiat horra ez! (*BRET-ek atzera egin eta Ez parrez ari dan bitartean, jetsi bedi.*)

OIHALA

BIGARREN AKTOA

Lehendabiziko ekitaldiko apaingarri berak. Harrezkero, urte asko igaro da, jaió ez-ezik kozkortu alegin dira seme-alabak. Eskuiñeko gelan, FABI eta SELENA; aulkiek, batek behintzat, hiru anka soil ditu, eta doi doia egon diteke zutik. FEDA semea, batetik bestera dabil, dena ero aire, zigarrilloa erre eta erre. FABI eta SELENA, FEDA-ri begira-begira. Ezkerreko gelan gauza bertsua gertatzen da: BRET eta ELIANA, eseririk dagoz, aulkitako bat, hiru ankadun da eta doi doia egon diteke zutik; SORNE alaba, geldi dago, burni-habeei lotuta eta beste aldeko gelara begira. Erdiko gelan, Ez; aulkia lehen planora aurreratu du, eta lehengo periodiku hura bera, ari da irakurtzen. Oihala altxa eta, bizpahiru minutuz ez da besterik entzungo ez ikusiko, dena isil. FEDA gora eta behera dabil, gelditu gabe.

FABI.—(*Zerbait asarreturik.*) Oraindik ez ahal zera nekatu, Feda?

FEDA.—(*Bere hartan, gelditu gabe.*) Ez.

EZ.—(*Begiak altxa-eta.*) Zer esan duk?

FEDA.—Irakur ezak eta isilik hago.

EZ.—A! (*Bizkarra bil eta hartu duen aholkua jarrai beza.*)

SELENA.—Gehiegi erretzen duzu, seme!

FEDA.—Ez.

EZ.—(*Begiak altxa eta.*) Oraingo hontan ere ez ahal hintzaidan neri ari?

FEDA.—(*Hurbil bekio.*) Ez esaten dudanekoxe ez hadi nerekin sar. Oraintxe aspertu nauk!

EZ.—Ni ez.

FEDA.—Ni bai.

EZ.—Hi haizen aspergaitza!

FEDA.—Hi berriz eroa!

EZ.—Begira gero zer dioan!

FABI.—(*SELENA-ri.*) Guk ez genuen sekula itsusitu...

SELENA.—Ez bide zera oroitzen.

FEDA.—Gogoak ematen didan guztia zioat. Ero, iñozu, astakirten... Hago nahi baduk ezin erenez, baiñan nik gogak ematen didan guztia esango diat. Nere kontra ezertxo ere ezin egin bezake.

EZ.—Ezpal onekoa bainaiz!! Baiñan, kontuz, gorriak eta beltzak ez badituk ikusi nahi.

FEDA.—(*Bizkarra bilduaz.*) Hik eman-da ikustekotan... (*Zigarrilloa ahoan, gora eta behera jarrai beza. Bapatean, gera bedi eta burriak azter bitza. Berehala, gora eta behera hasiko da.*)

FABI.—Ezer?

FEDA.—Ez oraindik. (*Ez-ek «parre txiki» bat du; FEDA-k ez bezaio kasorik egin.*)

SORNE.—Zegatik penatzen zera horrela, Feda?

FEDA.—Ez naiz penatzen. Zer egin behar eta hura dagit. Zedozer onik aterako dudala, seguru naiz.

EZ.—(*Sudurra sartu nahiez.*) Hire gurasoak ere seguru hituen, Sorne-renak ere bai, zuen aitonak ere.

FEDA.—(*Geldiune.*) Aitonek bildur hinduten, gurasoak berriz hirekin hizka-mizka eta diskutitzen hasiak hituen, nik aldiz, mespretxatzen haut.

EZ.—Baiñan gauzan lehenean jarraitzen diate.

FEDA.—Bai eta zera ere, lehenean danik ez zegok ezer hain zuzen. Periodiku irakurtzaille bat besterik ez haiz hi neretzat.

EZ.—Halaz guztiz ere, hor zaudete burnien atzean.

FEDA.—Eta zer? Zer adierazi nahi duk horrekin?

EZ.—(*Parrez.*) Giltzapean zaudetela...

- FEDA.—Bai, eta gainera kartzeleroa hi haizela. Hori dala eta gogoan hartzekoa haizela uste ahal duk? Zirriztutik dena begi eta belarri, zer egiten eta esaten dugun jakin miñez, beti hor hago...
- EZ.—Are gehiago, Fedá, are gehiago. Hire isillean, hi lehertzen, hi zanpatzen. Burruka burugabe hau aurrera atera nahi izanik ere... ez baita hire ondorengorik sortuko. Urrutegi xamar daukak Sorne eta ez hatzaio lotuko. Historia honen azken-fiña zuek zerate.
- FEDA.—Halaxe duk. Prisionero berririk ez baita sortuko.
- EZ.—Hori bera; presondegi hontan ez duk besterik iñor sartuko. On-do ari gaituk.
- FEDA.—Zuzenez beste ari haiz. Noizpai Sorne-rekin bilduko bainaiz.
- SORNE.—Beste iñor ez eta gu izango gaituk lehenik libratuko geroak, eta gure seme-alabek burni-haberik izan zanik ez diate jakingo.
- EZ.—Zuen gurasoak hori bera ziotenan, ez dea Bret? Noizpait aterako ziñatela seguru ziñaten zuek ere...
- BRET.—(*Aulkitik bertatik.*) Eta gaudek. Gero eta laburtzenago baita gure hemengo txangoa.
- EZ.—Geroko gero horrekin zahartu zerate eta hilko ere zerate.
- FABI.—Gu baiño gogorragoak zetoztek seme-alabak. Gure eziñegonaren eta rebelioaren seme duk Fedá, ez zak ahaztu.
- EZ.—Ez ohi diat ezer ahaztutzen. Gertatu diranaz oroitzeko negok hemen hain zuzen, eta egia... ez ahal zerate harrotzen.
- SORNE.—Gezur esan duk. Burruka bizian egin nahiez saiatzeak bakarrik nahikoa goratu dizkik. Norbait badirala agertu ditek.
- EZ.—Hok ume ziranean, hoién gurasoek, mugaz beste aldetik ezin igaro zitekeala irakasten zieten hartan bezelaxe, hor zeudek oraindik ere ordea alkietan eserita.
- FEDA.—Gurasoek pasa-eziña zala bazieten ere, hok, hi gora-behera, pasa ditekeala ikusi ditek. Guk berriz, pauso bat gehiago joko diagu aurrera. Urteak eta egunak, hire kontra ari dituk, Ez.
- EZ.—Lehendik ere, zer-nun entzunik ote ditut hitzok? Hire aitak esan zituenez natxiok. Dana dala, esan ez balitu bezala duk, ez baita haietaz baliatu.
- FABI.—Horixe baliatu dala, egiaren ondorio diranez gero. Gure gurasoekin, dena duk zahar-berritu, dena duk berriz hasi. Burruka latzak ez dizkik agortu, hi berriz lehenean hago, gero eta zaharra-go, nekatuago eta gizon bati zor zaion itzalaz eta begiramenaz gabeago. Hire hitzetan, sinistu ere, ez diagu batere sinesten.
- EZ.—Neri ez eta iñorik sinistuko diozue ba?
- FEDA.—Hi beste norik ez bazegok, ez diagu ezer besterik gehiago sinistuko. Hori ere, hala edo hola hi desegiteko bide bat duk.
- EZ.—(*Ironiaz.*) Ni errukarria hala gerta badadi!

FEDA.—Beti gure atzetik habillenez gero, bildur piska bat sentitzen duk bai. Hor haiz dena belarri eta mingaiñ, guk hitz bat esan orduko. Ahaztuko ote haugun, bildurtuxe edo hago, ez dea? Age-rian zegok zer nahi dean: gurekin kizketan jardun; alki hori mutur batetik beste muturreraño ekarri duk, eta zertarako? eta hobeto ikus hazagun. Ahazturik utz ez hindezagun, eta jakiña, baztarren batetan galdurik buka ez hezan. Hori duk bildurraren bildurra, hori!... Tira txo! emak hor periodikua irakurtzen!

Ez.—Herronka herronkaren gaiñean, hori duk maite. Norbait ba-haizela azaldu naiez, horrelaxe pozten haiz, ez da? Zer iñozua! ni gabe ez huke zer egin jakingo eta hortaz ez haiz iñozo hori! konturatzen!

FEDA.—Besterik duk gizona, besterik! Hirekin bai ez dakidala zer egin, beti bide erdian estropozo egiten. Zer nolako kaltea egiten dean, konturatuko bahintz!

SORNE.—Ez egiozu hitzegin!

FEDA.—Zer esan duzu?

SORNE.—Gehiago hitzik ez zuzentzeko. Horrena guk konponduko dugu. Ekiozu zere lanari, hori ez balitz bezala.

BRET.—Zuzen ari da Sorne!

FABI.—Horren esanetara jarri zaitez.

FEDA.—(Parrez.) Bai. Dagoela hortxe erneatuta. Hori gehiago. Agur, Ez. (Eskuaz oso jestu berariazkoa dua.) Bion artekoak egin dik! Kito! (FEDA gelaren barru alderat, bijoa; FABI, SEL-NA, BRET eta ELIANA, aulkietatik altxa eta Ez-engana hurbil bitez; hau zertan dan burnien atzetik begira gera bitez.)

FABI.—Gu geldituko gatzazkik, laguntze-alde. Hain era negargarrian hi ikusita, kupittu egin gaituk.

Ez.—Ez zerate sekula zentzatuko iñozu burugabeok! (Periodikua ira-kurtzeari lot bekio.)

SORNE.—(Gelaren barru alderat joan eta gero.) Feda... ezer onik lortuko dugula uste ahal duzu?

FEDA.—Bai, Sorne. Hortara egiazki jartzen bagera, lortuko dugu.

SORNE.—Gure gurasoak ez ote ziran hortara egiazki jarri? Esan digutenez, behintzat...

FEDA.—Egin zuten guztia ordenarik gabe egin zuten... gaur hau, bihar hori. Ez ditut itsusitu eta beztu nahi. Izan ere, besteak beste, historia honek ez zezakeala horrela jarrai, beste iñor ez eta lehenik beroiek konturatu baitziran.

SORNE.—Zer egin dezakegu? Une hontan zer egin genezakean pen-tsaturik ahal duzu?

FEDA.—Lehenik, bizi geraneko leku hau mia dezagun.

SORNE.—Zer diozu?

FEDA.—Bizi geraneko lekuok, ezagutu ere ez ditugula ezagutzen, ez ahal zera ohartu? Ezagutzen ez dugun barruti batean bizi gera...

EZ.—(*Begiak altxatu eta.*) Hori behar genian! Zuzenez beste hitzegiteko gogoia behar da gero!...

SORNE.—(*FEDA-ri.*) Berriz ere zaunkaka hasia dugu.

FEDA.—Bai, eziñegonez dago. Hobe! Eziñegonago eta itxaropen haundiagoa.

EZ.—Ametsetatik bizitzea bezelakorik ez da. Hortxe bai zeratela mutiko iaioak.

FABI.—Bai, Ez... (*Bapatean isil eta irrikarkaraka has bedi. Gero, besteei.*) Ohartu ahal zerate?

ELIANA.—Zertaz?

FABI.—Bai, Ez... Bai, ez...

SELENA.—Bai, ez...

FABI.—Gaurti aurrera jakiñeko erantzuna dukek? Bai, ez. (*Danak parrez.*)

EZ.—Ero arraioak!

DENAK.—(*FEDA-k eta SORNE-k ez beste guztiek.*) Bai, ez! (*Danak parrez.*)

FEDA.—Gure lehenbiziko eginkizuna hauxe da beraz: arra bete bat utzi gabe, gure gelok goitik geherañño mia. Orain arte ez du iñork lan hau burutu. Burniak eta burniak, besterik ez genuen begi-bistan, eta kito! hor geratu gera. Baiñan, ingurumarian dauzkagun beste paretok? eta zorua? Burni-habe hoiak beroiek, ez ote dute nun edo han zuloren bat, hutsarte haundiagoren bat?... Konturatu ahal zera, Sorne?

SORNE.—Hontan hasten bagera, bizitza osoa joango zaigu.

FEDA.—Batek bost badaki! Suerte piska batekin... Gaiñera gazteak gera oraindik. Bestalde ni ez dut ikusten beste irtenbiderik.

SORNE.—(*Inguruetara begira.*) Hain ondo bakarrik mugaturik eta ordenaturik, dago dagoen guztia...

FEDA.—Eta zer? Itxuraz dagoke ondo mugatuta... Susmo txarrik hartuta bainago, ez ote diguten iruzur egin eta joku zikiñik sakatu.

EZ.—(*Sudurra sartu nahiez.*) Zein joko legez baliatzen ikusidan behar! Ez da zuei jokoaren legeak ipintzen hastea...

DENAK.—(*FEDA eta SORNE ez.*) Bai, ez!

EZ.—(*Nazkatuta.*) Uf!

SORNE.—(*FEDA-ri.*) Ez-ek dionak zentzu piska bat bide du...

FEDA.—Zer diozu?

SORNE.—Beharbada, jokia nork asmatu duen jakitea izango litza-keala onena, hori esan nahi nuke.

- FEDA.—Gurekin joku zikiñik egin badute, nun dan zikin jakin degagunean jakingo dugu zuk diozun hori. Eta orduan bai, orduan baztar guztiak sutan jarriko ditugu.
- SORNE.—Ondo da. Nundik nora nahi duzu has gaitezen?
- FEDA.—Zorua mihatzen hasiko ahal gera?
- SORNE.—Bai, zuk esan bezela egingo dugu.
- FEDA.—Jo zagus hortik beraz! (*Zigarrilloa bota, ahuspez jarri eta zorua aztertzen has bedi, hemen kaska eta han kolpe... SORNE-k hori bera egin beza. Denak haiei begira; Ez ere, periodikua utzi eta altxatu egin da, gertutik hobeto ikusteko asmoz.*)
- Ez.—(*Buruari eragiñaz.*) Hori da denbora alperrik eman beharra!
- BRET.—Bai, ez!!
- Ez.—Aspergarri huts bihurtu zeratela ez ahal dakizue?
- FABI.—Hik ez daukak hemen sudurra zertan sartu beharrik.
- Ez.—Zuek beste eskubiderik ba diat.
- FABI.—(*Besteei.*) Aditu ahal duzue?
- BRET.—Gutxi gora-behera bai.
- ELIANA.—Zer artzai mutilla! Artzaiñor bat bezin txintxo!
- Ez.—(*FEDA-ri.*) Adizak hi! Zer aurkituko deala uste duk hor?
- FABI.—Lehen ere esan diate. Denok iges egiteko moduko zulo baten billa arigaituk.
- Ez.—Ez zegok iñon horrelako zulorik.
- BRET.—Hala bada, hago geldi eta lasai. Hire eskumenean hain seguru bagauzkak, hoa eta eseri hadi eta periodikua irakur ezak.
- Ez.—Zuen ordenatzallea ni nauk ordea, eta errespetoa zor didazute.
- SELENA.—Beti bere hortan dagoen ordena ez duk on ezertarako.
- BRET.—Errekondoko bazterrak gora behera, beti aurrera, bizi, ibilian dijoan ibai laisterra bezelako zerbait duk ordena...
- Ez.—Eta lurrin bihurtzen dan hur putzuko ur geldia bezelakoa...
- BRET.—Heuk esan duk: lurrintzen dan bezelakoa. Dabilen zerbait beraz, mugitzen dan zerbait!
- Ez.—(*Zer esan ez dakiela.*) Bai, hitzez ondotoxo orniturik zerate...
- BRET.—Hi berriz oso gaizki. Jokoa galtzen hasia edo haiz dagoaneko.
- Ez.—Zuek bakarrik jokatzek gero, ez nezakek gal. Kartetan bakarrik aritzen diranak bezela ari zerate... nik, zer nola ari zeraten gaiñeti begiratu besterik ez dut egiten.
- FABI.—Beti enbido eta ordagoka jokoa nahasteko...
- Ez.—Bai, kartaren bat falta zaizuela ere jakiñaren gaiñean nagoela esango duk, eta horixe, ez dala beraz ez irabazlerik ez gaitzailerik izango...
- BRET.—Eskerrik asko hire borondateagatik. Halaz ere, hobe duk isili egotea, noraiño iritxi gaitzekean gerok ikusiko baitugu.

- FEDA.—(*Ahuspez bezala, lehen planoraiño etorri da; burua altxa beza.* SORNE-ri.) Ezeren aztarrenik bai ahal da, SORNE?
- SORNE.—Lehendik ezagutzen genuena besterik ez da ageri: zorua zurezkoa da.
- FEDA.—Txulo txiki-txikienik ere ez ahal da alde hortan?
- SORNE.—Ez txulo eta ez zulo, oraindaiñoko hontan behintzat. Oholak oholen ondoan, gogorrik eta hestu-hesturik daude.
- FEDA.—Hemengoen arabera beraz. (*Buruari azka egin.*) Arian arian oiñ-pausoz gastatuko dugu...
- SORNE.—Oiñ-pauso asko beharko da...
- FEDA.—Bai, hala da. Zer edo zer aurkitu dugunik ez ahal zaizu iruditzen, halaz ere? Orain ba dakigu behintzat, halako batez zoru honenak ere egingo duela. Ez da betirako, beraz.
- EZ.—Betirako danik ez da ezer. Ez ni, ez zuek.
- FABI.—Hori duk sartu beharra, hori! Emaiek pakea! Hizketarako gogoak bahago, sark adi gurekin.
- FEDA.—(SORNE-ri *mintzo.*) Betirakoa ez bada, sistema honek ba du zulo.
- SORNE.—Txulo hori zulo egiterako, bagaude puska baterako.
- FEDA.—Hala da. Hortik jai dugu oraingoz. Jo zagun aurrera.
- EZ.—Burrukatu nahi ninduzuten alkien zango haiekin eta burnien kontra lehertzen ziñaten sasoi eta su haiekin, hauek baiño ondotoxoz atsegiñagoak ziñaten, zalaparta!
- FABI.—Hori maite huen, ez da? Hire barreneko poza, nahiz eta aurpegi-zimur agertu! Baiñan, hok, beste belaunaldi batekoak dituk, gaiñera joka-molde berriak asmatu dizkitek, eta iñondik ere gu baiño argiagoak dituk.
- BRET.—Bizitzaren berri eta esperientzia gehiago ditek.
- EZ.—(*Oso gogoz.*) Bizitzaren berri eta esperientzia gehiago? Zuek baiño gazteago baitira!! izan eta!!!
- SELENA.—Zaharrago dituk. Beroienaz eta gure esperientziaz bat egin baitute.
- ELIANA.—Zuzen ari zera, Selena.
- EZ.—Zuen gauzak aztertzeke eta lotzeke arterioa, bitxia da egiazki... ez diteke uka. Nor, eta semeak gurasoak eskolatzen...
- BRET.—Orain eta beti horrela gertatu duk, nahiz eta gurasoak hone-lakorik entzuterik ez dugun nahi izaten.
- FABI.—Gauza bat bururatu zait... Entzun idazute: noizpait Ez deseginduko dugula orain seguru naiz. Eta zergatik?
- DENAK.—(Ez ez *beste guztiak.*) Zergatik bada?
- FABI.—(Ez'i.) Hik, hik ez ahal duk jakin nahi?
- EZ.—Bai, bai, esak!

- FABI.—Gure esperientzia honena baiño milla aldiz haundiagoa egingo da, izan ere, gizon hau, bat eta hura baita beti. Beste guztiak bezela, gero eta zaharrago, kazkagorrago, kaskailluago eta elkorragoa baita, bizi duen guztia berak bakarrik bizi nahi du, gozatu nahi du, eta honela, ez lezaiokie inork ezertxo ere erakutsi.
- EZ.—(*Suminduta.*) Aparteko teoria eraginkorra da, ez da dudarik!
- FEDA.—(*Hitza hartu nahiez.*) Zuzen ari dala uste dut aita; bide berriren bat iriki digu. Ez dakit noizkorako izango dan baiñan...
- FABI.—Hori ba!
- FEDA.—Baiñan bide berri horren beharrik ez dukegu. (*Billaka jarrai beza.*)
- SORNE.—(*Billaka ari dalarik, kolpe haundi bat jo du zoruan.*) Huts-unearen zantzua sentitu ote dudan edo... (BRET eta ELIANA *gerturatu dira eta ahuspez jarri. FEDA'k kolpe bat jo du zoruan.*)
- FEDA.—Hemen ez dago ezeren zantzurik.
- SORNE.—(*Zenbait kolpe berriz.*) Eta orain, zer iruditu zaizue?
- BRET.—(*Makurtu egin da eta han eta hemen zenbait kolpe jo beza.*) Hemen eta han eta nun-nahi, kolpe-hots bera entzuten dala dirudi.
- SORNE.—Agian, dena huts eta zulo dalako edo da.
- BRET.—Ez dirudi hutsunerik dagoenik. Hala balitz ere, zura altxatu beharrean aurkituko ginateke. Nola?
- SORNE.—Egia... esku-hutsik gaude.
- FABI.—(*Ironiaz.*) Onenean Ez'ek beharrezko genuken zera hori utziko liguke.
- BRET.—(*ELIANA'rekin burni-habeetara hurbildu ondoren.*) Gu bezin esku-hutsik dago hori... Arranea, arranea!... harritzekoa (modukoa ere) ba da hori!
- FABI.—Hori esazu! Halaxen da.
- SORNE.—Zer egingo dut, Feda? Lehenean jarrai?
- FEDA.—Oraingoz, bai. (*Zorua aztertzen jarrai bezate.*)
- BRET.—Periodikua ezik, guk duguna besterik ez du horrek eskuartean.
- FABI.—Nola diteke hori, Ez? Esak.
- EZ.—Ez duzue nere azalpenen beharrik. (*Mespretxuz.*) Buruz hain argi izanik, inoren azalpenenik gabe ikasiko baituzue hemengo bazterren berri.
- FABI.—Agian bai. Denbora pasa galdetu diat... hi zerbaitetan entretenitzeko. Izan ere, ostra bat bezin bakarrik eta asperturik bizi baihaiz.
- EZ.—Hire baitan dituan sentimenduak ez hitzak besteren egin nahi izan.
- FABI.—Ez baitira nereak. Ez nauk sekula bakarrik bizitu! Ez ni eta ez guretakorik inor. Orain, inoiz baiño gutxiago.

- Ez.—Nik ere, hemen zauzkatek zuek.
- ELIANA.—Baiñan, kontra.
- FEDA.—(*Lehen planoraiño heldu dabere azterketan.*) Hara! Gelaren muga!
- FABI.—(*Itzul-eta.*) Zer diozu?
- FEDA.—Gure gela honek hortik aurrera ez duela segidarik.
- SORNE.—(*Lehen planora heldu-eta.*) Honek ere ez du! (FABI eta SELENA, FEDA'rekin bildu dira, eta ELIANA eta BRET berriz SORNE'rekin. Ez bakar bakarrik geratu da. Denak oso urduri eta eziñegonez.)
- SELENA.—Gure gelok hor bukatzen dirala?
- BRET.—Zer esan nahi duzu, Sorne?
- SORNE.—Gurearen segidan ez dago besterik. Bapatean, haratx!... Begira!
- FEDA.—Hutsartea! (*Denak aurrera jo bezate; salari buruz.*)
- FABI.—Hutsa... hutsartea...
- FEDA.—Ez paretarik, ez burni-haberik...
- SORNE.—Ez ezer.
- EZ.—(*Mugitu ere gabe.*) Hori bera.
- BRET.—(*Ez'engana itzuliaz.*) Hori bera, zer?
- EZ.—Ezer ez dagoela, alegia.
- FEDA.—Badagoke beste zerbait. Gauza baten bukaera beste baten hasiera ohi da. (*Lurretik bertatik, hurrutira begira beza.*)
- FABI.—Zer dakusazu? Zer ikusten duzu?
- FEDA.—Hutsartea, luze-laburrik, zabal-meharrik ez duen hutsartea... (SORNE'ri.) Zuk, Sorne, zer dakusazu?
- SORNE.—Dena zabal, dena luze dan hutsarte ikaragarria. Ez bide du hondorik.
- FEDA.—Mundu berri bat... Aurkitu dugunaz ohartu ahal zerate?
- FABI.—Ez.
- SELENA.—Bai.
- FEDA.—Ez gaude barrutian, gauden artizkune hontan hesiturik, uste genuen bezela. Ez lezaiguke iñork eta ezerk galeraz...
- EZ.—(*Hitza hartu nahiez.*) Leize-zuloak.
- SORNE.—(*Aurrera makurtuta.*) Ez zaio hondorik ikusten.
- FEDA.—(*Gero eta aurrerago.*) Ez zaio ikusten. Zuzenik eta zorrotzik, beheraiño!
- BRET.—(*Makurtuta eta aurreratuxe.*) Paretak eta burni-habeak baiño ondotxo okerragoa da hau...
- FEDA.—Paretak eta burniak baiño okerragorik ez da ezer. Arnasa piska bat har genezake orain... hau besterik da... (*Gurasoei.*) Zuek zer egin zenuten horrera behiñere begiratu gabe?

- FABI.—Ez-ek galerazten baitzigun.
- FEDA.—(*Harri eta zur.*) Debekatu, esan duzu?
- FABI.—Debekatu ez baiñan... ez dakit nola adierazi. Horra: Ez beti aurrean genuen, orain ere dagoen bezela, eta beste iñora begiratzeko ez gienkiela esan zitekean.
- BRET.—Hemendik ateratzeko, iñondik bai eta alde hortatik beste iñondik ez giñala aterako iruditzen zitzaigun. Alderdi hontan ez genuen arretarik jarri.
- EZ.—Eta horrela, uste ustelen ondorioetatik libratu zinduztedan. Zuen seme-alabak baiño ondotoz zuhurrago jokatu ziñaten!
- BRET.—Aski diagu ba orain horrelako zuhurkeriaz. Izan ere, batekoz beste, ziri ederrik sartu diguk!
- ELIANA.—(*Ez-engatik dio.*) Lasaiegi ageri da, hemen gauza onik egoteko.
- SORNE.—Zer ba?
- ELIANA.—Gure azken helburutik aldentzen apartatzen eta urrutiratzen gaituen seiñale dalako. Ez genezake ezertxo ere egin... (*Hutsartea markatuaz.*)
- FEDA.—Ezetz? Salto edo jauzi egitea aski genuke.
- SELENA.—Gure buruaz beste egitea litzake.
- FEDA.—Irtenbide bat ere.
- EZ.—Jo zak aurrera, beraz.
- FEDA.—Ez. Lehenik, beste zerbait billatzen saiatuko gaituk.
- SORNE.—Sokarik bagenu...
- BRET.—Bagenu eta ez bagenu... Ez daukagu ezer, beti egon gera esku-hutsik...
- FABI.—Behin batean nere alkandoraz baliatu nintzala, gogoan dut.
- BRET.—Ez hontarako. Orain metroka eta metroka beharko genuke. Hondorik ez baitzaio ikusten!! (*Burua aurreratuta beza.*) Zabalune ikaragarria, hori da ikusten dana.
- ELIANA.—Zer edo zer bota dezagun...
- SORNE.—Zertarako?
- ELIANA.—Hemendik hondoraiño zenbat denbora behar duen jakiteko.
- FEDA.—Ez genuke harri hotsik entzungo. Sakonegia baita, hondorik gabekoa. (*Leize zuloaren ahoan jarri eta hondoa arakatu beza.*)
- ELIANA.—Ezer berririk aurkitu arte ez dezagun etsi, bainan!
- FEDA.—Hori behar genuen: etsi! Jo dezagun aurrera.
- SORNE.—Zerbait berririk billa genezake.
- EZ.—Eta uste ustel gehiago izango duzue zeokin...
- FABI.—(*Bapatean berotu da.*) Has gaitezen billaka denok batera!
- FEDA.—Ez, aita.

- FABI.—Lehenago billatuko dugu...
- FEDA.—Ez.
- FABI.—Zergatik ez?
- FEDA.—Denok billaka hasten bagera, gela guztia, gela osoa aztertu dugun ala ez, ez baitugu sekula jakingo.
- FABI.—Ez dut konprenditzen! Zerbait bi aurkitu ondoren, bil aurkitutakoaren ospe guztia zuretzat gorde nahi ahal duzu ala?
- FEDA.—Libertadearen billa dabillanak, ez du zuk diozun ospe horren goserik sentitzen. Dana dala, nahi baduzu, has zaitezke billaka. Baiñan, zu bakarrik ariko zera lanean, iñor besterik ez.
- SELENA.—Ez, Fabi, horri da orain lan egitea. Bere txanda da, ez gurea.
- FABI.—Ondo da. Zerbaitetan lagundu, ez nuen besterik nahi.
- SORNE.—(*Bere gurasoei.*) Zuei, ni hontan jardutea, ondo iruditzen ahal zaizue?
- BRET.—Gizonen egitekoa dirudi, baiñan...
- FEDA.—Libertadearen egarria, gizonetan eta emakumeetan, berdin berdiña da.
- ELIANA.—Uztazu, eta saia dedilla. Badakite zer ari diran. Gutxi bada gutxi, leize zuloa behintzat aurkitu dute.
- BRET.—Bai, egia da, hala da... baiñan... eskuak antxumatuta, kolkoari begira, kolperik jo gabe egon zaitez ba!
- FABI.—Hori bera gertatzen zait. Ezer onik ez ote dezakegu egin da?
- SELENA.—Leize zuloa zain genezake...
- DENAK.—(*Ez ez beste guztiak.*) Zaindu?
- SELENA.—Bai, hemendik goitik.
- FEDA.—Nola?
- BRET.—Zertarako?
- SELENA.—Kanbia diteke.
- FABI.—Alda ditekela?
- SELENA.—Oraintxen ere aldatu dan bezela. (*Denak leize zulorat begira.*)
- FABI.—Ez naiz ohartu.
- SELENA.—Ez ni, ez zuek. Orain arte behintzat.
- FABI.—(*Zerbaiten berri jakin nahiez.*) Zer esan nahi duzu? Zer ikusi duzu?
- SELENA.—Leize zuloa.
- FABI.—Bai, eta zer? Nun zer aldatu da?
- SELENA.—Dena aldatu da. Lehen ez zan.
- FEDA.—Ez dakigu zer esan nahi duen. Lehen, zer ez zan?
- SELENA.—Leize zulorik ez zan.
- FEDA.—Hori ahal zan guztia!

- SELENA.—Horixe zan.
- FABI.—Ba-zanik ere ez baikiñan ohartu.
- SELENA.—Nola ohartuko ziñaten, lehen ez bazan. Hori dala eta kanbia diteke.
- BRET.—Geletako zoko-moko guztiak arakatu gabe, Selena, ba zanik ez dakikegu.
- SELENA.—(*Bere hartan, kaskagogor.*) Baldin izan bazan, ohartuko giñan.
- BRET.—Ez. Burni-habeon ondoan egoten giñan beti, zuk ondo dakizun bezala.
- SELENA.—Leize zuloa ikusi diteke ordea, ikusi.
- FABI.—Orain bai.
- SELENA.—Lehendik izan bazan, lehenago ere ikusiko genukena. Pareta bat zala guztia, uste izandu genuen beti.
- FEDA.—Pareta bat ez, eta zer da ba?
- SELENA.—Beste pareta hoiek bezelako pareta ez da.
- FABI.—Ez dakigu oraindik. Ondo arakatu eta miatu baiño lehen, ez eta jakingo ere.
- SELENA.—Ez dago aztertu beharrik. Ikus dezakegu hemen gauden guztiok. (*Paretei buruz itzuli da, eta besteek ere gauza bera egin bezate.*) Begira!
- FABI.—Orain bai, orain!
- SELENA.—Ez dakit. Ez gagozke seguru. Erabat aldabera dan munduan bizi gera.
- BRET.—Gu gera aldabera, ez mundua. Begi berriak atera zaizkigu.
- SELENA.—Ez dakigu zuzen. Zaindu beharrea gaude, beraz.
- Ez.—(*Isekaz.*) Zaindu, zain ezazue!
- ELIANA.—Ez parrez ari da. Okerretik jo dugula esan nahi du horrek.
- SELENA.—Uztagun hor zokoan Ez. Horrek berak ez baitakike zertan diran gure historiak...
- SORNE.—Zer egingo dugu, Feda?
- FEDA.—Arakutzen eta ikusmiratzen jarrai dezagun. Gogoak ematen badie, leize-zuloa zaintzen jarrai dezatela hoiek.
- SORNE.—Zure amak dionak uste ahal duzu bururik...?
- FEDA.—Ez dakit. Harritzekoa da halaz ere, beste zerbait egon zitekeala ez baitaratzea.
- FABI.—Ez zitzaigun bururatu ere egin honelakorik. Gelok, paretok, hori zan guztia guretzat.
- SELENA.—Orain berriz, zerbait gehiago ba dala dakigu.
- Ez.—Zaudete zaudetenean, gauza guztiak nahastu gabe!
- BRET.—Hik ez daukek hemen zertan sartu beharrik.
- Ez.—Iñun sartzeko, ez diat iñoren baimenaren beharrik.

- BRET.—Hor egon beharrik ere ez daukak. Ez haugu ezertarako behar.
- FEDA.—Bai, zerbait egiten galerazteko. Hori gabe askoz ere erreza goa izango litzake. (SORNE-ri.) Jo zagun aurrera. (Zorua arakutzen, miatzen jarrai bezate; lenengo planotik barren alderat has bitez, aulkiak dauden alderditik.)
- SELENA.—Nagoaneko hontantxe geldituko naiz.
- FABI.—(Beste gelakoei.) Zuek eta guztiok, gaudeneko hontantxe geratuko gera, ez da?
- BRET.—Jakiña ba! Nun zer egon ditekean, ez generala seguru, lehen ere esan dugu. Geletako lau zoko-mokook miatzea eta arakatzea nola ez ote zitzaigun bururatu?
- FABI.—Ahal dakit nik. Bururatu ez zaigun gauza asko dago. Fedari berari bururatu gabe geldituko zaion asko ere bai...
- ELIANA.—Ez eta beharrik ere. Bide zuzenetik jo dugula uste dut.
- FABI.—Zer esan nahi duzu?
- ELIANA.—Bide berri bat ez ote du aurkitu Feda-k?
- FABI.—Egia diozu, hala da. Sorne-k eta biok aurkitu dute. Baiñan, oraindik behintzat, bide hori ez da iges-bide gertatu.
- ELIANA.—Hasi, hasi besterik ez dute egin-eta.
- EZ.—Ez ote zerate optimistaegi eta baikorregi? Hasiko ez hasiko, zorua, burni-habeak eta gelaren alde hau miatu dute dagoaneko. Gelaren erdia baiño gehiago, agiri danez.
- SELENA.—Ez da egia. Burni-habeak ez dituzte oraindik arakatu.
- EZ.—Zuek bai ordea. Hamaikatxo aldiz saiatu ziñezten burni-habe hoekin.
- FABI.—Ez hamaika aldiz eta ez behiñere.
- BRET.—Behiñere ez, hori daduk egia. Burnien tartetatik begiratzen genian. Hiri begira egon, hori duk egiten genuen guztia.
- EZ.—Lehen esan dudana.
- FABI.—Ez zaidak hola danik iruditzen. Hik, hik ez huen ikusten uzten.
- BRET.—Beharrik gero eta ttikiago haiz, gero eta gutxiago.
- EZ.—(Isekaz.) Gauza bera esanaz eta esanaz, halako batean haize bihurtuko nauzue, hori bai!
- FABI.—Eta zergatik ez?
- BRET.—Gero eta nortasun gutxiago deala, hori behintzat ez zitekek uka. Zergatik ote da?
- FABI.—Gero eta txotx bati baiño garrantzi gutxiago ematen diogulako.
- BRET.—Zahartzen ari dalako ere da.
- FABI.—Periodikuak asto bihurtu du.
- BRET.—Bakarrik bizi beharrak ere.

- Ez.—(*Oso lasai.*) Bakarrik ez nintzanean izan dudan lagunarteak ere bai. Izan ere a zer lau mandako eta hondakin ditudan inguruan!
- ELIANA.—(*Min egin dio.*) Mandako, hondakin eta guzti, bainan egunik galdu gabe burukatu eta bildurtu hauten mandakoak. Orain ez hintzake lokartzen ausartuko ez!
- Ez.—Hori nahiko zenuteke, ez da? Traizioz ni garbitzeko a zer egokera!
- FABI.—Hi beste traidorerik ez duk hemen. Ez diagu kalterik egin eta halaz guztiz ere preso altxatu gaituk. Zergatik?
- Ez.—Zerok dakizue zeron berri, galde bezaio bat bederak bere kasuari. Hortarako ez eta bestetarako ez bide duzue balio haundirik.
- BRET.—Hemendik ateratzerik ez badugu izan, barru hontatik ez bagera atera, balio dugun ala ez agertzeko egokierari ez bazaigu eman, zer dakik gure balioaren berri?...
- Ez.—Zikoitz, bekaizti, iñozu, harro... batzuek zerate.
- SELENA.—Hire antzekoak beraz.
- ELIANA.—...gu burniz barrutik egotea, hi kanpotik. Alda gaitezen apur baterako.
- Ez.—Zer alda?
- ELIANA.—Lekuz. Orduantxe bai pozik ikusiko nukeala hire muturra.
- Ez.—Ez dakizute zer ari zeraten. Ez dakizute zeren billa ari zeraten, ez nondik-nora zoazten.
- FABI.—Esaiguk hik, jakintsu-putzu horrek!
- Ez.—Zerbaiten billa denbora ematea hobe duzue. Bestenaz, zertan eman zenezateke astia?
- BRET.—Bizitza guztia katez gure lepoei loturik pasa deala pentsatzeak ere lanak dizkik. Hi haiz azala, hi!
- SELENA.—Uztagun pakean eta zain dezagun leize-zuloa. Gure lanetatik aparta egin nahi gaitu. Gure ez-jakiñean beti darabil zerbait esku-artearen. Ez gaitzala berriz engañatu.
- FABI.—Zuzen ari zera. Dagoela hortxe bere periodikuarekin.
- Ez.—Zain ezazue zain zuen leize-zuloa! (*Periodikua har eta alkian eseri bedi. Beste laurak lehen planoan gera bitez, baiñan, FEDA eta SORNE ikusteko moduan.*)
- FEDA.—(*Gelaren barruraino ia heldu da.*) Sorne!
- SORNE.—(*Gelditu-eta.*) Zer duzu, Feda?
- FEDA.—Ezeren aztarrenik?
- SORNE.—Ez. Eta zuk?
- FEDA.—Ez. (*Altxa bedi.*) Burni-habeok araka ditzagun orain. (*SORNE ere altxa bedi, eta bata eta bestea burni-habeak astintzen has bitez; deus onik ez dute atera.*)

- FEDA.—Gogorrik daude burniok...
- SORNE.—Burniokin ezer onik ez dugula egingo iruditzen zait...
(*Lehen planora abiatu dira, burniak banaka banaka astinduaz.*)
- FEDA.—Ahulegi gera burniok dauden lekutik kentzeko.
- SORNE.—Sendo tinkaturik baitaude.
- FEDA.—Lima batez, luzarora zerbait iritxi zitekean...
- SORNE.—Hori bagenu! Horra: esku-hutsik gaude.
- FEDA.—Okerrena hori da; burrukan ari izateko ezer ez baitigu eskuetaratu inork. Doi-doi dugu buruan muiñ piska bat hori da dana. (*Ez bere alkitik parrez hasi da.*)
- SORNE.—(*Buruaz Ez seinalaturik.*) Jolasgureak dago.
- FEDA.—Itxuraz dirudien bezin lasa ez dago, ez.
- SORNE.—Hori esan. Eguraldi garratza atera dakiokoe gaurko honetan!
- EZ.—Betiko ametsekin ari gera oraindik ere!
- FEDA.—(*Ez-engana bihurtu dan SORNE-ri.*) Ez iozu erantzun.
- SORNE.—Hori: hor konpon dedilla bera bakarrik.
- EZ.—Zuek zaudeten baiño bakarrago!...
- FEDA.—(*SORNE-ri.*) Ohartu ahal zera? Isilik ezin egon diteke, hori da bere pekatu txikia. Azken hitza bere du beti.
- SORNE.—Denak entzungor egiten baitiote... Noizik behin ez ahal zatzazkio urrikitzen?
- FEDA.—Gutaz sekulan urrikitu danik ez da ezagun. Ezerez bat da gizon hau.
- SORNE.—Ezerez bat? Gauza bitxia da...
- FEDA.—Zer da hor bitxirik?
- SORNE.—Gizon hontaz guztiok iritzi berdiña baitugu!
- FEDA.—Hala da, ta gero eta iritzi berdiñagoa izango dugu gizon honi buruz. Zer nolakoa dan ikasten hasiak baikaituzu .
- EZ.—Bazegok, mutillek!, jende kaskagorrik!...
- FEDA.—(*Entzun ez balio bezala.*) Ez du horrek ordea sekula baietsiko, guri arrazoia emateko ordua etor dakion baiño lehena-go, hilko baita. Ez ahal zaizu iruditzen?
- SORNE.—Bai, Feda.
- EZ.—(*SORNE idurituaz.*) Bai, Feda!... Aski da bat horroizka has-tea, bestea ere hala moduz hasteko.
- FEDA.—(*SORNE-ri.*) Nork esan du hor inozukeriarik!
- SORNE.—Inguruka dabillan gixajo batek. (*Biak parrez; eta piskanaka piskanaka lehen planora datoz.*)
- FABI.—Ezeren aztarrenik bai ahal da?
- BRET.—Ezeren berririk bai ahal duzu, Sorne?
- FEDA.—(*Bion partez.*) Ezer ez oraindik.
- SELENA.—Bi paretá besterik ez zaizue gelditzen...
- FEDA.—Bi bakarrik, egia da. Eta, zer zuek?

- FABI.—Ezeren arrastorik.
- FEDA.—Leize-zulo bat da, hori da.
- SELENA.—Ez izatera etorri liteke.
- FEDA.—Uste horretan bizitzea, ondo dago. Hortan badirauzu, nahiko zenukean aldaketa zuk zerorrek sortaraz zenezake agian.
- ELIANA.—Ziñez uste ahal duzu, Feda?
- FEDA.—Bai, ziñez sinisten dut. Zuen fedearen eta sinismenaren ondorio ez ote gera Sorne eta biok?
- ELIANA.—Hala da.
- FEDA.—Zerbait gerta ditekeala ziñez sinisten baduzu, orain ere egiazki gerta diteke.
- SORNE.—Baiñan hori dala eta ez dezagula lurrerat erortzen utzi gure billaketa-inbestigazioa.
- FEDA.—Ez horixe. Ahal duenak ahal duen bezala burrukan egin beza. Zuen sinismenaz zuek, sinismenik gabe guk.
- FABI.—Sinismenik gabe?
- FEDA.—Bai, hala esan diteke, hots, sinismenik gabe. Inoiz beste izan du duzuen inspirazioneaz aparte, gela hitxi eta irterarik gabeko batean sinistu duzue beti. Hori dala eta ataka gaizto hortatik ateratzeko ezer gutxi egin duzue. Sorne-k eta biok ez diogu sinismenik zor honelako munduari eta honelako baldintzei; nahiz eta gure aurrean iduk, Ez-i berari ere ez diogu batere sinismenik zor.
- EZ.—(*Periodikua utzi-eta.*) Hi mutiko, hago piska bat!
- FEDA.—(*Ez bezaio kasorik egin.*) Oraindañokorik ez dugu ezer sinistu eta zalantzan jarri dugu guztia; hasiera hasieratik hasi dugu billaketa hau, inbestigazio hau, gauzen azalari baiño mamiari arreta gehiago jarriaz, gauzak txuxen eta argi ikusiaz, ezen ez eta halako batean berriki lanean hasi beharrik izan ez dezagun. Intuizioari, hots, senari ere lekuri eman diogu... ez dea Sorne?
- SORNE.—Bai. Selena-k bere uste eta sinismena leizearen kanbioan jarririk badaduka, zuzen da begira dezagun, eta bere hortan jarrai dezan bihotz-berotu dezagun. Ezagupidearen bi bide mueta dira, eta alkar ondo konpontzen dira.
- EZ.—Hago piska bat, neskato «bas bleu»...
- FEDA.—(*Ez-ek esan duanari batere jaramonik egin gabe.*) Zuzenez beste ari generala azaltzearen Ez-ek zerbait esan edo ahalegiñak egingo dituela, ondotxo dakigu. Baiñan, zuek ere, gaurtik aurrea, ekiozue lanari zuen bistatik Ez galdurik balitz bezela... Burniez bestaldera begira zazue! Inor bai ahal dago?
- FABI.—Inortxo ere...
- FEDA.—Bret?
- BRET.—Inoren zantzurik ez da hor, Feda.
- ELIANA.—Ez; bakarrik gaude.

- EZ.—Hiorrek esan dun: Ez, bakarrik gaude. Erregu baten antza diñ. Laguntza-eske baenbil bezala...
- FEDA.—Nundik nora heldu diran ez dakigun hamaikaxo oihu hotsik entzun ohi da.
- SELENA.—Ez dakit...
- FEDA.—Hala da, ama, ez dakigu nundik-nora datozen, eta nor ari dan oihuka... Joka dezagun azken hondarreraíño, sar gaitezen burrukan buru belarri, gal ala irabaz, jar dezagun arriskuan dena den dena.
- SELENA.—Zuzenez beste gauzak aterarik gal bageneza?
- FEDA.—Ez genezake galdu.
- SELENA.—(*Bere hartan kaskagogor.*) Bai, baiñan, zure usteak eta guzti, halaz guztiz ere gal bageneza?
- FEDA.—Ondo da. Ospez beteta eroriko gera. Ondotxo dakizu, halaz ere sekula ez duela gurekin burutu eta ez gaituela burrukatu!
- BRET.—Hori bai, hori egia da.
- EZ.—(*Isekaz.*) Burni-habeen kontra hire burua bota hueneko hartan ezik...
- FEDA.—(*Ermo.*) Iñork ez du gutaz beste egin, iñork ez gaitu burrukan hautsi. Berriz burrukan hartzeko odolik izan ez duenak, hel dira burrukatuak. Guretako nork ez du berriz burrukan hasi nahi izan?
- ELIANA.—Iñork ere.
- SORNE.—Egunik ez dugu igaro zerbaiten billa ibilli gabe.
- FEDA.—Han edo hemen beti aurkitu dugu zerbait. Orain arestian, haste-hastetik, leizezulo hau. Garaitzopen haundia da guretzat, nahiz eta ezdakigun zer egin horrezaz. Bañan, gure inbestigazio-billaketa honek fruturik ekartzen ez balu ere, Selena-k ondotxo gorderi du. Itxurak goiti-beheiti, jakin ez, dakigu bideren bat ote dan hala...
- EZ.—Hire lillura txoroez alde zurretik sendatzeko, sendagaillu ego-kia hartu duk!
- FEDA.—Orain Sorne, nahi izan ezker behintzat, alboko pareta hori miatzen has zaitezke. (*Alboko pareta seiñalatu bezaio.*)
- SORNE.—Hala egingo dut, Feda. (*Alboko paretara doa bat bedera. Ez gora eta behera pasean hasiko da; FEDA eta SORNE berriz, pareta arakatzen lehen planoan gera bitez. Hemen uki, han jo, beste hartan aztertu eta ondo begiratuaz, FEDA eta SORNE lehen planotik pis anaka gelaren barrurairiño joango dira.*)
- FABI.—Buruz argia da Feda.
- BRET.—Guk genituen aurre-iritzi eta prejuizioak erreka zulora bota ditu; guk egin ez genuena.

ELIANA.—Hori dala eta hor ditugu ondorioak. Presondegia honek laister joko du azkena.

SELENA.—Ez dakit ba...

FABI.—Kanbio bat gertatu dala zerorrek ezagutu duzu lehen...

SELENA.—Zer kanbiamentu mueta dan ez dakit ordea.

BRET.—Galerarik ez datorkiguke behintzat. Orain ez bezela galduta genbiltzan lehen. Zer nahi dugun, badakigu orain.

SELENA.—Jakin, hori beti jakin dugu.

FABI.—Ez Fedak beste. Leize-zuloa nun zegoen horrek du aurkitu.

SELENA.—Bai... Baiñan, guzti hori bere idurimenaren seme balitz?

DENAK.—(Ez ez beste guztiak.) Zer esan nahi duzu?

SELENA.—Señale bat izan diteke agian...

Ez.—(Bapatean gelditu-eta.) Gauza argi eta garbi Selena-k beste inork ez du ikusten.

FABI.—Ez iozue erantzun.

BRET.—Nori erantzun? Nik ez dut txintik aditu. Zuek zer edo zer aditu ahal duzue ala?

FABI.—Nolabaiteko bozak entzun dira.

ELIANA.—Bide zuzenetik okertu nahi gaituzten bozak.

Ez.—Selena-ren beraren boza zenuten, horra. Hori eta biok bide batetik ari gera.

FABI.—Zeren bildur zera, Selena?

BRET.—Bai, Selena, esaiguzu; ez dizugu ulertu...

SELENA.—Nik neronek zer diodan baneki! Nahi nuke eta halaz ere bildur naiz. Zuek bezelaxe, zerbait espero dut, baiñan barru honek zerbait besterik ote dion, nago...

FABI.—Esan behar duzuna, esazu. Barru horri zer ari zaizu?

SELENA.—Azkarregi ote gabiltzan. Ez, ez da erabat hori...

BRET.—Zer da, beraz? Leize-zuloaren ondorioetan sinismenik ez baduzu, zer dala eta zaintzen duzu?

SELENA.—Sinisten dut; nere begiek hain garbi ikusten dutena, ezin nezake uka. Baiñan, sinistu, zer nola sinisten dudana ez dakit. Leize-zulo horrek kanbiorik ez duela ohartzen naizenean, badirudi, etsai berri bat, kartzelero berri bat sortu dugula. Itxaropen osoa eman eta gero batere betetzen ez duen kartzelero berri bat, lehenagokoa baiño askoz ankerragoa sortu dugula iruditzen zait, alegia.

FABI.—Itxaropen hoiek osatzea eta egia bihurtzea, gure eginkizuna da, Selena.

SELENA.—Bai, ba dakit. Desarmaturik gaude ordea, esku-hutsik.

BRET.—Ez zazula uste izan. Ba dugu harmarik, onik gaiñera: Fedak.

SELENA.—Ez da harma. Guretako bat da.

ELIANA.—Gu baiño gehiago da. Horrexengatik da arma. Egunen batez iritxiko dugun askatasunean pentsatuaz gure gelen bakardadean geuk sortu ditugun bi gauza bezala dira Feda eta Sorne.

SELENA.—Demagun hala dala. Halaz ere... ez dakigu duen harmahori gure helburua lortzeko egokia danez. Geronen kontra bihur baititeke.

FABI.—Selena! Gure semea da!

SELENA.—Ba dakit gure semea dana. Baiñan noizik eta behin semeak galdu egiten dira eta beaiekin gurasoak dituzte galtzen.

FABI.—Genuen guztia galdurik dugu.

SELENA.—Beharbada ez.

EZ.—Hori da, Selena. Beharbada ez. Zuek Ez hotsegiten zenioten hura zan zuen salbatzaillea beharbada, eta zuek ez-ikusia egin diozute.

BRET.—Gure alde ezertxo ere egin ez duten, gu eta gu baiño lehen gure gurasoak presondegi hontan giltzapean iduki gaituzten boza kaltegarri hoiek, goxo eta ezti nahi luteke izan orain.

ELIANA.—Iñoiz bai eta oraintxe billatzen ahal du iges-bideren bat Feda-k... (*Aulki batera igotzera doa FEDA, baiñan alkiak irrist egin dio. Danak ari begira.*)

SORNE.—Zer dagizu, Feda?

FEDA.—Alkiaren gaiñera igo nahi dut. Hor gorago beharbada... (*Alkia berriro paretan ondoan jarri beza.*)

SORNE.—Hor gorago?

FEDA.—Gure eskuak iristen ez diran hortatik gora, paretaz besterik ez dagoen, nork daki... Aita!

FABI.—Zer duzu, Feda.

FEDA.—Alkiari heutsiko ote zenioke? (*Alkiraiño joan eta eutsi bezaio; FEDA gaiñera igo da. SORNE lurrean gera bedi, eta beste guztiak bezela jar bedi hari begira; Ez ere, FEDA-ri begira. FEDA han eta hemen, pareta arakatzen ari da.*)

FABI.—Ezeren aztarrenik bai ahal da?

FEDA.—Itxuraz dena berdiña da: behetik goraiño dena pareta. (*Jetsi eta beste aldeko paretara bedi.*) Zurean ere hala ahal da, Sorne?

SORNE.—Ez dut arakatu. Aita, lagunduko ahal didazu? (*BRET-ek lagundurik, lehen FEDA-k egin duena SORNE-k egin beza. Besteak, haiei begira.*)

SELENA.—Ez du ezer aurkituko.

FEDA.—Ez segurasko. Biak aia biak berdiñak dirala dirudi; halaz ere saio bat egitea ez da batere kostatzen. Nahiz eta emakume izan, eta hain zuzen ere emakume dalako, ni ikusi dudarik ikus dezake.

SORNE.—(*Pareta han eta hemen ikutu eta ikusmiratu ondoren.*) Hemen hor bezela: ezer ez. (*Alkitik jetsi bedi.*)

EZ.—(*Jolasgureak bezela.*) Ez dakit ohartu zeraten baiñan, gorago ere ba da paretarik. Gurasoen bizkarretara igo zaitetze eta ekin hortxe! goena jo arte. Tximukeriak egiten hasi ezker, nahi nuke zerbait gehiago ere!

FEDA.—Jo dezagun aurrera, Sorne.

SORNE.—Denbora alperrik galtzen ez ote gera ari, Feda?

FEDA.—Danai usi arte, dana arakatu arte ez dakikegu. Nola edo hala, azken mugaraiño iritxi beharra dago. Gure pentsamenduen bukaeraiño, hondoraiño lehenik. Bihotz-gabeturik ote zera, Sorne?

SORNE.—Ez, baiñan... hain da berdiña, hain da fiña eta leguna pareta hau!

FEDA.—Ez zazula uste! Beharbada, hala dirudi, baiñan ez da hala. Gutxienik usteko dugunean, beste leize-zulo batekin aurkitu gitezke. Jarrai dezagun aurrera, beraz. (*FABI eta BRET, lehen planora etorri dira, hots, SELENA eta ELIANA-ren ondora. Ez, bere gelaren erdian, ezin egonez bezela dago, FEDA eta SORNE, paretaren kontra aurrera eta aurrera doazela ikusten baititu. Ezkereskubi itzuliaz, nun nor aurrerago doan begira dago.*)

FABI.—(*SELENA-ri.*) Ikusi duzua? Begiratu gabe ez du ezer utziko, Feda-k...

BRET.—(*ELIANA-ri.*) Egia esan, hoi en inbiri naiz. Billaka hartzea baiño gauza bikaiñagorik ez da. Zer nola ez zitzaigun sekula hone-lakorik bururatu?

ELIANA.—Eziñezkoa zan, Bret. Beti izan gera **Ez-en bildur**.

BRET.—Lokartu zaneke hartan ere, bildur izan giñan da!

ELIANA.—Gure baitan ezurretaraño sartuta generaman horri sotzeko eta aparte bizitzeko. Egin behar genuen eta egin genezakean bakar hura egin genuen: seme-alabak horri bildurrik gabe hazi. Irtenbideren bat topatzen badute, geok topatu bagenu bezela izango da. Billatzen badute, gu geralako billatuko baitute.

FABI.—Ez bataiatu genuenean hasi giñan gure askatasunaren alde lan egiten. Iturritik ura bezela etorri da geroztik etorri dana: gure eraso, ezerezetik zerbait izatera etortzeko sofritu genuen erdi-miña...

EZ.—(*FABI-rengana itzuliaz.*) Berriz ere illunpetan murgiltzeko.

BRET.—(*Ez markatuaz.*) Honek ez du sinisten gure buruetan argi-izpirik baiño zerbait gehiago egon ditekianik...

FABI.—Bere burua da honentzat guztia, besteenetan ez dezake sinets. (*Argi guztiak itzal eta proiektore bat pizt bedi; Proiektorearen argiak SORNE argi beza; FEDA baiño lehenago, hondoko paretaraño heldu da, eta oihalaren gaiñean eskua ezarri du.*)

- SORNE.—(*Oihu bizi bat: denak isilarazi ditu.*) Feda!
- FEDA.—(*Harengana itzuli eta.*) Zer da, Sorne?
- SORNE.—(*Larri-miñez eta erdi-zorabiatuta erabatean.*) Zerbait aurkitu dudala uste dut!
- FEDA.—Zer aurkitu duzu?
- SORNE.—Pareta... (*Ez ez beste guztiak gelaren barrenera joan bitez; bitarte hortan, lehengo argiak pizt bitez.*)
- FEDA.—Pareta bat, eta zer?
- SORNE.—Mugitzen dana... Zurea ikutu ezazu.
- FEDA.—(*Barreneko pareta hunki beza, eta sendo ez dagoela ohar bedi.*) Ez da pareta!
- GUZTIAK.—(*Ez, ez beste guztiek.*) Ez da pareta...!
- FEDA.—Oihala dala esango nuke... (*Eskuak luza bitza.*)
- EZ.—(*Ukan duen dardara pasa zaio eta bere onera etorri da.*) Ez zak ikutu!
- FEDA.—Boza hoiek...
- EZ.—(*Oso kementsu.*) Begira gero ikutu. Atzera hortik! (*Ez-ek bildur piska sartu bide dio, eta atzera bezela egin beza. Berehala orde, luza bitza eskuek.*)
- EZ.—(*Aurreratuz.*) Berriz esango diat: geldi hor! Geldi, Feda!
- FEDA.—Zerk hau penatzen, Ez?
- EZ.—Oihal hori ikutu bahezak, zuenak egin dik. Antzina, hi jaino baño lehen, itxaropen guztien kaltetan ari zirala, esan nieran hire gurasoei...
- FEDA.—Eta zer neri hori?
- EZ.—Oihal hori zabaltzen baduk, beste heldu-lekurik ez zaik gertuko. Behingoz, dean eta izan hinteanean guztia hortxe hondatuko duk.
- FEDA.—Gure gainera heriotza etorriko dala esan nahi ahal duk?
- EZ.—Milla aldiz txarragorik. Nun zer billatu ez duk jakingo, eta hutsaren urrena izango haiz...
- FEDA.—Orain, zer dudala uste duk? Zer dugula uste duk?
- EZ.—Zer daukazuten ez dakizute, baiñan euki liteken guztia zuekin duzue. Zer-nahi amets eta nora-nahi egan egin dezakezuen gero, zuen esku zegok mundua...
- SORNE.—(*Oiñazez beterik.*) Barru hontatik atera gabe...
- EZ.—Bai eta zera ere! aneika aldiz atereak zerate dagoaneko. Egia esan, hemen ez baiñan kanpoan bizi zerate, zuen ametsak mugaz bestaldetik baitituzue. Zuen esku zegoen dana lortu duzue.
- FEDA.—(*Oihala behatzez seiñalatuaz.*) Iñolaz ere, bestaldetik ba dagoke zer edo zer...
- EZ.—Ezer ere. Isiltasun osoa, bukaerarik ez duen presondegia...

- FEDA.—Dana dala... (Berriro eskuak luzatzera doa.)
- SELENA.—Feda!
- FEDA.—Zer duzu, ama?
- SELENA.—Zer egin behar duzu?
- FEDA.—Oihala milla puska egin.
- SELENA.—Ez zuzen ari balitz?
- FEDA.—Ez, ez, sekula ez da gure alde jokatu; egin nahi genuen hura galerazi baizik, ez du egin. Nola dieteke fia horren hitzei?
- EZ.—(Erreguka.) Zuen adiskide naiz, Feda; zuen adiskide izandu naiz beti, nahiz eta zuek honelakorik ez duzuen aditu nahi izan. Zorion osoa opa izan dizutet beti...
- FEDA.—Gure zoriona! Erdi usteldurik gauden presondegi hontatik hori dala eta galerazi ahal diguk irtetzea?
- EZ.—Orain zeraten baiño zuen eskurago, libreago ez zerate, behiñere izango. Oihala zabal bazenezate berriz...
- FEDA.—Entzun zak, Ez. Demagun, behingoz arrazoi deala, egia esan deala. Baiñan hik esan dean bezela gure salbazioa eta gu gaitz guztietatik gordetzea nahi izan baduk, pareta bat ez baiñan oihal bat zala hori guztia lehenago esan behar higuen... Oihalaz beste aldetik zer dagoen ikusi arte ez dugula atsedetik hartuko, ez ahal duk konprenditzen?
- EZ.—Ahaztu ezazue oihal hori.
- FEDA.—Ez genezakek sekula gehiago ahaz... Aita bera etorriko balitz eta esango balit: «Feda, ez zazu iriki», iriki egingo nuke. «Bestalde hortatik ibili naiz eta ez dago ezertxo ere» esango balit, ez nuke haren esanik egingo. Bestaldetik zer dagoen ez baitut ikusi, nere begiz ikusi arte ez dut etsiko. Eta hi, hi ez haiz nere aita: Ez haiz hi, nere eta nereen etsai betikoa, burni-habeen tartean gauzkean kartzeleroa... Konprenditu ahal duk orain?
- EZ.—(Biziro umil.) Bai, Feda. Ahaztu zak, halaz ere.
- FEDA.—Ezin nezakek horrelakorik egin; ez naitekek hire hitzetara jarri, hik hiorrek ondo asko dakik hori. Hori egin baneza, adio nere bihotzaren pakea. Naiz eta garratza eta uste on guztien kontrako akabera izan, bukaeraño iritxi gabe ez nauk geldituko. Bestalde, hik eta guk gauzen ikuspegi bera ote dugu? Hiretzat heriotza dana guretzat bizitza danez, nork daki?
- EZ.—Uztak pakean oihal hori eta urrutira hadi... Hi ere bai, Sorne.
- FEDA.—Sekula ere. Sorne eta biok oihalaz bestaldera igaroko gaituk.
- SORNE.—Ez. Ni, ez kakit ba, Feda. Bildurtzen naiz...

FEDA.—Bildurtzea, berezkoa da, Sorne. Iñor bai eta gu izandu gera eta oraindik gerade bildur, ez dea?

DENAK.—Bai.

FEDA.—Baiñan bildur hori, oztopogarri ez baiñan eragingarri izan zaigu.

SORNE.—Orain besterik ote dan...

FEDA.—Lehen bezela orain, Sorne. Dugun guztia emango dugu; azken mugaraino iritxiko gera; mundua gaiñera eror badakigu, koldar eta bildurtti izan geralako ez dedilla izan.

EZ.—Ezeren aztarrenik ez danean, koldar ala odoltsu izan, berdinda...

FEDA.—Hori horrela dalarik, ez du garrantzirik, hori da. Baiñan bai-orain... baitakigu noraino jotzeko eta iristeko ausardia dugun. Orain soilik, alkarri buruz-buru begira egoteko gauza geraneon, alkarri txu eta parra egiteko gai geranean... Konprenditzen ahal didazu, Sorne?

SORNE.—Bai, Feda; egin behar dugula uste baduzu.

FEDA.—Hala uste dut. (*Besteei.*) Eta zuek, zer uste duzue? (*Guztiak buru-makur; ez da erantzunik.*)

FEDA.—Agiri danez, ez duzue zuen bizkar hartu nahi lan hau... Egiteko eta erresponsabilidade guztia nere gain uzten duze... Milla puska egingo dugu oibal hori!

EZ.—(*Erreguka.*) Ez, Feda, ez!...

FEDA.—(*Ez bezaio kasorik egin.*) Gertu ahal zaude, Sorne?

SORNE.—Bai.

FEDA.—Hel gionu, beraz! (*Bion artean hel bezaiote oihalari; Ez belauniko, lurrera erori da, eta erdi negarrez ari da.*)

EZ.—Ez, Feda, ez... (*Oihala ken, eta burni-habe luze bat azaldu da: eszenarioaren barrena, batetik bestera, alderi alde hesitzen du; agiri danez, bi familiak ez ezik Ez ere preso dago. Hiru gizon agertu dira, geldi eta isilik, beltzez jantzita.*)

DENAK.—(*Atzera egiñaz.*) Burniak!

FABI.—Selena-k ziona: igaro ez ditezkean burni-habeak dagoz bestaldeti...

SORNE.—Berriz ere burniak...

FEDA.—(*Parra garratza du; etsipenak harturik bezala, lurrean eroririk dagoen Ez seiñalatuaz.*) Gu bezin preso bera! Are presoago, baitzekien preso zegoela. Denok, guztiok gaude burni-habeen artean lotuta! (*Parre zoroa du, ero batena; berehala, bapatean, Oihala eror bedi.*)

AZKENA



LIBURVAK

KARMELO ETXENAGUSIA. *Euskal Idazleen Lorategia* (itz lauz).
HEGOSA. Donostia, 1969.

Horrelako liburuak ez dira urtero argitaratzen, zoritxarrez. Hitz-lauzko antologia honek, mugazemendikoen atal hautatuak jasotzen ditu. Nunbait, egileak, Lafitteren *Eskualdunen Loretegia* errespetatu nahirik egingo zuen. Baina, hala ere, nahiagoko genuen antologia orokorra, zeren euskerak bere seme ditu mugazandiko euskalkiak ere; gainera, lehengo literaturaz hemengoak baino aberatsagoak direnez.

Herri literaturaren ataletatik eta XVI-gn. dotrinetatik hasten da, eta Axular-dik S. Mitxelena-ra arte 48 egileren zati hautatuak.

Lehenago Etxenagusia berak multikopiaz atera zituen Bizkai-Gipuzkoetako antologiak ditu oinharri (Ikusi: EGAN 1966, 146/147; eta 1967, 110/112 horrialdeetan, N. Alzolaren aipamenak). Haietarik bizi direnak kenduta eta nafarrak gehituaz.

Euskera ikasi nahi duten guztientzat behar-beharrezko irakurgai. Eta literatura zaharraren ezagutzera nornahiri laguntzekoa.

Ortografiaz, jakina, gaurkotuak ditu idazki hautatuok, bat edo bestetan iturri jatorretik hartu ez ditualako, puntu batzuek ez daude gaurko aburuak argi jartzeko eran. Esate baterako, Mendiburu eta Ubillos-enak iduritzen zaizkigu ez daudela lehen argitalpenetatik jasoak, hoiek «H»-kin idazten zutelako, eta lan honetan ezin diogu antz eman non eta nola erabiltzen zuten letra hori. Hortik aparte,

fonetismoak ere baztertuak ditu, baina hau ondo iduritzen zaigu baztertzea, batasuneruntz begira.

Liburu bikaina benetan. Gainera, ez-jakin askoren ahoetako euskerazko literaturarik eza gezurtatzaera dator.

Bertoak eta teatru lanak alde batera uzten ditu, itz-lauzko bilduma danez.

Hiztegitxoak ditu idazle bakoitzaren ondorean, hitz gutxi erabiliak argitzeko eta amaieran hiztegi jeneral nagusiago bat.

Idazle bakoitzari sarreratxo bat, bera ta bere lanaren argia emanetz. Aurkibide nagusia eta autore bakoitzarena ditu errez bilatzeko eratuak.

Lan ederra benetan K. Etxenagusiak burutu duena.

J. S. M.

JOSE LUIS ALVAREZ, «Txillardegi». *Elsa Scheelen* (1968 gn. urteko Domingo Agirre Sariaz Euskaltzaindiak hornitutako nobela). Kriselu - 6. Bilbao, 1969.

Errealismu sozial bati aburuzko nobela dugu. Munduan, nobela krisisean dagoen denboran datorkigunez, ezin gera ibili gehiegi eskatzen. Baina, hori bai, «Txillardegi»-k bere egitekoa aski ongi bete duela esan behar dugu. Lehendik ere egileak erakutsia zuen nobelagile nortasuna, eta egia esan, gutxiagorik ez genuen espero. *Leturia'ren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartza'ko*-rekin batean, «Txillardegui», euskerazko nobelagile talde urriaren artean goren mailakoa dugu. Eta gaur erderazkoen aurrean zorrik gabekoa, noski.

Elsa, ia konturatzeke bere alderdia burgesaren-burges ezagutu ezinik arkitzen zan, sindikalista zahar baten alaba zelarik. Gazteen kritikeri eutsi ezinez, eta aberats batekin ezkondu ondorean, elkar eraman ezinez, bizi-alargun, kalbario batean bizi zan. Gizonegandik aragikeria besterik etzuen ikusten, eta fede gabea zelarik, bere sendimentuz moralaren estetika gordetzen zekien bestelako anitzek baino hobeto.

Inguruan dituen personajetarik Meunier apaiz-langile fede-galdua du interesanteenetako bat. Eta beren arteko gertakizunak urduri era-

maten du irakurlea nobelaren orrien barna. Baina bada bertan besterik ere. Beljikako gizarte giroa adierazten du, bizitzaren formatatik politika prolemetara arte. Behar bada ideoloji prolemaz gehiegi kargaturik, eta baita hizkuntzaren aberastu beharrez nobelaren haria bera ere, unetan zerbait nekegarri egiten delarik. Bertako zenbait gai euskeraz inoiz landu gabeak izanagatik, herrikoiago egin zeza-kean bere prosa. Bestalde, esan beharra dago, bide jatorra markatzen duela euskal idazleentzat (irakurlearentzat oraingoz nekez xamarra bada ere) bai euskeraren batasunaren alderako eta bai zenbait eratako soluzioz, euskerak zenbaiterako argitzen dituen korapilloetan.

Nobela bezala jakingarria da eta euskeraz geroago ta barneratua-go datozen idazleentzat non sakonduzko toki berezia. Ez zuen alpe-rrik eraman 1968-ko Txomin Agirre nobela saria.

J. S. M.

ANTONIO ZAVALA, S. I. *Lexo bertsolaria*. Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1968.

Juan Jose Sarasola Azkue, «Lexo» izenez ezagutzen zan bertsola-ria, Lezon jaioa zen 1867-an eta bertan hila 1952-an. Zavalak bildu dizkigu bere bizitza berriak eta bertso guziak.

Gure bertsolari hau egiazko kronista agertzen da. Zavala-ren bil-duma hoiak ematen badizkigute bertsolaritza mailan herri literaturak izan duen mugimendu biziaren neurria, «Lexo» dugu, seguru aski, kronikalari gisan agertzen zaigunik hoberenetakoa. Liburu-a irakur-tzeaz gogoratzen gera oraindik zenbat eta zenbat holako izango du-gun ilunpean, asko galduak eta beste asko galtzeko harrisguan. Jarrai dezala biltzaileak bide hau urte askoan, galzoriko askoren salbame-nerako.

Leizaolaren *La «Crónica» en la poesía popular vasca* lan ederrean anitz bertso gutxi ezagutuak eta maiz ez ezagunak ematen ditularik, baina Zavala argitaratzen ari dan hoietan oraindik badira Leizaola-ren bezalako saiakera liburuan tokia merezi dutenak, kondairaren argigarri.

1894-an jarritakoak eta batez ere 1903-an, garaiko kezka ager-
tzen ditu, baina garaiko kezka sozialak ez-ezik, baita ere langile
jendearen alde jarri, «Lexo» beretariko bat zanez. 1904-an igandea
jai egitearen alde ari da. Baina ikusten da gazte kementsua zelarik
eginak direla bertso hoiek. Eta, gizona helduala, bere ausartasuna
epelduaz joan zen, eta inguruko gertariz mintza beharrean hurrutiko
prolemak ditu berri, Europako gerratea eta hango politika prolemak,
eta hoietan ere beheraka, batez ere zahartzarora, erlijio bertsoetan
gordetzen du bere burua. Europa-ko gerratez hainbeste jardun zena,
1936-tik 1943-ra ixilik bizi da eta azken urteetan gaiez eta kemenez
eroria joan zen.

Joanak joan eta esanak esan, gaztaroko bertsoa haiek zutik geldi-
tugo dira Euskal Herriaren sozial-kondairarako. «Lexo»-ri, langile
bezala, gaitzak eta nekeak min ematen diote, min horren nundikakoa
zihur ezagutzen ez bazuen ere. Maiz gertatzen den bezala, zapatak
min eman eta nun edo zergatik jakin ez, batez ere estrukturaren par-
tetik bada. Orduan horma behar da forma egokia emateko eta ho-
rrela erabagi ditzake. Gizonon artean hormak estuak badira ez dute
erremediorik behar haina zabaldu arte edo betiko bota arte. Baina
«Lexo» gizajoak ez ekien holakorik. Gizajoa? Behar bada gu giza-
joak, hormen estrukturaren berri zerbait dakigunok. Ez ote gera
bizi hura baino larriago? Gela txiroan jaiotzeak zenbat kalte dituan
berakin, guk zerbait badakigu.

Maiz, bero bertsoak tristeak eta pesimistak badira ere, bertsola-
riak berakin izaten duan umorezko ezten zorrotza etzaio falta, ezta
aipatu ditugun langile arazoko bertso hoietan ere. Botoetara behartu
zizutuzenean bezala, 1894-an,

*Botorik ez degunak
lanteritik fuera,
abill-ustian tonto
gertatu gera;
asko dakiten oiek
gutxi gora-bera
gu despatxatutzeko
artu dute era;
daukaten kolera,
denentzat galera,
oien ezaguera
dakigula gera;
ez dago segurantzik
onez aurrera.*

J. S. M.

FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU «Bordari». *Goraintzi* (Gizalargunaren eskeintza). Ondarrabia, 1968.

Berekiko barne-oharleak ditugu olerkiok. Poesia intimista hoieta-koa. Ezin zitekean besterik izan olerkari alargun batek bere egoeratik emazte hilari eskeiniak.

Bertan, emazte hilarentzako maitasun sakonez, neurri gabeko eskeintzak dijoaz, katoliko fede sendotik irtenak. Aurrerantzean geroago nekezago arkituko dan fede zintzo baten oinharri erak ditu. Bere moralaren neurritik ikusita Onassis-Jacqueline ezkontza izugarritzakoa da izan ere eta «Hil da gerore»-n gogorazten digun bezala.

«Ez dakit olerkari naizenik» dio sarrean, baina olerkariak, era askotakoak eta mota askotakoak, landuagoak edo landu gabeak izanik ere, bere barne kezka ta sentipenak agertu behar dituanek, hau ondo betetzen du Bordarik berean.

Bertsok, ilunak izaki. Hala behar zuten ohartarazi bere bihotzeko maite hilarentzat diranez.

Bordarik beste poesi lan asko ditu aspaldi argitaratuak behar zutenak. Poesiari aguro joaten zaio bere adina denbora joanetakoa ezta horren ongi ikusten. Beraz, azkartu bedi lanok argitaratzen, gaur hobe bihar baino.

Eta poesia liburuak era honetan argitaratu behar dira. Txukun, lasai, garbi, zeren kontu hoietan zer ikusi handia du presentazioak ere. Begietatik gogoz sartzeko presentazioak behar dituzte olerki liburuak.

Liburu hau Valverde-ren inprimeriak moldatua da.

J. S. M.



F. MARCOS DA PORTELA. *Nekazariaren dotrina*. Kriselu-5. Bilbao, 1969.

Atarikoan dion bezala, liburu hau, F. Markos da Portela basoko teologian doktoreak gailegoz konpondua, eta Gabriel Arestik euskeratua.

Hurrutitik aditzea bagenuen *O catecismo do labrego*, orain euskeraz dugu. Lehen argitalpenak, gailegoz, Orensen ikusi zuen argia 1889-an; eta, X. Alonso Monterok dionez, hamar argitalpen ikusi omen ditu. Gailegoz beste liburuekin ikusi ezтана. Beraz, Rosalva de Castro, Curros Enríquez eta Castelao idazle handiekin ere gertatu eztena. 1967-an Vigon egin zuten argitalpena 13.000 alekoa omen zen. Gaztelerazko lehen argitalpenak euskerazkoarekin batean ikusi du argia «Kriselu» sorta berean, 1969-an.

Hau ikusirik, ez dago dudarik lan ederra hartu zuela Arestik hau itzultzean.

Gabrielek berak jarri dio hitzaurrea euskerazkoari. Bere zenbait kexa agertzen ditu euskal argitaldierari buruz eta baita ere, euskera batuaren kontuan, Euskaltzaindiari buruz. Bai batean eta bai bestean, izango ditu noski bere errazoiak, baina ez bera batasuneruntz ez etortzean. Besteak betetzen ez dutela berak beste bide bat hartzeari ez deritxot aukeraterik egokiena. Bestela, batasuna zelan behar duanaren exenploa nork eman behar du? *Euskal Harria* argitara ondorean eman zuen hitza berriz ez zuela era hartara idatziko eta batasunezko ortografiara amor emango zuela, baina beste askok Arantzazun aginduak betetzen ez dituztelako, bera, hor dijoa Ubedako muinoetatik zehar. Hori bedori ez ote beste askok Arantzazuko hitzak jan zituzten bezela portatzea? Hontan beintzat ez nator bat gure Aresti-rekin.

Gainera, horrek zertan lagundu dio itzulpenari? Irakurleok ohiturarik ez dugun ortografiaz idaztean, lana irakur-gaitz bihurtu du, eta horri gaineratzen badiogu euskaldun berriak berez hain gutxi ezagutzen dituen eta erabiltzen dituen herri hizkuntzaren moldeak eta esaerak falta izateak, oraindik nekegarriago egiten duelarik. Beraz, euskerazko hau ezta ez irakur goxoa. Besterik da erderazko itzulpena, Gabrielelek berak Carlos Martinesen laguntzarekin egina. Salketeri ere gutxi lagunduko dio euskera era horrek. Hemen, badi-rudi, Gabriel bere begietara lurra botatzen ari dela.

Dana dala, badira euskeraz itzulpen txarragoak, askoz txarragoak, eta horrek konsolatzen gaitu, esateko *O catecismo do labrego* ere lortu dugula euskeratzea.

J. SAN MARTIN.



GURE LIBURU ZAARREN SAILLEAN. *Bozas-Urrutia'ri bi oartxo.*

Gure literatura zaarraren sailletan eiztari bizkorrik ba degu zorionez. Eta ez da arritzekoa noizik bein eiza ederrik jasota agertzen bazaizkigu. Iñoiz, ordea, gertatzen zaie lendik ilda zegoen eizaren bat lepoan arturik etortzea ere.

Olako zerbait gertatu zaio oraingoan Bozas-Urrutia eiztari trebeari. Iñork iñoiz aipatu gabeko liburutzat eman digu azkenengo BAP-en *Cembait Santuren bicitzac* izeneko liburua. Zorionekotzat daukat jaun au eiza ain ederra eskuratu duelako, ainbeste balioko pitxia arkitu duelako. Baña liburu ori ez zan iñork ezagutu gabekoa.

Vinson'ek ba dakazki orren bi argitaraldi. Ala ere, ez zuen bere titulua osorik eman: *Cembait santuren bicitzac, bear dan licentciarequin. San Sebastian, 1843.* Olaxe dakar lenbiziko aldi. Eta bigarrenean, alegia, 1853'gn urteko argitaraldikoan, laburrago ematen dio izena. Ez da, beraz, liburu ori gure bibliografoek aipatu gabea.

Baña ba degu emen illun-unetxo bat. Bozas-Urrutiak 1833'garreneko argitaraldia aipatzen digu. Inprentako utsik ezpada emen, orrek esan nai du beste bein ere argitaratu zela santuen bizitza-liburu ori. Au egia balitz, liburutxo ori ere zorionekotzat jo beargenduke, amar urtez amar urte iru aldiz argitaratua izatea merezi izan zuen ezker. Baña ez ote emen inprentako utsen bat? Bozas-Urrutiak aipatzen duen 1833'gnekko argitaraldia ta Vinson'ek lenengo dakarrena ez ote dira bat bera? Ez zegoen, 1833'n, euskerazko liburuentzat Euskalerrian giro ederrik.

Beste argitasuntxo bat Bozas-Urrutia'rentzat, *Eusquerazco Manuala* deritzaion liburuari buruz. Liburu orrek, izan ere, ala dio: bizkaiko euskeratik gipuzkoakora itzulia dala. Eta egia da, izan ere. Bost urte lenago agertua da bizkaierazkoa, alegia, 1845'gnen, baña erderazko titulu onekin: *Manual Vascongado que contiene el modo de administrar los Santos Sacramentos* Bilbao, Larumbe, 1845. Gutxienez beste bein ere agertu zan inprenta herean, 1863'gn urtean. Gipuzkoerazkoa ere ez da bakarra. Bozas-Urrutiak ezagutarazi digun 1897'gnekko argitaraldiaz gainera, eta au baiño lenago, beste bat gutxienez agertu zan, 1868'gn urtean, *Francisco Machai-en moldizteguien*.

L. AKESOLO.



BIBLIOGRAFIA

AZKEN SEI URTEETAKO EUSKERAZKO LIBURUAK

Aspaldi egindako eskaria da euskeraz argitaratzen diren liburu guztien bibliografia kontrola. Euskerak irakurle gehiago izango badu, beharrezkoa zaio zabalkunde berezi bat eratzea. Erakunde hori zelan behar zen aski luze jardun nintzen **Zeruko Argia**-ren 288 garren zenbakian (1968, irailak 8), "Euskerazko liburuen zabalkunde beharra" izeneko artikulua batean. Proposamenduak toki berean jarraitzen du, zabalkunde handia duten gure aldizkariak hortaz arduratzen ez diren artean: aidean, gure asmu eder asko bezala. Hutsune hau betetzeko, gaurkoz, sei urte hauetako liburu lista emanen dut, titulu, egile, argitaratzaile eta argitaratu den tokia emanez.

Bai arestian aipatu dudan artikulua hortan eta bai nere *Escritores euskéricos* (Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968) katalogoaren sarreran argitara nuen azken urtehotako liburu estadistika, gaur haiei zuzenketatxo batzuek egin beharra badut ere. Bi lanotan numeruz jarritakoak hemen izenez lerroz-lerro jartzea izanen da nere betetzekoa. Asko ziran uste zutenak diran baino liburu gehiago ez ote nituen jartzen, baina nere kontaduria bestera izan da eta lehengo numeruei ale batzuek gehitu beharrean arkitzen naiz, zeren ez bait da hain erreza argitaratutako guztien berri izatea. Beraz, 1963-tik honerat emanen ditut. Urte honetan hasten bait da lehen aldiz hilean bi liburu argitaratzen eta 1966-an (eta ez 1967-an, lehenago jarri nuen bezala) hileko hiru liburu agertzen dira.

Hauetarik, *Escritores euskéricos*-en nion bezala, liburu berriak eta itzulpenak goraka doaz, berriz argitaratuen ondoan. Eta, gauzak gehiago zehazteko, gaurko kuadroan, erdal itzulpenarekin (bilingüe) argitaratu diran euskal liburuei beste toki berezi bat emango dizkiet.

Urtea	liburu berriak	berriz argitaratuak	itzulpenak	erdal itzulpenez	guztiz
1963	11	6	6	1	24
1964	13	3	3	3	22
1965	21	5	5	2	33
1966	23	5	7	2	37
1967	27	1	8	2	38
1968	17	3	14	5	39

Hemen, ez dira izan kontuan euskal aldizkarietan argia ikusi duten antzerki, nobela, saiakera, ipui eta abar. Eta, hogetahamar orrialde inguritik gora izan dituzten argitalpenak bakarrik aintzat hartu dira. Neurri hortatik beherakoak ere anitz dira, batez ere hauren aldizkariak.

Esan beharra dut, kontatu ditudanean, hiru lan daudela zerokopiaz edo inprimeriako letrarik gabe; hauek dira: Etxenagusiaren **Euskal idazleen lorategia** (bizkaierazkoa eta gipuzkerazkoa) (1) eta J. M. Lekuonaren **Min-dura gaur**. Gainerako guztiak inprimerietan ikusi dute argia.

Horrez gainera, esan beharra dut, Liturgia liburuak ere emen jaso gabe gelditzen direla, hoietariko gehienak ez direlako liburu-dendetan salgai jarriak izan. Beren bibliografia zati bat jasotzen du N. Alzolak bere **Euskal-Liturji-Bibliographia** saioan, EGAN aldizkarian (1966, 1-6) 149/154 orrialdeetan.

Denak sartzan ahaleginduarren, badakigu ez dala posible katalogatze zihur bat eta baditeke aleren bat edo beste aipatu gabe gelditzea. Huts hau zuzendu ahal izateko eta Euskaltzaindiaren aspaldiko gogoa danez, ongi litzazguke euskal idazle eta argitaratzaileak euskeraz egiten dituzten liburuetarik ale bat Euskaltzaindiko liburutegira bialtzeko ohitura hartzea, usterik hau dela biderik egokiena bere liburua aipatu ahal izateko, eta bide batez Euskaltzaindiaren liburutegia, euskerazkorik nagusienetako bat noski, bere espezialidadean aberastu ahal izateko.

JUAN SAN MARTIN.

(1) Egile berak argitara berri du *Euskal Idazleen Lorategia* (itz lau), Donostia, 1969. Lehenagoko lanak oinharri harturik osatua, hil ziren egileak soilki hartuaz.

- Agurea ta itxasoa**, Ernest Hemingway (Angel Goenagak euskeratua). "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Aizkolariak ta beste ipui asko** (ipui bilduma), "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Azpeitiko premiyoaren bertsoak** (1893-1895), Antonio Zavala-ren bilduma eta argibideak. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Baratzan**, M. Soroa. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Bertsolari txapelketa**, Bertsolariak. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Bide-giroak**, Luix M. Mujika (erderazko itzulpenarekin). Editorial Sendo. Bilbao.
- Burruntziya; Bernaiño'ren Larriyak; Txibiribiri; San Tomas'eko feriya** (Antzerkiak), Toribio Alzaga. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Dezagun kanta** (Kanta bilduma). Hasparne.
- Eguneroko Meza**, J. Kerexeta eta S. Onaindia. Bilbao.
- Egungentiko txoria ta beste bertso asko**, G. Anduaga. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Fermin Imaz, bertso guziak**, A. Zavala biltzaille. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Ipui onak**, Bizenta A. Mogel. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Iru poema**, Tagore (A. Onaindiak euskeratuak). "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Jolasak**, A. Pascual Iturriaga. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Laborantza. Laborantzatik hobeki bizitzeko**, A. Gatchiteguy eta L. Aguerre. Editions Ezkila Belokekoak argitaratua Iruñeko Gráficas Navarra inprimerian.
- Mendekoste gereziak eta beste**, Jean Etchepare. "Goiztiri". Baiona.
- Musika ixilla**, Joan Ignacio Goikoetxea "Gaztelu" (Fray Luis de León eta San Juan de la Cruz-en itzulpenez osatua). Editorial "Aufiamendi". Donostia.
- On-bidea** (Camino de perfección), Santa Teresa (S. Onaindia eta L. Akesolok euskeratua). Larrea-Bilbao.
- Pello Errotak jarritako bertsoak**, M. Elicegui eta A. Zavalak bilduak. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Pello Errotaren bizitza**, M. Elicegui eta A. Zavala. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Periyaren zalapartak; Melitona'ren bi senarrak; Mendibe'tarren larriyak; Utzi bearko!** (Antzerkiak), A. M. Zabala, A. Larraitz eta Juan Mir. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Salmoak**, X. Diharce "Iratzeder" eta G. Lerchundi. Editions Ezkila Belokekoak. Bilbaoko Ordorica inprimerian.
- Salmoak** (Gipuzkeraz), Baztarrika'tar I. Bilbao.

Zigor (Euskal-poema), Zinkunegi-Lekuona, gaia Campión-en Sancho Garcés-dik hartua. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.

1964

- Ama gaxo dago** (Antzerkia), Martin Ugalde. Cromotip. Caracas.
- Amar urteko bertso-paperak** (1954-1963). "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Apokalipsis** (gazteleraz eta euskeraz), Manuel Celaya. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián-ek argitaratua. Donostia.
- Bidea**, José María Escrivá (Orbegozo eta Lekuonak euskeratua). Rialp, S. A. Madrid.
- Euskeraren berri onak** (saiakera), Agustin Kardaberaz. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Fantasia y realidad - Antología literaria vasca** (2 tomo euskeraz eta erderazko itzulpenez, Bernardo Estornés Lasa-ren itzaurrearekin). Editorial "Auñamendi". Donostia.
- Festara** (Bertso osatuak), Jose Vicente de Echeagaray. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Gero** (Después), Pedro Axular (Luis Villasante-ren erdal itzulpenez). Espirituales Españoles, serie A, tomo XVI. Juan Flors, Editor. Barcelona.
- Gorrotoa lege**, Yon Etxaide. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Gure bertsolariak**, A. Onaindia. Gráficas Bilbao. Bilbao.
- Harri eta Herri**, Gabriel Aresti. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Lardasketa**, José Ramón Zubillaga. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Nafarroa-ko Bertsolarien Txapelketa**, 1963, Colección "Apakia". Iruña.
- Neronek tirako nizkin**, Sebastian Salaverria. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Noizbait** (bertso bilduma), Manuel Olaizola "Uztapide". "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Ondarrak** (lan hautatuak), Txomin Agirre, A. Onaindia-ren hautapena, hitzaurrea eta oharrak. Gráficas Bilbao. Bilbao.
- Ondarru'ko kantak**, Emakumezkoen Acción Católica-koak bilduta. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Orreaga** (pastoral antzerkia), Piarres Larzabal. Editions Goiztiri. Baiona.
- Refranero vasco** (Los refranes y sentencias de 1596), tomo I, Julio de Urquijo. Editorial "Auñamendi". Donostia.
- Salmoak** (Diharce-Lertxundik lapurteraz egina, bizkaieratua), Lino Akesolo. Gráficas Bilbao. Bilbao.
- Senpere-n gertatua** (antzerkia), Piarres Larzabal. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Txindor egadak**, Ramon Maruri. Gráficas Izarra. Donostia.

- Alkartasun barriko itzak eta gaiak**, Kerexeta'tar Jaime. Bilbao.
- Apostoluen egiñak eta idazkiak** (Alkartasun barria), Kerexeta'tar Jaime. Bilbao.
- Argi-Bide txikia**, A. Zugasti eta J. Kerexeta. Bilbao.
- Bertso-bilduma**, Graziano Anduaga, biltzaile eta adigarrien egile: Aita Luis Villasante. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Bertsolari Txapelketa** (1965). Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Bi antzerki ta itzaldi bat** (Eun dukat eta Ameriketako osaba izeneko antzerkiak dakarzki), Manuel Lekuona. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Biotza abeslari**, Ramon Maruri. Gráficas Izarra. Donostia.
- Bordel bertsularia**, Jose Maria Satrustegi. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Charles Perrault'en ipuiak**, Juan Angel Etxebarria-ren itzulpena, hitzaurrea eta oharra. San Antongo Katekesia Verdes Achirica. Bilbao.
- Didaje** (Amabi Apostoluen Irakaspena). **Apostoluen Siniskitza**, Kerexeta'tar Jaime.
- Domenjon de Andia** (antzerkia), Antonio M.^a Labayen. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Europa** (Europa elkartasunai buruz Arantzazun emandako hitzaldi bilduma), J. Azurmendi, E. Salaberry, A. Oyarzabal, X. Garrido, I. Olaberria, G. Ansola, P. M. Zabaleta, V. Kapanaga, J. Intxausti, T. Izagirre eta R. Arregi. Editorial Aranzazu. Oñate.
- Euskal abestiak** (IV-gn. kanta liburuxka). Ordorica. Bilbao.
- Euskal idazleen lorategia - Bizkaieraz itzlauz**, Karmelo Etxenagusia-ren bilduma eta oharra. Seminario de Derio. Derio-Bilbao.
- Eztenkadak**, Juan San Martín. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Filosofiaren kondaira - I** (Sokrates arte, Eskolastika, Espinoza eta Bergson), Oyarbide-Iztueta, Mujika Ajuriagojeaskoa eta Etienne Salaberry. Editorial Aranzazu. Oñate.
- Hilla esopatu** (antzerkia), Piarres Larzabal. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Huntaz eta Hartaz** (Hamar salakera labur), Jose Luis Alvarez "Txillardegí", Editions Goiztiri. Baiona.
- "II-garren Batikano Batzarra"**. (Lenengo aldia. 23-garren Yon Aita Santuak asi ta burutu), A. Yurre. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Iru ziri**, Pedro Migel Urruzuno. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Jesukristo gure Jaunaren barri ona** (Ebanjelioak gipuzkeraz), J. Kerexeta eta A. Zugasti. Donostia.
- Jolasketa** (Bildumaren muña: jolasak, abestiak, ipuiñak, irakurgaiak), Aita Onandia. Bilbao.

- Lili-txingar, Ramon Maruri. Gráficas Izarra. Donostia.
- Martial'en ziri-bertsoak, Juan Anjel Etxebarriaren itzulpena, hitzaurrea eta oharra. San Antongo Katekesisa. Verdes. Bilbao.
- Obras musicales del Padre Donostia; II - Pascua (musika, euskerazko eta latinezko kantekin), A. Jorge Riezu-koak bere oharrez gertaturiko argitalpena. Archivo Padre Donostia. Lekaroz (Nafarroa).
- "Orixe" - Omenaldi, idazlan bilduma. Gráficas Izarra. Donostia.
- Pello Errotaren itzala, Antonio Zavala. "Auspoa" Liburutegia. Tolosa.
- Phedro'ren alegiak, Juan Anjel Etxebarriaren itzulpena, hitzaurrea eta oharra. San Anton Katekesisa. Verdes. Bilbao.
- Teatro zaarra (Gabonetako ikuskizuna, Barrutia; Gabon sariak, Sor Luisa; El borracho burlado, Xabier Munibe). Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Urdin eta Burni, Luis Maria Mujika (bilingüe). Editorial Auiamendi. Donostia.
- Ur-zale baten ipuiak, Pedro Migel Urruzuno. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Xoria kantari, M. J. Minaberry. Editions Ikas. Baiona.
- Zarra (nobela), Ascensio Apalategi Agirre. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.

1966

- Abarrak (Abarrak, Bigarren abarrak, eta abar...), Bustintza'tar Ebaristo "Kirikiño" (Bilduma ta Hitzaurrea: Aita Onaindiak. Aldaketa ta Irrutsak zuzendu: Arteaga'tar Lon'ek). Bilbao.
- Agustin Deunaren eskutitzak, I, Juan Anjel Etxebarriak euskeratuak. San Antongo Katekesisa. Bilbao.
- Arrate'ko Ama'ren altzotik (Arrate'ko irrati-itzaldiak), Oyarzabal'dar Andoni'k. Gazteiz.
- Asis'ko Ioria, Beobide'ko Aita Fr. Krispin. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Auñemendiko Iorea (erdal itzulpenarekin, 2 tomo), Domingo Agirre. Editorial Auiamendi. Donostia.
- Axentxio Txanka bertsolaria, Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Bakar-autuak, Lope de Vega, Juan Anjel Etxebarriaren itzulpena. San Antongo Katekesisa. Bilbao.
- Batikano II-garren Batzarra'ren agiriak (Eleiza ta kristau ez diran beste erlijioak; Gizarte artu-emonetako bideak; Jaungoikoaren agerpena; 3 liburuxkatan argitaratuak), Juan Anjel Etxebarria. San Antongo Katekesisa. Bilbao.
- Bebeita Oleskaria, Aita Onaindia. "Kuliska Sorta". Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Eneko Bizkai eta Maria Lorka (antzerkia), Monzon-Olaso'neko Telespor'ek egiña. Baiona.
- Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari (bertso bilduma), Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.

- Euskal iztegi laburra (A - BD - EF - GI), lau liburuxka, Etxebarria'tar Juan Anjel. San Antongo Katekesia. Verdes. Bilbao.
- Ezkontza bidean, M. Atxaga. Gasteiz.
- Fatima'ko Ama Birjiña ta umeak, Etxebarria'tar Juan Anjel. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Frantziako Erregina, J.-B. Etcheberry. Baiona.
- Garoa (4-garren agerraldia), Domingo Agirre. Editorial Aránzazu. Oñate.
- Gaztelu bertsolaria, Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Gure txoriak, Itziar ta Agirre'tar Martin. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Gurutz-Bidea, Juan Anjel Etxebarria. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Idazlanak osorik, Bergili (Unai-kantak eta Alor-kantak Ibiñagabeitiak euskeratuak eta Enearena A. Onaindiak euskeratua). Bilbao.
- Jesukristo'ren barri ona (Jerusalen'go Bibliatik euskeratua), Kerexeta'tar Jaime. Elorrio.
- Kataliñen-gogoetak (gipuzkeraz 2-garren argitalpena), Arradoy-Villasante. Editorial Aránzazu. Oñate.
- Lati izkuntzaren joskera, Ormaetxea'tar N. "Orixte". San Antongo Katekesiaren euskal argitalpenak. Bilbao.
- Laugarren Txinpartak, Iñaki Eizmendi "Basarri". Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Lingva Vasconum Primitiae, Bernat d'Echepare, N. Alzola-ren bio-bibliografika sarrerarekin eta L. Akesolo-ren gaztelerazko itzulpenarekin. Edición facsímil Separada de la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- Liturji-Gorazarreak, Etxebarria'tar Juan Anjel. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Maitale galdua, Etxebarria'tar Juan Anjel. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Maria Goretti, Domingo Soubelet, Baiona.
- Obras Musicales del Padre Donostia; III - Jesucristo; IV - Marial, A. Riezu-koak egindako argitalpena, bere oharrez. Lekaroz (Nafarroa).
- Mindura gaur, Juan Maria Lekuona. Erroma.
- Pernando Amezketarra, bertsolaria, Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Perrault'en ipuiak (2-garren argitalpena), Juan Anjel Etxebarria. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Phedro'ren alegiak, II eta III-gn. liburuxkak, Etxebarria'tar J. A.-ek euskeratuak. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- San Frantses Jatsukoa, P. Arradoy. Baiona.
- Txomin'en nekaldiak, Alonso Arriño'tar Sabin'ek egíña. Elorrio.
- Udarregi bertsolaria, Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Umeentzako kontuak, Ugalde'tar Martin. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.

- Abestiak.** Asociación Guerediaga. Durango-Bilbao.
- Alzo'ko Imaz bertsolaria,** Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Arnas-jimaztika'ko ikasbide osoa,** Zudayre'tar Binjen. "Vegetus". Bilbao.
- Asarre bidetan (Peregrino de la ira),** erdal-euskal antzerkia, José Acosta Montoro, Murua'tar Erramunek euskeratua. Editorial Auñamendi. Donostia.
- Atalak, Bitaño (N. Alzola).** "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Balendin Uriona,** Garitaonandia'tar Gotzon. Bilbao.
- Basoko loreak,** Etxebarria'tar Juan Anjel. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Batikano II-garren Batzarra'ren agiriak (Kristau aziera),** Juan Anjel Etxebarria. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Bertsolari Txapelketa (1967),** Bertsolariak. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Eskual kantuak.** Editions Hernani. Hendaia.
- Esopo'ren Alegiak (I),** Etxebarria'tar Juan Anjel-ek gerkeratik euskeratuta. San Antongo Katekesiaren euskal argitalpenak. Bilbao.
- Euskal Harria,** Gabriel Aresti. Kriselu. Bilbao.
- Euskal idazleen lorategia - (Itzlauz) II Gipuzkeraz,** Karmelo Etxenagusia. Derio-Bilbao.
- Euskal kanta berri,** Biltzaille: L. Urdapilieta. Iruña.
- Euskal musikolari bikaiñak,** A. Emiliano Barandiaran. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Euskera ire laguna!,** Altuna'tar Patxi. I. - Euskal metodoa. "El Mensajero". Bilbao.
- Fantasia y realidad (Selección literaria vasca),** P. Lafitte - J. Barbier (Ibarrart eta Bekas-en poesiak, I. J. Goikoetxeak gaztelerazko itzulpena). Editorial Auñamendi. Donostia.
- Gauaz ibiltzen dana...,** Dominique Peillen. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Gure Salbaziño-Egintza,** Zarate'tar Mikel. ASCEA. Bilbao.
- Ibiltarixanak (Arrate'tikuen izketango alegiñak),** Toribio Etxebarria. Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Ilargian ere euskeraz (También en la Luna se habla vascuence),** José Luis Muñoyerro, Maritxu Urreta-ren euskal itzulpenarekin. Gráficas Izarra. Donostia.
- Ipuiak,** Agustin Pascual U. Iturriaga. Auspoa Iiburutegia. Tolosa.
- Ipui jatorrak (Cuentos liberales),** Ramon Zulaika'rena, Ramon Murua'k euskeratua. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.

- Iru bertsolari** (A. Zakarra, P. Bakallo eta P. Santa Cruz), Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Itun berria**, "Orixe", Kerexeta, Zugasti. "Eliz-atarian". Lazkao-Donostia. Jainkoaren erria eta Eliz-misterioa, Zabaleta-Gaztañaga. Eliz-atarian.
- Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak**, A. Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Kantika berriak**. Editions Ezkila. N. D. de Belloc. Urt.
- Kantu, kanta, khantore**, Kordelieren irarkolan. Baiona.
- Kataluña'ko olerkariak** (Verdaguer, Costa i Llobera, Maragall), Etxebarria'tar Juan Anjel'ek euskeratuak. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Lo ta amest**, Etxebarria'tar Juan Anjel. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Lur berri billa**, Etxaniz'tar Nemesio. Donostia.
- Luzaide'ko kantiak**, Jose M.^a Satrustegi. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Paskual Duarte'ren sendia**, Camilo Jose Cela (Luis Jauregik euskeratua). "Kuliska Sorta", Itzaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Refranero vasco** (Los refranes y sentencias de 1596), tomo II, Julio de Urquijo. Editorial Auñamendi. Donostia.
- Salmutegia**, "Orixe". Donostia.
- 6-garren Paul Aita Santua ta "II-garren Batikano Batzarra"**, Yurre'tar Yulen. Gasteiz.
- Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria**, A. Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.

1968

- Abereen mundua**, Marcelle Vêrité (Martin Ariztiak euskeratua). "Margo-ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Argitaldaria. Barcelona.
- Afrika**, Felix Sutzen (R. Arregik euskeratua). "Margo-ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Argitaldaria. Barcelona.
- Alza'ko bertsolari zaarrak**, A. Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Amabost egun Urgain'en**, J. A. Loidi (irugarren argitalpena). Editorial Aranzazu, Oñate.
- Biblia**, Michel Riquet-ek kontatua (M. Lekuonak euskeratua). "Margo-ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Argitaldaria. Barcelona.
- Bidaztien aterpea**, Manuel Marín Triana, Etxebarria'tar Juan Anjel'ek euskeratua. San Anton Katekesia. Bilbao.
- Cancionero popular vasco**, R. M. Azkue (2 tomo, bigarren argitalpena). Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- Cancionero popular del país vasco** (con traducción al castellano, 2 tomos), J. M. de Arratia. Editorial Auñamendi. Donostia.
- Egunetik egunera orduan gurrpilean**, Xabier Lete. Hegosa. Bilbao.
- Errenteria'ko bertsolari zaarrak**, A. Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.

- Euskal idazleak - Mendiburu'tar Sebastian** (1708-1782), Juan Anjel Etxebarria. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Euskerazko Meza**, Intxausti'tar Artur. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Galburutan**, Gallastegi'tar Kauldi. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- Gaztedi berri**, Axintxio Elustondo. Lazkano (Gipuzkoa).
- Gazteen Biblia**, F. Hoffman (A. Zugastik euskaratua). Ediciones Bruño. Donostia.
- Gipuzkoa'ko dantza gogoangarriak**, Juan Ignacio Iztueta (3-garren argitaraldia, eta lehena erdal itzulpenez, Santiago Onaindiak erderatua). Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- Giza-bizia**, A. Onaindia-ren zuzendaritzapean, bertan dakar "Humanae Vitae" ere, euskeratua. Bilbao.
- Giza-Eskubidegai guzien Aitorkizuna**, ONU (lau hizkuntzaz egina, galleguz, gazteleraz, katalanez eta euskeraz). Editorial Moret-en "O Facho" elkarteak. La Coruña.
- Goi-bidez** (gogo jardunak), A. Jose Antonio Goiria. Bilbao.
- Goizean goiz** (Obras Musicales del P. Donostia, tomo VII), Jorge Riezuokoak gertaturik. Lekaroz (Nafarroa).
- Goraintzi**, Fernando Artola Sagarzazu "Bordari". Ondarribia.
- Hamalau alegia**, Tomas Meabe (lau hizkuntzaz: gaztelera, euskera, gallegoz eta katalanez), G. Aresti-ren euskal itzulpena. Kriselu. Bilbao.
- ...Hogoi urte**, Daniel Landart. Editions Goiztiri. Baiona.
- Humanae Vitae** (Gizabizitza), VI-garren Paul. San Antongo Katekesia. Bilbao.
- "Humanae Vitae"** - **Giza biziaz** (Intza'r Damaso A.-k euskeratua). Iruña.
- Ipuñak**, R. M. Azkue. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao.
- Iru anai bertsolari** (Saiburu'ko Juan Jose, Nikolas eta Angel Lujanbio), Antonio Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Ito... edo ezkondu** (erderaz eta euskeraz, **Mujeres en Berrigorria** antzerkia), V. Ruiz Añibarro (N. Etxaniz-ek euskeratua). Editorial Auñamendi. Donostia.
- Kolonbiar olerki-txorta euskeraz**, F. Abrisketa-ren ardurapean, A. Onaindia zuzendari dala: L. Akesolo, J. Beistegi, I. Goikoetxea, S. Muniategi eta S. Onaindia-ren itzulpenak, eta Luzuriagaren dibujoak. Buenos Aires.
- Landaren mundua**, Marcelle Vérité (Jose Luis Ansorenak euskeratua). "Margo-ederdun Enziklopedia", Timun Mas, S. A. Argitaldaria. Barcelona.
- Larraundi'ko sendia**, Itziar ta Agirre'tar Martin. "Kuliska Sorta", Itxaropena Argitaldaria. Zarautz.
- Larrea eta karmeldarrak**, Aita Onaindia. Bilbao.
- Lexo bertsolaria**, A. Zavala. Auspoa Liburutegia. Tolosa.
- Mendiko argia**, Weiser (Plazido Mujikak euskeratua). Ediciones Mensajero. Bilbao.

Noni eta Mani (bigarren argitalpena), Svensson (P. Mujikak euskeratua).
Ediciones Mensajero. Bilbao.

Obras inéditas de Iztueta (poesía, correspondencia, testamento), erdera-
euskera, Jose Garmendia. Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vasca.

Olerkiak, Bernat Dechepare (euskerazko bederatzigarren argitalpena, hiru
hizkuntzaz argitaratua; euskerazkoa ortografia berriaz, P. Lafon-ek
frantsez eta L. Akesolok gazteleraz jarriak, L. Mitxelenaren hitzaurreare-
kin) Txertoa - Edili. Donostia. (Ezkondueu koplak izenekoeri azken ber-
tsoa falta zaie euskerazkoan, eta azken-aurrekoan agertzen da bere
lehen zatia nahasturik. Dakus 80-gn. orrialdean).

Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak, Antonio Zavalak bilduak. Auspoa
Liburutegia. Tolosa.

Sekularrak apaiztu, Mikel Urkola. Eliz-atarian. Lazkao.

JUAN SAN MARTIN.

AZKEN BERRIAK

CARACAS-tik oraintsu hartutako berri ardura handiko bat, laburzki eman nai dugu (leku eskasez). Iriburu hortako E.L.E. dalako EUSKERA LAGUNEN ELKARTEAK, MILLA dolareko (USA. \$-1.000) sari bat eskeintzen du, Ikastegietako Texto-liburu bat euskeraz obekienik idatzia presentatzen duenarentzat.

ANDIMA IBINAGABEITIA deritzaion Sari horren Araudian dio, bereziki:

- * «Urteroko sari bat sortzen duela euskal idazleentzat, euskeraren »INDARTZEA eta BATASUNA, elburutzat artuaz.»
- * Saria emana izango da, 1970 urteko Azaroaren 1-ean, idazlari ospetsua zanaren eriotze urtemuga dan egun berean. Saria ezta eman gabe inolaz ere utziko.
- * GAIA: «*Euskal IKASTOLETAKO Textoak*»; 10 urtetik 15 urte-tarako ikasmaillak osatzeko bereziki». Azken hitz honek esan naiko du, lehen maillako gaiak ere erabil ditezkeala; Ikastoletan, lehen gradoko ikasgaiak erabiltzen oi dira.
- * «Texto orretan (dio) edozer ikasgai erabili diteke: ala Fisika, »Kimia, Edesti, Lutelesti, Matematik, Tekniagai, Biologi, Fisiolo-»gi ta abar, edozelako gaiari buru emanaz (Enziklopedia ez ezik).»

Zenbait gaietarako behar liraken hitz-sail bateratuak, egiteko edo osatzeko baidaude oraindik, uste dugu, Araudiak dionez, Liburu edo Texto batean ere, sar ditazkela GEOGRAFIA, HISTORIOA eta NATURAKO Edestia, adibidez, Texto atsegiña eta ulterreza egingo bada; gai guztiak ezpaitira bardin eroso, gaurko euskerarentzat.

- * Lanaren luze-zabala; 38 × 21,50 cm.-ko orrialdetan; bi lerro unez (tartez) idatziak eta guttienez 200 orrialdeko edaduran, apaingarriak kontuan artu gabe.
- * «Lan oiek, len-idatziak edo euskeratuak izan ditazke.» Eztakigu liburu on batetik ere euskeratu ditezkenez.
- * «E.L.E. dalakoaren gogoia da, lana *euskera batuan* idatzia dadin. Ala ere, edozein euskalkietan egindakoak onartuak dira.»
- * «Lanak, 1970 urteko Uztailla-31 egunerako bidalgoan (Postan) ipiñiak izan bearko dira, E.L.E.-ren zuzenbidera (*Apartado 50.381 - Sábana Grande - CARACAS - Venezuela*), ANDIMA IBIÑAGABEITIA izenburuarekin.» Lanak, izenorde batekin (LEMA) eta beste sobre itxi batean, kanpotik LEMA eta barrenean, egiazko izen-deiturak.
Argitasun geiago nai duenak, eska beza goiko arkibide horretara.

LIBURU berri bat

Liburutegietan salgei jarri da, bai eta EUSKALZAINDI-ko Bulego edo langelan (Gipuzkoako Diputazioan) ere, IKASTOLETARAKO egokia dan Ikasbide berri bat, *JOSTATUZ MINTZAI-RA IKAS* izena duana. Gure lankide A. Apat-Etxebarnek erderatik euskeratua, andereñoen eskabidez, Euskalzaindiko beste batzuen laguntzakin, eta gure Akademia horrek onarturik.

Apaingarri asko dakarra eta herri-kutsua gorde du, josteta, ipuin eta kanta herritar asko sartuz, batasun alderako urrats txiki bat eginaz.

* * *

Izendegi berri bat.—Gipuzkoako Diputazioan, bulego berean, salgei ere dago, Euskalzaindiak izendatu Batzordeak osaturiko IZENLERROA edo Bataio-izendegia.

X. X.

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS
(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)



MONOGRAFIA DE D. XAVIER MARIA DE MUNIBE, CONDE DE PEÑAFLORENDA, por Gregorio de Altube.

LA EPOPEYA DEL MAR, por M. Ciriquain-Gaiztarro. (Agotado).

PASADO Y FUTURO DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA, por José María de Arellza.

HISTORIA DEL MONASTERIO DE SAN TELMO, por Gonzalo Manso de Zúñiga y Churrua.

ELOGIO DE D. ALFONSO DEL VALLE DE LERSUNDI, por Joaquín de Yrizar.

BREVES RECUERDOS HISTORICOS CON OCASION DE UNA VISITA A MUNIBE, por Ignacio de Urquijo.

LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS Y LA METALURGIA A FINES DEL SIGLO XVIII, por Manuel Laborde.

REVISTAS

BOLETIN DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS.

Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual (España) 200 »

» » (Extranjero) 250 »

EGAN: Ejemplar suelto: 50 Ptas.

Suscripción anual: 90 »

MUNIBE. — Revista de Ciencias Naturales
Número suelto: 30 Ptas.

Redacción y Administración: Museo de San Telmo

SAN SEBASTIAN



GRAFICAS COLON, S. L.
SAN SEBASTIAN